

Zu hemen zaude. goiena



OÑATIK BADU BERE TELEKOMUNIKAZIO OPERADOREA

Onaro jaio da, herrian Internet eta telefonia finko eta mugikorra eskaintzeko zerbitzua / 50

Xabier Igartua eta Angel Biain Onarori zerbitzua eskainiko dion Merkañoako lehendakaria eta kidea, hurrenez hurren, Izaro Elorza alkatearekin batera, Oñatiko herrigunea atzean dutela, atzo, eguena. IMANOL SORIANO

SINADURAK

	AITZOL ITURBE / 46
	MARIA AGIRRE / 8
	HORAZIO ARGARATE / 51
	GAIZKA ERAÑA / 13
	MIKEL IRIZAR / 64

"Bizia salbatzeko"
Malitik ihes egin behar izan zuela dio Mahamadou Marega errefuxiatuak / 4



Lehen mailako bere lehen buruz buruko finala jokatu du Beñat Rezustak domekan Bilbon / 54

SANJUANAK 2021 57-JAIAK
ARRASATEKO SANJUANEN GEHIGARRIA ERDIAN / 25

Debagoieneko Antzerki Plataformak formakuntza saioak egingo ditu, gizartea "eraldatzeko" / 56

Rosa Arburua ikerlariari elkarrizketa
Industria, CO2 isurketak murrizten

Arrasatekoak gara

Otalora Lizentziaduna, 18 | Tel.: 943 79 29 95 | ARRASATE

Kontsultatu optikaren konpainiarren ezugarriak.

Ikusmen azterketa
doan
+
opariak eta deskontuak

www.multioplicas.com


MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	16	10	3.113	140,97	117
Oñati	15	10	1.392	121,38	218
Bergara	4	6	1.600	106,41	66
Aretxabaleta	3	0	795	112,29	42
Eskoriatza	0	2	399	97,25	48
Antzuola	0	0	240	110,14	0
Aramaio	0	3	172	116,22	202
Elgeta	0	0	64	56,59	0
Gatzaga	0	0	11	44,00	0
GUZTIRA	38	31	7.786	120,14	106

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

"Astebetean ez da egon birusak jotako ingresaturik ospitalean"

Debagoieneko ESiko zuzendari gerente Luisa Diezek adierazi du Debagoieneko Ospitalean ez dela birusaren eraginez ospitaleratutako gaixorik joan den eguenetik. Bestetik, positibo berriek zertxobait egin dute gora: 38 kutsatu erregistratu dituzte

Maialen Santos ARRASATE

Azken egunetan 38 lagun kutsatu ditu koronabirusak Debagoienean; joan den astean baino zazpi gehiago -31 izan ziren-. Iazko martxoan pandemia hasi zenetik dagoeneko 7.786 herritar harrapatu ditu gaitzak, eta 170 hil; azkena, astean, Oñatin.

Herrika, biztanle gehien dituenak, Arrasatek, hauteman ditu kasu berri gehien (16), eta bat gutxiago izan dituzte Oñatin (15). Bergaran lau positibo izan dira azken egunetan; eta Aretxabaletan, aldiz, hiru.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, joan den eguenaz gezotik ez dago birusak jota ingresaturik ospitalean, Debagoieneko ESiko zuzendari gerente Luisa Diezek adierazi duenez.

"Oso pozgarria da hori, baina oraindik ere adi jarraitu behar dugu", ohartarazi du.

NEURRI MURRIZTAILEAK

HIRU ASTEREN OSTEAN BATUKO DA LABI, EGUBAKOITZEAN

Azken egunetan behera egiten jarraitu du EAEko intzidentzia-tasak; martitzenean 150etik behera kokatu zen eta erkidegoa bigarren agertokira igaro da.

Labiren azken bileraren ostean, maiatzaren 31n, Urkullu lehen-dakariak adierazi zuen intzidentzia-tasa 150etik behera kokatuz gero neurriak arindu ahalko zirela. Baina Bingen Zupiria Jaurlaritzako bozeramaileak eta

Gotzone Sagardui Osasun sail-buruak astean azaldu dute bilakaera epidemiologikoa "ona" bada ere Jaurlaritzak ez dituela, momentuz, osasun neurriak arinduko. Edozein modutan, gaur, egubakoitza, bilduko da Labi, neurriak malgutu edo ez erabakitzeke. Besteak beste, honako neurri hauek har ditzakete: jarduerak eteteko eta establezimenduak ixteko ordutegia ordubete luzatzea; merkataritzan eta aretoetan edukiera handitzea, ostalaritzan mahaiko sei pertsona egotea eta elkarte gastronomikoak irekitzea.

Bestetik, nabarmentzekoa da Debagoieneko intzidentzia-tasak ere behera egin duela azken egunetan, eta 106,46koa zela bart; EAEko hiru lurraldeetako bai-

no baxuagoa. Hiru lurraldetan egin du tasak behera azken egunetan, eta Nafarroa eskualdearen berdintsu kokatu zen atzo (105).

MASKARAREN ERABILERA

MASKARAREN GAINIKO ERABAKIA ATZERATU EGIN DUTE

Osasun Publikoko Batzordea, erkidegoak eta Ministerioa batu ziren martitzenean. Aurreikuspenen arabera, udan maskaren erabilera arintzearen inguruan jardun behar zuten, baina ez zuten gaia landu; eta atzeratu egin dute erabakia. EAEko ordezkariak esan zuten oraindik ez dutela komenigarri ikusten aire zabalean maskarak erantzeta.

TXERTAKETA KANPAINA

12 URTEK GORAKOEK TXERTOIA HARTZEA ONARTU DUTE

Txertaketa kanpaina urrats bat gehiago egitea erabaki du Osasun Publikoko Batzordeak. Hiru talde berri zehaztu dituzte planean aurrera egiteko: 12-19 urte bitartekoak, 20-29 urte bitartekoak eta 30-39 urte bitartekoak. Orain arteko ordena bera jarraituko dute txertoia emateko; zaharretatik hasiko dira, alegia.

Datu orokorreari erreparatuta, 1.726.918 dosi jarri dira dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 729.095 pertsonak bukatu dute zikloa; 16 urtetik gorakoen %39,2k, alegia.

37 ikasle Costa Rican konfinatuta

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean LEINN gradua ikasten ari diren 37 gazte konfinatuta daude Costa Rican, guztiek eman baitute positibo koronabirusa atzemateko probetan. Ondo daude, sintoma arinekin bakarren bat, baina berrogeialdia egin behar dute Euskal Herrira itzuli aurretik.

Praktikaldia bukatuta, herrialde hartatik itzultzear zuden Oñatiko fakultateko ikasleak, baina batzuek sintoma arinak igarri zituzten, eta, horrenbestez, probak egin zizkieten guztiei.

Emitza positiboa izan zen ikasle guztientzat, eta, denak ondo daudela adierazi duten arren, berrogeialdia egin beharko dute etxera, Euskal Herrira, itzuli ahal izateko. Une honetan, hoteleko geletan daude isolatuta.



Mahamadou Marega, Arrasaten bizi den etorkin asilo-eskatzailea, asteon. XABI URZELAI

"Bizia salbatzeko egin behar izan nuen ihes Malitik"

MAHAMADOU MAREGA ASILO-ESKATZAILEA

Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna izango da domekan, eta, data aitzakia hartuta, euren herrialdetik ihesi ari direnei laguntzen jarraitzeko eskatu die Debagoieneko herritarrei

Maialen Santos ARRASATE

Duela hamalau hilabete aterazen Mahamadou Marega (Mali, 1978) jaioterritik ihesi, bizi-proiektu berri bati ekiteko helburuarekin. Iazko iraila ezker bizi da Arrasaten, eta herriko bizilagunendako "esker hitzak" besterik ez du.

Zergatik egin behar izan zenuen Malitik ihes?

Gizakien salerosketagatik. Esklabo moduan lan egitera behartzen gintuzten, inolako ordainsaririk gabe. Eta herio-

tza-mehatxuak ere jasaten genituen. Are gehiago, nirekin lan egiten zuten asko erail zituzten, eta beste asko torturatu; tartean, ni neu. Beraz, esan dezaket nire bizia arriskuan zegoela, eta hori salba-

"ESKER HITZAK BESTERIK EZ DUT ARRASATEKO BIZILAGUNENTZAT; EDERKI HARTU NAUTE"

tzeko ez zitzaidala ihes egitea besterik geratu.

Hunkitu egiten zaitu iraganaz hitz egiteak...

Bai. Kontziente naiz sekulako zortea izan nuela, ihes egitea lortu nuelako. Izan ere, morroiek inolako sentiberatasunik gabe tratatzen gintuzten. Oraindik oso gogorra egiten zait atzera begiratzea, asko hunkitzen nau. Badakit orain toki seguru baten nagoela eta nire bizia ez dagoe la arriskuan, baina orain artean ezin izan dut iragana gaintitu.

Nola sartu zinen Espainiako Estatura?

Pateran iritsi nintzen, Malagara, eta bertan polizia-etxera eramanez ninduten asilo-eskaera egitera. Gero, Cadizko San Fernando herrian izan nintzen bizitzen. Horren astean, Arrasatera lekualdatu ninduten. Bide osoa egin dut Gurutze Gorriko kideen eskutik.

Duela zenbat iritsi zinen Malagara?

Duela urte bat eta bi hilabete. Edozelan ere, iritsi nintzanean ez nekien irakurtzen ez eta idazten ere; beraz, ez naiz gai esateko toki bakoitzean zenbat hilabete eman ditudan. Badakit, baina, Arrasaten joan den iraila ezker bizi naizela.

Dagoeneko badakizu irakurtzen eta idazten...

Bai; hemen irakatsi didate. Egun, etxebizitza batean bizi naiz beste hiru lagunekin, eta egunero jasotzen ditut eskolak; oso gustuko ditut. HHra (EPA) joaten naiz, eta, horretaz gain, gazte-lera ere badihardut ikasten. Eskolak amaitutakoan herrian paseatzea ere gustuko dut.

Zer egin gura duzu etorkizunean?

Arrasaten geratu gurako nuke. Andaluziarekin alderatuta, oso bestelakoa da iparraldea, eta gehiago gustatzen zait. Gobernuak nire asilo-eskaera onartu dezan gura dut, eta, hala, nire ametsa bete: Arrasaten bizi eta okina izan nahi nuke, nahiz eta beste edozein lanetan ere gusura arituko nintzatekeen.

Asilo-eskaera onartzeak zein esantzia du zuretzat?

Errefuxiatu izaera onartuta izango nuke, eta hori da niretzat garrantzitsua; horrek esan gura baitu Gobernuak aitortu duela Malin nire bizia arriskuan egon daitekeela, eta, beraz, ofizialki babestuta egongo nintzateke. Gainera, Estatuan bizitzeko eta lan egiteko baimena izango nuke. Duela hamalau hilabete egin nuen eskaera, eta oraindik zain nago. Asiloa onartzeak hilabete asko eraman ditzake, eta, gainera, ez dago ziurtatuta onartuko dutenik ere.

Gurutze Gorriak zertan lagundu ditu?

Denean. Aterpe bat eman didate, baita elikagaiak ere. Ikasketak egiten laguntzen didate, eta medikuarenean edota administrazioan hitzordua dudanean bertara laguntzen didate.

Arrasateko herriari buruz zer esan dezakezu?

Esker hitzak besterik ez dut Arrasateko bizilagunentzat. Ederki hartu naute eta jendeak ahal duen guztian laguntzen dit. Klean tokiren batera iristeko laguntza eskatzean oso jator ematen dizkirate argibideak, eta, are gehiago, noiz edo noiz lagundu egin didate toki hori aurkitzen. Nire egoeran daudenei laguntzen jarraitzeko eskatu gura diet. Jainkoari ere egunero eskatzen diot lagundu diezagun: ni, eta baita inguruan ditudan herritarrak ere.

Errefuxiatuak laguntzeko zerbitzuak

Gipuzkoako Gurutze Gorriak, besteak beste, Arrasaten gauzatzen du errefuxiatuak laguntzeko programa. Espainiako Ministerioak bideratzen ditu asilo-eskatzaileak, eta programako psikologo Angela Peinadok adierazi du hemezortzi hilabetez ematen dietela laguntza: "Sei hilabete egiten dituzte Arrasaten ditugun etxebizitzetan —lau daude—, edo Eskoriatzan —bakarra dago—. Gero, euren kabuz topatu behar izaten dute etxebizitza bat, nahiz eta beraiek laguntzen jarraitzen dugun urtebetez". Gaineratu du laguntza ekonomikoa, psikologikoa eta administratiboa ematen dietela, eta egun, 25 lagun inguruk jasotzen dute. "Denbora amaitzean suposatzen da gai direla euren kabuz bidea egiten jarraitzeko; helburua da ahalik eta egoera onenean heltzea".

CEAR-Euskadiak Oñatin duen Larraña Etxea harrera zentroan ere hartzen dituzte asilo-eskatzaileak. 2018ko urriarri zentroa ireki zutenetik, 450 lagun ingururi eman diote laguntza, bertako zuzendari Arantza Chaconek azaldu duenez: "Une honetan 48 pertsona bizi dira zentroan: 36 gizonetako eta 12 emakumezko. Horien artean bost familia daude, eta zortzi dira adinez txikikoak". Eta gehitu du: "Toki askotatik datoz: Nigeria, Maroko, Guinea, Aljeria... Eta lehen aldiz Georgiako familia bat ere badugu". Hamahiru langile eta "boluntario ugari" aritzen dira egunerokoan.

GIPUZKOAK

BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,
**Europar
desberdintasun
maila txikienetarikoa**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euzko Legebiltzariaren
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa

Holokaustoko biktima debagoiendarrei aitortza

Gipuzkoako Foru Aldundiak nazien kontzentrazio-esparruetara deportatutako gipuzkoarrak omendu zituen joan den zapatuan; tartean, hiru debagoiendar: Tomas Rebollo eta Pascual Askasibar elgetarrak eta Pedro Axpe bergararra

Imanol Beloki DEBAGOIENA

II. Mundu Gerran III. Reich-eko kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten 80 gipuzkoar omendu zituen zapatuan Gipuzkoako Foru Aldundiak; tartean, hiru debagoiendar: Tomas Rebollo eta Pascual Askasibar elgetarrak eta Pedro Axpe bergararra.

Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko ohorezko plantan egin zen, eta honako hau esan zuen Markel Olanok, Gipuzkoako diputatu nagusiak: "III. Reicheko makineriak zenbaki bihurtu nahi izan zituen, beraien izenak ezabatuta pertsona gisa zuten duintasuna kentzeko saiakera bezala. Baina, hala ere, gaur beraien izen eta abizenekin gogoratzen ditugu".

Memoria historikoa ez galtzeko Pascual Askasibar, 1945eko otsailan heldu zen Neuengamme-ko Wöbbelin lan azpiesparruko (Alemania) kontzentrazio-esparrura; Tomas Rebollo 1941eko azaroaren 3an heldu zen Mauthausen-go (Austria) kontzentrazio-esparrura; eta Pedro Jose Aspe 1944ko abuztuaren 28an eraman zuten Dachau-ko (Alemania) esparrura. Haien memoria historikoa galdu ez dadin, zenbait elkarte, erakunde eta eragile aritu dira lanean, Alemania naziaren atzaparretatik ihes egiten saiatu ziren horien historia lau haizeetara zabaltzeko lanetan, eta, horren harira, diputatu nagusiak, La Ilusion kolektiboa eta Mauthausengo Amical taldea aitortu zituen.

Jaioterrian egindako aitortzak Foru Aldundiaren aitortzaz batera, hiru debagoiendar errepublikanori egin zizkieten omenaldiak euren jaioterrietan, 2017an. Askasibarren eta Rebolloren omenezko plakak Elgetako Mendizaleen plazan daude



Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko ohorezko plantan egindako ekitaldian. GFA

MEMORIA EZ GALTZEKO LAN EGIN DUTEN ELKARTEEK ERE AITORTZA JASO ZUTEN EKITALDIAN

eta Pedro Jose Asperen omenezko plaka, berriz, Munibe plazan dago, Bergaran. Azken hau omendu zutenean, Juan Ramon Garai Intxortako kideak honako hau adierazi zuen Bergarako ekitaldian. "Garrantzitsua da belaunaldi berriei herrian zer nolako pertsona borrokalariak eta eredugarriak zituzten erakusteko halako ekitaldiak egitea, eta holokaustoa bezalako sarraskiak berriz ez gertatzeko. Hala ere, harrigarria da hainbeste urte pasa ostean horrelako omenaldiak egiten egon beharra. Hau duela 40 urte egin beharreko zerbait zela uste dugu". Garrairen hitzekin batera, Lore Martinez Axpek ere hitz egin zuen, eta memoriaren aldeko elkarteek egindako lana goraiatu zuen: "Lehenago egin beharreko omenaldiak izan behar zuten gaur nire aitoren anaia-

ri egindakoa eta bera bezala arrazoirik gabe eraildako beste hainbat pertsonari egindakoak. Esker oneko hitzak ez dira falta. Memoria elkarteek ikerkuntzei esker jakin dugu Pedro Jose Axperen ibilbide zehatza zein izan zen. Urte asko pasatu dira, eta transmisioa egiten ez bada galtzeko arriskua dago".

Biktimen familiarrak ezin bilatu Nazien kontzentrazio-eremura eraman eta bertatik bizirik irten ez ziren Askasibar eta Rebollo omentzeko ekitaldia Elgetan egin zenean, aldiz, euren omenezko plakak jarri zituzten herriko plazan. Bi familiekin kontaktuan jartzen saiatu zen Elgetako Udala; Askasibarrenak ez zituzten topatu, baina Tomas Rebollorenak bai. Hala, Rebolloren semea bertan izan zen; Elgetan sekula egon gabekoa zen. Ibilbide luzea egindakoa da holokaustoko biktimen aldeko elkarteetan, eta, omenaldi ekitaldiaren ostean, hark proposatutako *Noche y niebla* dokumentala eman zuten Elgetako udaletxean, eta gaiaren inguruko hitzaldi labur bat egin zuen.

11.000 lagunek egiten dute bat egunero Goiena telebistarekin

CIES erakundearen azken neurketak inoizko daturik onenak eman ditu Goiena telebistarendako

I.B. DEBAGOIENA

11.000 lagunek ikusten dute egunero Goiena telebista. Hala dio CIES erakundearen azken audientzia neurketak, aurtengo martxoan eta apirilean egindakoa. 8.000 ikus-entzule ditu eskualdean, eta inoizko daturik onenak dira Goiena telebistarendako. Tokiko telebisten artean, Goiena ikusiena da Gipuzkoan, Hamaika telebistaren aurretik. GOIENA aldizkariak, bestalde, nagusi izaten jarraitzen du Debagoiengan, askogatik. 26.000 irakurle ditu eskualdean -33.000 Gipuzkoan-, bigarren papereko irakurrienaren bikoitza -*El Diario Vasco*-.

Tokiko telebista ikusiena

Iazkoa oso urte zaila izan zen, bereziki, tokiko telebistendako. Batetik, ohiko telebista kateak hartzeko kanal aldaketaren ondorioz antenetan egin beharreko egokitzapenak ez ziren mesederik egin. Bestetik, COVID-19ak aldaketak eragin zituen informazioaren kontsumoan: plataformetako edukien kontsumoa asko hazi zen, eta baita sarekoa ere. Ondorioz, tokiko telebista kateek audientzia galdu zuten. Goienak ere bai. Teledonosti, esaterako, desagertu egin zen. Aurten, ostera, oso datu onak izan ditu Goienak, eta tokiko telebista kateen artean ikusiena da Goiena telebista Gipuzkoan.

Oihane Agirre Goiena telebistako zuzendariak honako hau dio: "Oso pozik gaude; ba-

tez ere, iazko datuak oso txarrak izan zirelako, urte oso nekeza izan zelako eta zailtasunak zailtasun aurrera egin eta egoera iraultzea lortu dugulako. Lan handia egin behar izan genuen iaz, telebista berrasmatur, formatu berriak probatuz... Aurten ere ahalegin berezia egin dugu saio berriak eskaintzeko eta jendearen gustukoak diren gertuko istorioak, pertsonak eta gaiak ikus-entzunezkoen formatura ekartzeko. Oso eskertuta gaude gure komunitatea osatzen duten guztiei, eman diguten konfiantzagatik, zailtasunak zailtasun eta konpentzia inoiz baino handiagoa den honetan".

Sarean, hazkunde handia

Bestetik, *Goiena.eus*-ek iaz inoizko hazkunderik handiena izan zuen. 2019arekiko %55 hazi zen erabilzaileen kopuruari dagokionez. Pandemiaren osteko lehen hilabeteetan, 12.000 lagunek bisitatzen zuten egunero *Goiena.eus*. Gaur egun, batez beste, 8.000 lagun sartzen dira egunero *Goiena.eus*-era.

Azkenik, GOIENA aldizkariak segitzen du nagusi izaten Debagoiengan. Ez bakarrik paperekoen artean, debagoiendarrek kontsumitzen dituzten hedabide tradizional guztien artean -telebista, papera zein irratia- jarraitzaile gehien dituen da eta paperekoen artean bigarren irakurrienaren bikoitza irakurtzen da Goienaren paperekoa.

Lan hitzarmena lortzeko borrokan jarraitzen dute

Bosgarren greba eguna egin dute asteon, Arrasaten, Aita Menni ospitaleko langileek, lan hitzarmena eskatzeko. ELA sindikatuaren babespean, Aita Menni-ko langileek euren lan baldintzak hobetzeko eskatu diote ospitaleko zuzendaritzari. Halaber, erantzunik jaso ezearan mobilizazioak indartu egingo dituztela adierazi dute.

Azken hiru urteetan Aita Menni-ko langileek hainbat ekimen egin dituzte enpresarekin hitzarmena lortzeko, baina, eguazteneko greba egunean, oraindik erantzunik jaso ez dutela esan zuten. Gainera, greba egiteko "oztopoak" izan dituztela jakinarazi zuten.

Hori horrela, datozen asteetan, langileek "sozializazio mahai bat" jarriko dute Arrasateko kaleetan, herritarren sinadurak biltzeko eta "administrazio publikoa interplatatzeko".



Goiena mediako bideo eta argazki guztiak deskargatzeko gertu.



Goienakide txartel digitala: deskontuak Debagoieneko komertzioetan.



Gertuko informazioa eta eduki pertsonalizatua, sortu ahala.



Goiena telebista zuzenean, nahiz nahieran.



'Goiena' aldizkariaren zenbaki guztiak eskura, inon baino lehenago.

Goiena app berria. Leku bakarrean, dena.



Eskaneatu qr-a, edo:
www.labur.eus/goiena_aplikazioa



Goienakide izatearen abantailak eta zozketak.

9

herri

goienaOkmgida

Debagoien osoko 'Goiena Okm Gida'.



'Puntua' aldizkariaren zenbaki guztiak eskura, inon baino lehenago.

goiena

Zu hemen zaude.



ZABALIK

MARIA AGIRRE

Telefono kabina

Urtebeteko epean telefono kabinak desagertuko dira kaleetatik. Sakelako telefonoa jaun eta jabe bihurtu den honetan, jada ez omen dute zerbitzu publikorik betetzen. Horregatik, Telefonicak ia guztiak kenduko ditu urtea bukatzerako.

Iragarpen horren aurrean, badira telefono kabina euren heritik ez kentzeko eskaria egin duten herriak. Lasarte-Oria da horietako bat. Herrian jaiotako Antonio Mercero zinema zuzendariak egindako *La cabina* filmagatik eskatu dute herriko kabinari eustea. Bai, filmean bezala, telefono kabinek bazuten puntu klaustrofobikoa.

Debagoienean ere bada zeresan handia eman zuen telefono kabina. Duela ez asko, Aretxabaletako Durana kaleko kabinak komunikabide askoren interesa piztu zuen. Domekero, zerbaitekin apainduta esnatzen zen, edo mezu ezkutuekin lagunduta. Komunikabideetan artea ala joko ote zen galdetzeraino.

DENBORAREN MAKINAN SARTU ETA ATZERA EGITEA BEZALA IZAN DAITEKE

pantano eta *Urkulu* idatzita, berriz, 13.000 emaitza inguru. Beraz, erdia ere ez. Turismo kanpaina merkeagorik! Zer izango litzateke film bat egin izan balitz Aretxabaletako kabinan.

Ez dakit gaur egun Aretxabaletan geratzen diren bi kabinak –bat eliza ondoan eta beste bat Portasolerako bidean– erabiltzen ote diren deiak egiteko. Telefonicak erretiratuko dituen ere, auskalo, baina, akaso, eskatu beharko litzateke bietatik bat, behintzat, ez kentzea. Garai bateko bizimoduaren adibide diren gailuak mantentzeak herria aberasten eta janzten duela iruditzen zait. Gainera, haurren galderak egiteko aitzakia izan daitezke, eta, momentuz, badira telefono kabinen inguruko pasadizoak kontatzeko gai diren aretxabaletarrak. Telefono kabina batean sartzea denboraren makinan sartu eta atzera egitea bezala izan daitezke.

Interneten sartu eta idatzi ditut hiru hitz: *Aretxabaleta*, *kabina* eta *telefónica*. Harrituko zarete, baina 27.000 emaitza agertu zaizkit. Lotura pila bat, esaldi erakargarriekin lagunduta. *Aretxabaleta*,

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Auzogobernua

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Autogobernua beti ahotan. Askok bizi da horrela, eta hortik. Iazko uztailean Euskal Erdian hauteskundeak deitu zituen Urkullu lehendakariak. Baita asmatu ere. Orduan ere esan nuen eta denborak arrazoi eman dio. Onena izan zen: udako epelean hauteskundeak egin eta gobernu sendoa osatuta iritsi ondoren etorri ziren olatuetara.

Oraingoan, baina, kale egin duela uste dut. Espainiako Gobernuak iazko urrian alarma egoera ezarri zuen. Eta maiatzaren 9arekin amaitu

zen Hego Euskal Herrian ere. Une hartan EAE Espainiako erkidegoen buru zen COVID-19aren intzidentzia. Urkulluk Sanchezzi eskatu zion Espainian alarma egoera luzatzeko. Madrildik –eta Idoia Mendiak nahiz Denis Itxasok hemendik– esan zioten ezetz; nahi bazuen EAERako ezar zezala. Urkulluk ez zuen bide hori jorratu. Zergatik? Ez du argi azaldu.

Alegia, EAE herrialde independente bat balitz, itxuraz, alarma egoera ezarriko zukeen. Osasun irizpideek hala komeni zela zioten. Baina Espainian alarma egoera ezarri ezenez –ulergarria, Valentziako edo Kanarian irletako egoera

lasaia ikusita–, EAEn eta Nafarroan ez zen alarma egoera ezartzeko eginahalik izan. Autogobernuak autoardura izan behar du ezaugarri. Berri onak emateko bezala, txarretarako ere baliatu behar genuke. Une erabakigarrian auzogobernura jotzea, jendearen nekeagatik edo ez dakit nik zergatik, harrigarria izan zen, gutxienez; eta koldarra, ziurrenik. Autogobernua maiz goratzen dutenen ahotik, harrigarria. Eta epidemiaren kontrolaren ikuspuntutik, arduragabekeria arriskutsua. Alarma ezartze kontuan, Espainiaren menpe kokatu gaituzte. Felix Zubia haserre zen. Eta ni ere bai.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Bizitza duinaren aldeko sindikalgintza dugu helburu"

MADDI ARRIETA LAKA LAB SINDIKATUKO EKINTZA SOZIALEKO KIDEA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE LAB sindikatuko Deba eskualdeko delegatuak Arrasaten batzartu ziren eguaztenean. Ikasturtearen balorazioa egiteko eta Ekintza Sozialeko Komunitatea aurkezteko elkartu ziren. Komunitate berriko kide da Arrieta (Donostia, 1993).

Ikasturtearen balorazioa egin duzue. Urte gogorra izan da? Sentsazioa hori da, bai. Maila pertsonalean bereziki gogorra izan da, eta lan eremuan ere oso intentsua. Askotariko gatazkak izan ditugu, eta askotariko eremuetan. Aurretik zetozen arazo batzuk gehiago azaleratu dira, eta badira, baita ere, pandemiak azkartu dituen krisiak. Hor daude enplegu suntsiketaren gatazka, zerbitzu publikoen desegitea... Halakoek dakarten odolusteari aurre egin beharko diogu, gainera. Esaterako, aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak amaitzen direnean.



LAB sindikatuko Maddi Arrieta Laka Arrasateko Seber Altube plazan. LARRAITZ ZEBERIO

Hala, abian duzue Ekintza Sozialeko Komunitatea. Zer da? Hausnarketa potolo batetik datorren ekimena da. Orain arte, lan eremuan kokatu izan dugu sindikalgintza, eta une honetan ulertzen dugu lanak,

kapitalak edo sistema kapitalista heteropatriarkalak bizitzaren askotariko esparruetan erasotzen gaituela. Erasotuak gara, merkantilizatuak, salgai bihurtuak... Eta zapalkuntza

horien aurrean erantzun beharko genukeen sindikatu bat izan beharko genukeela erabaki genuen. Eztabaida potoloa da, baina gure helburua da bizitza duinaren aldeko sindikalgintza egitea. Horretarako ari gara sortzen Ekintza Sozialeko Komunitatea. Sorrera fasean da, eta dagoeneko bagara 400 bat lagun. Debagoienean ere jaso du erantzuna. Izen-ematea zabalik da webgunean. LABetik sortutako espazio bat da, baina ez LABeko kideendako soilik, baizik eta ekintza sozialean sinisten duen zein gogoia eta indarra horretan jartzeko asmoa duen edozeinentzako. Bidea oraindik egiteko daukagu eta egitekoa badaukagu.

Sorrera fasean lehen topaketa batzuk egin dituzue, ezta?

Bai. Elkar ezagutzeko eta lehen hartu-emanak izateko egin ditugu Irun-Hendaian, Basaurin, Gasteizen, Atarrabian... Espektatibak partekatze espazio irekiak izan dira. Pentsatzen dugu komunitateak aktiboa izan behar duela, parte-hartzailea eta kolektiboa. Iritziak eta ikuspegiak ere une oro eraldatzen eta testuingurura egokitzen joango direla pentsatzen dugu. Ikusten dugu indibidualizazioarako joera

handitu egin dela, geroz eta zatituago gaudela, elkartzeko beldurra dagoela... Eta lan eremuan zein lan eremutik kanpo gertatzen da hori. Horri aurre egiteko unea iritsi dela uste dugu, eta ideia oso interesgarriak atera dira. Berritzailea den bateren bat ere atera da.

Hain zuzen ere, lehen ekintza Irun eta Hendaia arteko mugan egin duzue. Maskara beltzak jantzita zeharkatu duzue muga hainbat lagunek.

Gure ustez, manifestazio hori ekimen garrantzitsua izan da bizi baldintza duinen aldeko borrokan. Jatorri aniztasunaren problematika gizarte osoaren erronka bat da, eta langileok ekarpen handia dugu egiteko. Hori da komunitate horrek eduki behar duen helburu nagusietako bat, bai langile migratu asko dauzkagulako, bai langileen arteko elkartasuna ere behar dugulako. Irun-Hendaian bizitzen ari garen errealitatea oso gordina da. Ikusarazten eta salatzen saiatu gara; betiere, bertan egunero lanean diharduten eragileekin elkarlanean eta haien adostasunarekin. Erronka handia izan da. Muga inposatuak ditugu, eta orain, inoiz baino militarizatuagoak.

ITURRI ONETIK

Errekan Gora, iraileko asteburu bakarrean

Atxorrotx Kultura Elkarteko ordezkariak jakinarazi dute irailaren 17ko, 18ko eta 19ko asteburuan egingo dela Eskoriatzako Errekan Gora jaialdia. Hamahirugarren edizioa berezia izatea nahi dute elkartekideek, eta, musika ardatz, jaialdia asteburu bakarrerara mugatu nahi izan dute. "Sorpresak eta kalitatezko musika taldeak" lotzen ari direla gaineratu dute. Oraingoz ziurtatuta dauden izen batzuk: Broken Brothers Brass Band, The Allnighters, Moonshine Wagon eta Wood Strings.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-06-18

City Car, Mondragon-eko auto elektrikoa

Mondragon Taldeak City Car izeneko auto elektrikoa aurkeztu zuen Garaia Parke Teknologikoan. "Auto elektrikoendako teknologia garatzeko eta negozioa sortzeko aukera handia dago", adierazi zuten Ikerlan-eko ordezkariak. Jose Mari Aldekoa eta Jose Ramon Goikoetxea Mondragon Taldeko eta Mondragon Automocioneko presidenteeak aurkeztu zuten. 105 km/h gehieneko abiadura eta 80 kilometroko autonomia zuen.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

#TipularenSehaskaKanta 'crowdfunding'-a

Abiatu dute espetxean gaixotasunak dakarren samina azalera ekarri gura duen film dokumentalaren aldeko diru-bilketa kanpaina.

@landergarro: "Milesker #tipularenSehaskaKanta filmaren croundfoundingean hain eskuzabalki parte hartzen ari zareten guztioi. Zein herri ederra dugun".

@erbestean: "Itxura eta behar latzak. Nik ekarpena egin dut. Eta zuk?".

@IzaskunArandia: "@landergarro-ren gidaritzapean badago, seguru ederra izango dela. Zorte on!".

@sare_herritarra: "Hasi gara crowdfunding kanpainarekin".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Erronka globalei soluzio lokalak ematea eta hori elkarlanetik artikulatzea dira D2030 ekimenaren oinarriak. Bi ideiak ere, Fagor Taldearen ereduarekin bateragarriak.

Debagoiena 2030 ekimenaren sustatzaile nagusia da Fagor. Zergatik D2030?

Erronka konplexuei erantzungo dien aro berri baten atarian gaude: energian, mugikortasunean, elikaduran, industrian... aldaketa itzelak biziko ditugu datozen urteetan. Erronka horiei erantzuteko, ezinbestekoa izango da soluzio lokalak artikulatzea.

Debagoiena osatzen dugun komunitateko kideok jakin behar dugu zer egin dezakegun dimentsio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa izango duen garapen eredu orekatu batera joateko. Horretan ari gara D2030 osatzen dugun eragileok. Fagor guztiz bat dator ekimenaren helburuarekin eta saretzen ari den lankidetzaren proiektuarekin. Bereziki aberatsa eta potentia iruditzen zaigu D2030en argazkia: eragile desberdinak, lankidetzaren publiko-privatua sustatuz, dagoeneko Debagoiena inklusibo, adimentsu eta klimatikoki neutro baten alde lanean. **Fagorrek ere bere egiten ditu helburu horiek?**

Bai, zalantzarik gabe. Aski ezaguna da Fagorrek hamarkada luzeetan Debagoiena adimentsu eta inklusibo baten alde eginikoa. Eta, aurrerantzean, aurreko biek batera, klima aldaketaren erronkari erantzutea ere badagokigu.

Elkarlana, zenbateraino emateko gai dela uste duzue?

Kooperatibagintza lankidetzatik dago sortua, eta lankidetzak ekarri du gure Esperientzia Kooperatiboa gauden lekura. Gure izaeraren barne-barnean daramagu. Zure galderari erantzunez, ezin da esan zenbateraino eman dezakeen beste, hori bertan gauden aktoreak konpartitzeko prest gaudenaren arabera izango delako. Hori bai, asmatzen badugu, Debagoienaren etorkizunean eragin

"Lurraldearen erronketan inplikatzeko borondate garbia du Fagor Taldeak"

JOXEAN ALUSTIZA USANDIZAGA FAGOR TALDEKO PRESIDENTEA

Energian, inklusioan, lanaren etorkizunean-eta gizarteak dituen erronkei nola erantzun aztertzen dabilen D2030 ekimeneko sustatzaile nagusi da Fagor Taldea



Joxean Alustiza. GOIENA

inportantea izango duen ekimena izango da. Argi eta garbi. **Iraunkortasun estrategia onartu berri duzue. Zertan datza?** Hurrengo hamarkadetan, iraunkortasunak inpaktu

handia izango du enpresen lehiakortasunean. Horri guztiari erantzuteko jaio da Fagor 2030, industria kooperatibo eta iraunkorra eraikitzen lagunduko digun ibilbide-orria.

Industriaren karbono aztarna gutxitzeko ahaleginak jarri zenituzten martxan duela urte batzuk Fagorren. Nondik hasi horrelako lan baten?

Karbono aztarna gutxitzeko prozesuan, hasi aurretik, zein puntutan dagoen jakin beharra du bakoitzak. Horretarako neurketak egiten gabiltza azken hilabeteotan. Gure karbono aztarna noraino helden den eta zein osaera duen jakinda, neurriak eta helburuak definitzeko faserara pasatzeko moduan izango gara. **Zein helburu erdietsi beharko zenituzkete, Fagor karbono neutroko industria izatera iritsi dadin?**

Karbono aztarnaren murrizketak enpresa baten balio kate osoaren inplikazioaren beharra du: produktua egiteko behar diren lehengaien ekoizpenean, horien garraioan, produktuen ekoizpen prozesuan, produktuek bere bizitza zikloan –hor ere isurtzen dute–... Helburu batzuk, bada, gure eskuetan daude, eta, esan bezala, epe laburrean zehazteko moduan izango gara. Beste hainbatek, osterara, hornidura katearen inplikazioa eskatzen dute. Azken hori konplexuagoa da. Urratsez urratsezko prozesua da, baina dagoeneko hasiak gara. Guretzat oso inportantea da iraunkortasun estrategia definitu eta martxan jarri izana.

Autogintzaren sektore bideratutako enpresak dituzue. Garraioaren sektorean erronka itzelak dituzue iraunkortasunaren ikuspegitik.

Autogintza munduan iraultza baten atarian gaude. Ibilgailu elektrikoak eraldaketa sakonak ekarriko ditu autogintza osoan, eta datozen urteetan sektorean diharduten gure kooperatibek iraultza horretara moldatu beharra izango dute: egungo produktu batzuk desagertu egingo dira, produktu berrietara dibertsifikatu beharra etorriko da, produkzio sistemak egokitzeko urratsak egin beharko dira... Finean, oso erronka inportantea, bere neurrian baloratzea komeni dena.

Nola txertatzen da Fagorren enpresa-eredu sozial eta iraunkorra bere estrategian?

Fagorren iraunkortasun estrategiak bost ardatz nagusi ditu. Ezagutzen ditugu erronkak eta horiek behar moduan heltzeko lanean dihardugu jada. Horretarako, talde lehiakor eta berritzaile izateko helburua, gobernantza eredu demokratikoa indartzea, pertsonen zaintza, planetarekiko konpromisoa eta garapen komunitarioa ditu Fagor Taldeak erdigunean. Ikusten duzunez, proiektu sozioenpresarial osoa jasotzen du iraunkortasun estrategiak. Finean, lurraldearen erronketan inplikatzeko borondate garbia dugu. Hortik, bailararen eraldatzean dugun parte hartze aktiboa, esaterako, D2030 moduko anbizio handiko ekimen eredu garriak bultzatzean.

"DEBAGOIENDARROK JAKIN BEHAR DUGU ZER EGIN GARAPEN EREDU OREKATU BATERA JOATEKO"

"AUTOGINTZAREN SEKTOREAN IRAULTZA BATEN ATARIAN GAUDE; ERALDAKETA SAKONA IZANGO DA"

Basotxoko bazkideei**PEDRO ETXEBARRIA**

ARETXABALETA

Lerro hauek Basotxoko bazkideei zuzenduta daude. Basotxok Zuzendaritza Batzorde berria du, Batzar Orokorraren onespelik gabe berritua, bazkideen onespelik gabe, COVIDak sortutako egoeraren eta bizi behar izan ditugun murrizketen ondorioz; Zuzendaritza Batzordea saiatzen ari da normaltasunera itzultzen, egoerak ahalbidetzen duen heinean, baina bazkideen berotasuna behar du. Zuzendaritza Batzordea Batzarrak berretsi edo baztertu behar du. 2020an ezinezkoa izan zen batzarra egitea, baina Zuzendaritza Batzordea berritu egin zen. Ezin da, ez da bideragarria, elkarre bat zuzentzea bazkideak kontuan hartu gabe eta haiek informatu gabe.

Zuzendaritza Batzordeak harremanak izan ditu eta indarrean dauden arauak bete ditu Ogasunarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Udalarekin. Zenbait jarduerari eustea lortu du. Orain, bazkideekin harreman zuzena izan eta gizartearen etorkizuna nola nahi dugun planteatu behar du.

Gainera, lekuz aldatzeko beharra dugu. Udalaren eta Osakidetzaren planek lekuz mugitzea eskatzen dute, eta horrek zailtasun handiak

ekarriko ditu gure jardueren funtzionamendurako. Zuzendaritza Batzordeak horri heldu behar dio; aldaketari eutsi behar dio, eta fruituak atera. Bazkideekin.

Jakina, oso erraza da txangoetarako edo beste jarduera batzuetarako izena ematea, baina inplikazio

pixka bat eskatzen dizut. Batzar Orokorrera edo Batzarrerera joateko eskatzen dizut.

Batzar Orokorra edo urteko Batzarra ekitaldirik garrantzitsuena da edozein sozietatetan: Zuzendaritza Batzordeak bazkideei urtean zehar egindako lanaren eta bazkideen erantzunaren berri ematen

die. Bazkide guztiek parte hartzeko eskubidea dute. Eta ohikoa da gutxi joatea. Ni joango naiz, eta Zuzendaritza Batzordean sartu diren pertsonak hautatuak izan daitezzen berrestea proposatuko dut. Baina baieztatu ala ez, garrantzitsuena Batzarrerera joatea da: ekainaren 22an. Basotxo suspertzea gure

esku dago. Sozializazioa, harremanak, hitzaldiak, txangoak, tailerrak, jaiak, ospakizunak eta txapelketak egongo dira, bazkideok eskatzen baditugu.

Bihur dezagun Batzar hau ospakizun; ospa dezagun Basotxoren berpiztea, guztion ahaleginarekin.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBIÑE UBEDA**



Juan Arzamendi Musika Etxea izango dena. Hainbat hilabetez geldu egon ostean, irailean berrekingo diete lanei. E.A.

Irailean berrekingo diete Juan Arzamendiko lanei

Sei enpresa aurkeztu dira falta den zatia egiteko lanen lehiaketa publikora, eta lan horiek Construcciones Moyuari esleitu dizkio Udalak, 3.991.404,78 eurotan; ondo bidean, irailean hasiko dituzte eta sei hilabeteko epea edukiko dute obra amaitzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Sei hilabeteko epea "nahiko gutxi" iruditzen zaio Maria Ubarreretxena alkateari. "Ez dakit amaituko duten epe horretan. Dena den, osoko bilkuran onartu ostean, enpresarekin kontratua sinatuko dugu eta asmoa da irailean hasiate lanak. Aurreikuspenaren arabera, 2022-2023 ikasturtea eraikin berrituan egiteko moduan egongo dira eragile eta taldeak", adierazi du.

Teknikarien esanetan, obraren zati potoloena eginda dago. Hau da, oinarriak, zimendua, indusketa, fatxadaren egonkortzea eta geotermiaren instalazioa eginda daude; eta isolatzeak, ia bukatuta. Barruko banaketari dagokionez, sotokoa, beheko solairukoa eta lehen solairukoan zerbait falta da oraindik eta hirugarren solairuko banaketa egiteko dago.

Bestalde, leihoak, azken solairuko gortina-hesia, instalazio elektrikoa, klimatizazioa, me-

gafonia, suteen aurkako sistema, iturgintza eta arotzeria guztia ere egiteko daude oraindik.

6.520.836 euroko kostua

Proiektu hau lizitazioa atera zenean, 7.480.518,91 euroko prezioa zeukan. Lurgoi enpresari esleitu zitzaion, 5.849.544,78 eurotan. Hala ere, enpresa horrek egindako zatia 2.529.431,9 euro-

koa izan zen. Orain, Construcciones Moyuari esleitutakoari Lurgoi enpresari egindako zatia gehituta, 6.520.836,68 eurokoa da obraren kostua.

Gainera, Gobernuak azaldu duenez, 239.776,57 euroko abalarekin ordaindu ahal izan ditu obrak sortutako gastu gehigarri guztiak -Goiena.eus-en daude ikusgai kopuru zehatzak-

Herribusaren zerbitzu publiko berria onartu du udalbatzak

Udalak Avanza Urbanos De Euskadi enpresari esleitu dio zerbitzua, linea berria bere baitan hartzen duena

E.A. ARRASATE

693.298 eurogatik esleitu dio Udalak zerbitzua Avanza Urbanos De Euskadi enpresari. "Berrikuntza nagusia da herribusaren hirugarren linea ezarriko dugula. Bere garaian azaldu genuen moduan, goiko auzoetatik ez da pasako linea hori, ibilbide laua egingo du: Musakola, Zalduspe, Garibai, San Andres, Arimazubi, Otalora, Elma, Zalduspe eta Musakola", azaldu du Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotzi Victoriano Fuentesek. TAO mar-

txan jartzen denean, Arruena parkean disuasio-aparkaleku bat jarriko dute eta herritarrak hortik erdigunera eramatea izango da hirugarren linearen helburu nagusietako bat.

41.266,11 euroko laguntza

Bestalde, Espainiako Gobernuak 41.266,11 euro eman ditu herribusa laguntzeko eta Fuentesek eskerrak eman nahi izan dizkio babesagatik. "Zorionez, herribusa zerbitzuaren udal kontua oreka dadin eman du dirulaguntza Garraio Ministerioak".

Astlehenean egingo dute banaketa IMMEk eta Ahal Duguk

Pobrezia menstrualari aurre egiteko produktuak batu dituzte; IMMEren lokalean 10:30ean banatuko dituzte

E.A. ARRASATE

Maiatzaren 28an, Emakumeen Osasunaren eta Hilekoaren Higienaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta, horren harira, Podemos Ahal Duguk Gipuzkoa mailako kanpaina abiarazi zuen maiatzean, "bazterketa arriskuan daudenentzat higiene menstrualeko produktuak eta haurrentzako pixoihalak biltzeko".

Arrasaten, Ahal Duguko kideek IMME Emakume Musulmanen Elkartekoekin garatu dute kanpaina eta denetarik jaso dute herritarrendandik, hala nola

konpresak, tanpoiak, pixoihalak, toalla hezeak eta hileko-kopak.

Behin batuta, banatzeko garaia da orain, eta ekainaren 21ean egingo dute hori, ospitale albo-ko IMMEren egoitzan, 10:30ean. Produktuak jaso nahi dituztenek Arrasaten erroldatuta daudela eta unitate familiarrean zenbat kide diren frogatu beharko dute.

Bestalde, oinarriko produktuak izanik, %21eko zerga-karga murriztea eskatzeko ere baliatu dute kanpaina, "pobrezia egoeran daudenen eskuragarriago izan ditzaten".

**Otalora Lizentziaduna kalea 4,
solairuartera**

Tel.: 943 71 25 49 • www.asegim.com
asegi@asegim.com

Su ere arrasatearrekin!

B

Iturriotz 4
943 79 12 95
Arrasate

Bu ere arrasatearrekin!

EH Bildu: "Gobernuak ez du egingo kiroldegi berria"

Oposizioan dagoen koalizioak dio Udal Gobernuak ez duela gauzatuko "hauteskunde giroan zin egindako" Musakolako kiroldegi berria: "Hasiera-hasieratik esan genuen guk, ekonomikoki jasangaitza izateaz gain, ez zela herriak eskatzen zuen proiektua"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azken udal hauteskundeetan kiroldegi berria EAJren "proiektu izarra" izan zela dio EH Bilduk. "Kiroldegi berria promozionatzeko erabilitako diru-poltsa milaka eurokoa izan zen, kirol zerbitzuetan zuzenean inbertitu baino egingarria izango ez zen kiroldegi erraldoi bati zuzendua izan zena, proiektuaren diseinu, maketazio, publizitate eta sozializazioari lotutako kostuak ordaintzeko".

Koalizioak "penaz" bizi izan du hilabete hauetan kirol instalazio ezberdinetan "erabiltzaileek jasan behar izan dituzten ezbeharrak eta horiek konpontzeko Udalak erakutsi duen moteltasuna". Horren "adibide esanguratsuen" igerilekuko kristalena izan daitekeela diote, baina ez dela bakarra. "Boulde-raren egoera, bizikletak garbitzeko gunea, eta abar".

Denborak aurrera egin ahala Gobernuak bere "proiektu izarra" aurrera eramateko ezintasuna agerian geratu dela azpimarratu du EH Bilduk, "eta enegarren prozesua jarri du martxan, aurreko guztiak ezerezean utziz".

Prozesu berria, "partxe bat"

Kirol instalazioen mapa osatzeko parte-hartze prozesu gisa



Musakolako kiroldegiaren sarrera. E.A.

"saldutako" asmoa, EH Bilduren esanetan, kiroldegi berririk egin ez eta kirolaren inguruan egindako "kudeaketa negargarria" ezkutatzeko asmoarekin dator.

Duela hiruzpalau hilabete, kirolaren gaia lantzen hasi ziren Udal Gobernuak -EAJ eta PSE-EE-, EH Bildu eta Elkarrekin Arrasate, baina, koalizio aber-tzalearen oharrak dioenez, "be-rehala" konturatu ziren bilera horien atzean ez zegoela kirolaren inguruko lanketa egiteko asmo zintzorik gobernuakideen partetik. "Urte hauetan Musa-

kolako igerilekuan zein Iturri-peko instalazioetan, bidegorrien atzerapenetan eta beste hainbat kirolgunetan izandako kudeaketa tamalgarriari partxe bat jarri nahi izan diote *parte hartze foro* hau sortuz".

Kirol Herria proiektua lantzen

EH Bilduk Kirol Herria proiektua landu zuen duela bi urte eta erdi. Egun, proiektuan sakontzen dihardu herriko kirolzale, kirolean aditu eta kirolariekin, eta, azaldu dutenez, aurrerago eman-go dute horren berri.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

Iñazio

Wikipedixak Arrasateren gainien dakarrena ikusteko jakin-miñe ixotu jatan aurreko baten. Webgunien sartu, eta ezkerreko aldiaren, Santa Barbaratik ataratako argazkixe ikusi leike. Geografia, historia eta euskara moduko edukixen artien, badau bat arretie deketan dauena: Arrasatear ospetsuen atala. Idazliak, filantropuak, musikarixak, kooperatibetako sortzailliak, ETAkidiak, kazetarixak, kirolarixak... die zerrenda luze baten agerketan dien mondrauetarrak.

Wikipedixaren arabera, Arrasateko alkate izan dien bederatzitik lauk bakarrik arrasatear ospetsu titulue daukie. 2011-15 urtietan alkate izan zan Iñazio Azkarraga-Urizar, adibidez, ez dau famauen zerrendan. Bere inguruan ibilli dienen ahotik jakin izen dot Iñazio ez dala famauzalie; hala eta be, harek egindako lana nabarmendu gura dot, eta, batez be, ezberdiñekin berba egitteko eta akordixuak lortzeko euken gaittasuna azpimarratu.

Iñaziok eta haren taldiak Arrasaten herrigintza egitteko beste eredu bat badauela erakutsi euskuen. Eskerrik asko, Iñazio!

'Showcooking' saioa egingo dute bihar baserritarren azokan

Elkartasun Eguna antolatu dute gobernu kanpoko hainbat eragilek, bildutako dirua Indiara bideratzeko

E.A. ARRASATE

Bihar, zapatua, baserritarren azoka egingo dute Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Sailaren eskutik eta Debagoieneko Mankomunitatea eta Debagaraia landa garapen elkar-tearekin elkarlanean, Arteaga jatetxeko Igor Ezpeleta sukaldariak zuzenean prestatuko ditu jakiak. Edukiera mugatua izango den arren, Instagram bidez jarraitu ahal izango da: *@creandococina*. Era berean, ogia, gazta, gozoak, kontserbak, ezitia eta

bestelako elikagaiak ere salgai egongo dira. Elkartasun Eguna-ri dagokionez, aurtengo tonbolan 200 bat sari izango dituzte, "Ibai-arte dendetako ekarpenei esker, eta, gainera, Ibai-arte saria ere zozketatuko da". Horrez gain, 300 euroko saria egongo da erosketatxarteletan, elkarteko edozein saltokitan produktuak erosteko.

Lortutako dirua Indiako Ankur proiektura bideratuko du aurten ere Harremanek. Bestalde, bidezko merkataritzako produktuak ezagutarazteaz gain, txokolatjana egingo dute azokan.

Jose Ramon Otamendi

harategia

Gu ere arrasatearrekin!

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gu ere arrasatearrekin!

Iturriotz 21 · Tel.: 666 387 506 · eyaelec@telefonica.net
ARRASATE



Eneritz Urrutia eta Ixaso Plaza, Zaldibarko pilotaleku ondoan, Kultura parean, bizikleta batekin. HASIER LARREA

Ziklismora egokitzen ari dira, nor bere modura

Txirindulari gisa lehen denboraldia dute aurtengoa Eneritz Urrutia eta Ixaso Plaza arrasatearrek, eta Bergarako Bolintxo Okindegia-Lana taldean ari dira, lehena elite mailan eta bigarrena kadeteetan; taldeko zuzendaritzan "babes handia" aurkitu dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Triatloi mundutik txirindularitarako jauzia egin du aurtan Eneritz Urrutiak (Arrasate, 1990), nahiz eta triatloian ere jarraitzen duen. Aitortu duenez, espero baino zailagoa egiten ari zaio lasterketetan egoten den tentsiora egokitzea. "Probatu arte ez da jakiten nola bizitzen den barrutik. Ez nuke sekula esan-

go ziklismoa horren gogorra denik. Sakrifizio handia eta entrenamendu asko egitea eskatzen du, baina, horrez gain, lehiatzeko orduan, faktore asko ez daude norberaren esku. Horren harira, harritu egin nau eta asko kostatzen ari zait egokitzea. Beldur handia edukitzen dut lasterketetan". Kontuan hartu behar da azpiko kategorietan ez

dela lehiatu, zuzenean hasi dela elite mailan. "Gainontzekoek askoz ere eskarmentu gehiago dute. Lasterketetako lehen hamar kilometroetan gaizki pasatzen dut, gauza asko pasatzen zaizkit burutik eta tentsio handian egoten naiz. Izan ere, tropelean joatea bera asko da niretzat, eta ikusten dut inguruko guztiak lasai doazela, baina ni, berriz,

ez, esperientzia falta zait eta", azpimarratu du.

Gipuzkoakoan, hirugarren

Gipuzkoako erlojupeko txapelketan hirugarren postua eskratu du asteon Urrutiak. "Lehenengo aldiz hartu dut parte, nahiz eta triatloian asko lantzen den modalitatea den. Esperientzia aberasgarria izan da", dio.

Aurrez, hiruzpalau aldiz joan zen Aizarnazabalgo ibilbidea egitera, eta entrenamenduetako denborak hobetzeko helburuarekin irten zen erlojupekoan. "Ez nuen askorik hobetu; hobeto egitea espero nuen, baina konforme nago. Izan ere, duela bi aste erori egin nintzen lasterketa batean eta saiheutsak erdi-purdi dauzkat", gaineratu du.

Espero baino "askoz hobeto"

Aurtengoa lehen denboraldia da Ixaso Plazarentzat ere (Arrasate, 2005). Iaz hastekoa zen, baina, pandemiaren ondorioz, ez zuen entrenatzeko aukerarik ere izan, eta aurtan ekin dio ziklista ibilbideari. "Espero nuen baino askoz hobeto doa denboraldia. Hasieran, esan nuen bizpahiru lasterketa egingo nituela, baina geroz eta gusturago sentitzen joan naiz", dio.

Izan ere, triatloirako prestatzeko asmoarekin hasi da ziklismoan, bizikletan trebatzeko. "Ikuspuntu hori nuenez, lasterketa gutxi batzuk egitea zen asmoa, baina ikusi nuen maila ona ematen ari nintzela. Beraz, kuriositatea piztu zitzaidan, ikusteko ea zer egiteko gai nintzen, noraino hel nintekeen". Atletismoan ere badabil, baina udaberriko denboraldia alde batera utzi du. "Nahiago izan dut ziklismoan zentratu, oso gustura ari naizelako".

Gipuzkoakoan, txapeldun

Bergaran jokaturiko Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi egin zuen Plazak. "Arlo psikologikoak garrantzi handia du erlojupeko batean. Irabaztera irten nintzen, eta, aurkariak oso maila onekoak izan arren, lortu nuen. Esango nuke ez zela indarragatik izan, baizik eta neurri buruari asko exijitu niolako. Oso pozgarria izan zen podiumera igo eta txapela jantzi ahal izatea", nabarmendu du.

Batek, atsedean; besteak, segitu

Plazak atsedean hartuko du bizpahiru astez, gero uztaileko lasterketak hasteko. Badu bat bereziki begiz jota: Markinako kronoigoera. "Badaukat gogoa ikusteko ea nola moldatzen naizen. Ez dut sekula kronoigoerarik egin, eta deseatzten nago".

Urrutiak lanean jarraituko du, eta ekainaren 26an Pontevedran du hurrengo lasterketa, Espainiako Koparen baitakoa.

Iker Sanchez eskerrereziak

Urrutiak dio Iker Sanchez zuzendaria asko laguntzen ari zaiela. "Errealistak diren helburuak jartzen dizkigu eta beti gure gainean dago. Asko zor diogu". Plaza bat dator horrekin. "Aholkuak ematen dizkigun pertsona bat ondoan izateak asko laguntzen digu, ez soilik kirol maila onean aritzeko, baita pertsonalki hazteko ere. Hartu dudana erabaki onenetakoa da talde honetara etorri izana".

PLAZAK IRABAZI EGIN ZUEN GIPUZKOAKO ERLOJUPEKOA ETA URRUTIA HIRUGARREN SAILKATU ZEN

Inskripzioa irekita emakumeen defentsa pertsonala lantzeko

Arrasate Borroka Arte Eskolak eskainiko ditu saioak, irailaren 6an hasita; hilabeteko prezioa 25 euro da

E.A. ARRASATE

Emakumeen defentsa pertsonala lantzeko ikastaroen 2021/22 ikasturtea irailaren 6an hasiko dute eta izena eman daiteke dagoeneko. La Merced eraikinean egingo dituzte saioak, astelehe-

nero, 17:30etik 19:00etara, ekainaren bukaerara arte.

Bi gidari izango dituzte ikastaroen: Julio Gallego, judoko irakaslea; eta Jose Manuel Matas, Aikido taldeko kidea. "Bion artean martxan jarri dugu es-

kola. Ez da klub bat, eskola bat da, arte martzialak egiten ditugun hainbat klubetan artean sorturikoa. Iniziatiba aitzindaria da alde horretatik", dio Matasek.

Duela hiruzpalau urte hasi ziren hileroko ikastaroak egiten, doakoak, eta ordutik ikastaro horien lanketan aritu izan dira, eta baita askotariko egoerak aztertzen ere. "Ertzaintzarekin harremanetan ere egon gara, gerta daitezkeen kasuen adibideak ikusi eta barneratzeko. Esaterako, lapurtzen saiatzen

badira, poltsatik tira egiten badigute edo beste edozer gauza. Ertzain batzuk ekarri genituen saioetara, gomendio batzuk emateko, eta parte-hartzaileek asko eskertu ziguten hori".

Egoera bakoitzerako teknikak garatuta dituzte. "Lehenengo, arlo teorikoa lantzen dugu; eta gero, praktikatzen hasten gara".

Edozeinek eman dezake izena saioetan eta harremanetarako bi telefono zenbaki jarri dituzte eskuragarri: 669 66 33 66 (Jose Manuel) eta 600 37 18 96 (Julio).

Aritz Tornay xakelaria Espainiako Txapelketan ari da

Atzo, eguena, hasi eta domekara bitartean, Espainiako selekzio autonomikoen 14 urtez azpikoen xake txapelketa jokatzeko ari dira Gijonen (Asturias). Euskal selekzioa txapelketan parte hartzen ari da eta horren parte da Aritz Tornay arrasatearra. Euskadiko hiru neska eta mutil onenak ari dira euskal selekzioarekin.

Prozesua emaitzaren gainera jartzen denean

Kulturateko klaustroan ikusgai dagoen 'Artean III, hamaika izara' erakusketa asteartean amaituko den arren, sormen prozesuari buruzko solasaldia egingo dute gaur Kulturateko Loramendi gelan. Artean adituak diren hiru kide izango dira hizlariak

Hasier Larrea ARRASATE

Ez da ohiko arte erakusketa izan egunotan ikusleak Kulturaten aurkitutakoa, hori ez baita izan POOK sormen laborategiko artisten asmoa. Kolektiboko kide Joana Manzisidorrek azaldu du otsailetik dihardutela Loramendi gelan "tokiko artista bakoitzaren proiektuak eta lan egiteko moduak nolakoak diren jakiteko" tailerrak egiten. Hala, denbora tarte horretan garatutakoa kamera bidez erregistratu, eta apiril aldean pilatutako material hori "eragiteko" nahia piztu zitzaion.

Gunearen arkitekturak eta ispiluek "jolaserako aukera" eskaintzen zirela konturatu ziren orduan, eta, bereziki, bideo-instalazioetan eta oihaletan oinarritutako ekimen komuna osatzen joan ziren; *Artean III, hamaika izara* erakusketa da prozesu horren emaitza.

Baina *emaitza* hitza ez da, Jone Alaitz Uriarte arte programatzailearen esanetan, artistek egindakoa hobeto definitzen duen hitza, prozesua bera baizik; hobeto esanda, "sorkuntza artistikoaren prozesu ikusezina". Hain justu, gai horri helduko dio moderatzaile lanetan arituko den Uriartek gaurko solasaldian, 18:00etan; Manu Muniategian-



Erakusketa inaugurazioan, ikusleak bideo-instalazio bati begira. GOIENA

dikoetxea eta Amaia Urzain arte irakasleak izango ditu bidelagun. Erakusketa bera izango da saioaren abiapuntua, eta balioa eman go diote, besteak beste, egitasmoan parte hartu duten artistek elkarrengandik ikasteko izan duten aukerari.

Espazio propioa helburu

Artean III, hamaika izara erakusketa aterpean batu diren aldarrietako bat da "egunerokotasunean aritzeko espazio propioa eskuratzea". Horren harira, Uriartek aipatu du ar-

tisten mugimenduak "batez ere hirietan" atomizatzen direla, eta arrazoi horregatik "zaindu" behar direla bereziki herrietan garatzen diren mugimendu artistikoak: "Arrasaten topagune indartsu bat osatzen ari gara, eta garrantzitsua iruditzen zaigu hori bul-tzatzeke medioak erdiestea".

Momentuz, "harrera ona" izan du Kulturateko instalazioak: "Nahiz eta ohartu garen ez gaudela ohituta prozesu kolektiboan oinarritutako lanak ikustera". Gerora ere izango da antzeko dinamiken berri.

'Zeruko argiak' argazki galeria, Larrinetxe jatean gaurtik

Iñaki Bruña argazkilariak zeruko irudietan oinarritutako hamabost koadro inguru jarri ditu abuztura arte ikusgai

H.L. ARRASATE

"Azken bi urteetan pilatzen joandako argazkien aukeraketa bat eta orain arte gordeta" izan dituen hiruzpalau irudi eskegi ditu Iñaki Bruña argazkilariak Udala auzoko Larrinetxe jateko paretetan, eta gaur arratsaldean aurkeztuko ditu jendaurrean, baita Larrinetxen dituen lagunen aurrean ere.

Modu poetikoan ulertzen du berak erakusketaren funtsa: "Aurkezten ditudan argazkiak ez dira hausnarketa sakonetik irteten, eta ez diot teknikari ere

behar baino gehiagoko garrantzirik eman izan nahi; asmoa gorantz begiratzeko ohitura goraiatzea da, gustuko dudalako hori egin, momentuko inpresioa harrapatu eta giroan zerbait dagoela sentitzea".

Imajinarioa askatzeko erronka botako die, hautatu dituen irudien bidez, Larrinetxera gerturatu direnei, zeruko fenomeno naturalen arteko jokoa baliatuz "ekaitz usaina, lila koloreko lorearen gaineko tximeleta zuria edo zaldiz doan zeruko ehiztaria" iradokitzeke.

Antton Telleria igoko da Amaia oholtzara bihar arratsaldean

Telebistako aurkezle eta esatariak *Nekatutak* izeneko bakkarrizketa-saioa aurkeztuko du arrasatearren aurrean hilaren 19an, arratsaldeko zazpitan. "Egunerokotasunean oharkabean gertatzen diren pasarte umoretsuei" buruz ariko da tolosarra, dagoeneko Euskal Herriko zenbait txokotara, tartean Bergarara, eraman duen monologoan. Pixkanaka bakkarrizketetan "eskarmentua" hartzen dabilela dio Telleriak: "Unean uneko publikoaren aldarrea ulertzen, eta grazia gehien eta gutxien egiten duten txisteak identifikatzen". Oraindik sarrerarik lortu ez duena garaiz dabil *arrasate.eus* webgunean eskuratzeko.

Motorrak berotuko ditu Arrasate Blues jaialdiak Kajoin

Blues Deluxe taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute bihar, arratsaldeko zazpitan, herriko plazako Kajoi tabernara gerturatzen direnek. Ibai-artek antolatuta eta Kajoiaren 34. urteurrenaren harira gonbidatu dute Soriako musika taldea. "2019ko lehen Arrasate Bluesean gurekin izan genituen eta gure lagun minak dira", aipatu dute merkataritza elkarteak. 11 urteko ibilbidea egin du Blues Deluxek, eta argitaratu berri duten diskoa aurkeztera etorriko dira Arrasatera. Gainera, jaialdiaren etiketa daraman garagardoa eta kamiseta aurkeztuko dituzte hitzordu berean.

ARRASATE BIDAIAK

ZUEN ZERBITZURA JARRAITZEN DUGU.

Gu ere arrasatearrekin!

DEITU KONPROMISO BARIK

943 71 25 30

ZUBI-LAN

KONPONKETAK ETA SALMENTAK

GU ERE ARRASATEARREKIN!

MOTORRAK
Salmenta
Konponketa

TRESNAK
Nekazaritza
Lorezaintza
Basogintza

Husqvarna

Markulete poligonoa
Ekutio kalea 4, 17. pabillioa, Arrasate
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33
jmabizeta@gmail.com

Gu ere arrasatearrekin!

Adara

LE-ARRASATE

Tel.: 943 08 10 68
Biteri etorbidea 15 beheko
adara.leapaindegia@gmail.com
Arrasate

Ehiza-txakurren aisialdi gunea egin nahi dute


Gantzaga eta Etxaguen gaineko mendi inguruetan egin nahi dute, basurdeek eta orkatzek sor ditzaketen arazoak arintzeko. Inguru horietako lur-jaberaren batek arazorik balu ekainaren 30a baino lehen jakinarazi beharko luke udaletxean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Oilgor elkarteak kudeatzen du Aramaion ehiza-barrutia. Eta, hain zuzen, ehiza garaitik kanpo ere txakurren aisialdirako gunea arautu nahi dute orain. Ehiza debekatuta dagoen garaian basurdeek eta orkatzek sortzen dituzten arazoak saihestea izango da helburu nagusia.

"Txakurrek ehiza-esparruan ibiltzeko baimena dute, baina ehiza denboralditik kanpo aisialdia ez dago araututa", azaldu du Oilgor elkarteko presidente Koldo Jauregik, eta gaineratu: "Iaz, Diputazioak aukera hori legezatu egin zuen, eta orain egin behar duguna da arautu".

Gantzaga eta Etxaguen

Oilgor elkartearen asmoa da Gantzaga eta Etxaguen gaineko mendi mugetan egitea gune hori. "Bideetatik urrun izango da, eta erreserba guneetan ez da egingo", dio Jauregik. Gunea



Aisialdi guneak hartu duen eremua, urdinez. ARAMAIOKO UDALA

nola arautu erabakitzeke Foru Aldundiko basozainaren argibideak jarraituko dituztela dio.

Jauregik azaldu du elkarteko kideek irtenbide moduan ikusi dutela txakurrak aske ibiltzeko aukera hori. Izan ere, elkartean,

bazkideak eta gonbidatuak kontuan hartuta, 190 bat kide dira.

Arazoak arintzea da nahia

Basurdeek eta orkatzek sortzen dituzten arazoak gutxitu nahi dituzte arautegi berriarekin.

Aramaixo Herri Eskola proposamena izan da aukeratua

Izen proposamen bozkatuena izan da, 69 botorekin. Erabakia EAEko aldizkari ofizialean argiratu behar da

A.E.G. ARAMAIO

Aramaixoko Herri Eskola izen proposamenak jaso ditu boto gehien eskolaren izena aldatzeko prozesuan. Joan den asteko egunean egin zuten bozketak, herritar guztiei irekia. Sei izen proposamen zeuden aukeran, eta botatuena Aramaixo Herri Eskola izan zen, 69 botorekin; Aramaixo Eskolak 59 boto izan zituen; Aramaio Herri Eskolak, 36 boto; Aramaio Eskolak 22 boto jaso zituen; Orixolpek, 26 boto; eta Tellamendi Eskolak, 17 boto.



Herritar bat botoa ematen. I.O.

Bozketaren emaitzak Ikuskarritzan eta Hezkuntza Sailean jakinarazi beharko dituzte orain. Behin Hezkuntza Sailak aldatuta onartu eta EAEko aldizkari ofizialean argitaratzen denean aldatuko zaio eskolari ofizialki izena. Ordura arte ezin izango da izen berria erabili.

Orain dela bi urte, eskolako guraso elkarteak eskolaren izena aldatzeko proposamena egin zuen; eta, aurtengo ikasturtean, Elkarbizitza batzordetik ikasleen ordezkariari proposamenaren berri eman zaie. Ikasleek gaiaren inguruan hausnartu ondoren hasi zuten prozesua.

Elkarbizitza batzordeko kideek "eskerrak" eman nahi dizkiete prozesu hau "posible izan dadin" lagundu eta parte hartu duten ikasle, langile, guraso eta herritar guztiei.

"Proba moduan planteatu da gunearena"

SANTI BALANTZATEGI
MENDIETAKO ZINEGOTZIA

Aramaio Udako mendietako zinegotzia da Santi Balantzegi. **Zergatik erabaki da gune hori arautzea?**

Bi gauza elkartu dira: batetik, ehiza denboralditik kanpo ehiza txakurrek lotuta joan behar dutela; eta, bestetik, basurdeak zelaietara jaisten direla. Neurri berriarekin ikusi nahi dugu ea basurdeak uxatzen ditugun, sumatzen dutenean txakurrak dabilzala.



GOIENA

Arazo handiak izaten dira mendietan basurdeekin?

Aurten, horrenbeste ez; baina iaz arazo potoloa izan genuen. Batez ere, parke naturaletik gertu dauden auzoetan izaten dituzte arazoak. Kalte handiak eragiten dituzte basurdeek. Iaz, belar haziak eman genizkien Udaletik; aurten, ez da halakorik egon. Neurri honekin proba egin nahi dugu. Herritarren kezak elkarteak kudeatuko ditu, ez Udalak.

Ehiza debekatuta dagoen garaian, tarteka bakarka txakurrarekin edo taldean txakurrarekin ibiltzeko aukera izango litzateke.

Informazio gehiago nahi duenak Oilgor elkarteko kideekin harremanetan jarri beharko du. Horrez gain, gune horretan lur-jaberaren batek arazoren bat baldin badu ekintza bere lurretan egiteko, udaletxean edo elkartean bertan adierazi beharko du egoera ekainaren 30a baino lehen, eguaztena. Oilgor elkarteak kudeatuko ditu auzotarren kezak.

Ehiza denboraldia

Aramaion ehiza denboraldia abuztu erditik irailera eta urriaren 12tik urtarrilera bitartean izaten da. Hala, arautegi berriarekin, ehiza denboraldi horretatik kanpoko egutegia arautzea da asmoa.

LUR-JABEREN BATEK ARAZOREN BAT BADU, EKAINAREN 30A BAINO LEHEN ABISATU BEHAR DU

Gazte udalekuetan zer egin erabakiko dute domekan

Musika eta kirol udalekuak egingo dituzte; izena emateko azkeneko eguna gaur da, egubakoitza

A.E.G. ARAMAIO

Uztailean egingo diren gazte udalekuetan zer egin erabakitzeke bilera irekia egingo dute domekan, ekainaren 20an, udaletxean, 18:00etan. Bilera begiraleekin eta izena eman dutenekin izango da.

Aurre-lanketa bat egin dute dagoeneko, baina zer egingo duten, nora irten diren... Hori guztia erabakitzeke dago. Elkarrean artean eta guztion gustuak kontuan hartuta adostu nahi dute egitaraua. Ekintza eta kirol udalekuak uztailearen 19tik uz-

tailaren 25era bitartean izango dira. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo dira eta ondo pasatzea izango da helburu nagusia.

Aramaio Udalak gazteei zuzendutako beste eskaintza bat ere badu uztaileko. Uztailearen 8tik 15era, 12-18 urte bitartekoei *Musika sortzen udalekuak* eskainiko zaie. Ideia musikala eta sormena lantzea izango da asmoa, eta abesti bat sortu eta grabatuko dute. Aipatutako bi ekintzetan izena emateko azkeneko eguna gaur da, egubakoitza.

"Herriaren parte diren pasarteak daude lanean"

JULEN ARRIOLABENGOA IDAZLEA

'Ez jat garbatu' liburua argitaratu berri du Julen Arriolabengoak; Julian Unzueta, etxeko osabaren, memoriak jasotzen ditu. Unzueta 2019ko maiatzean hil zen

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Ez jat garbatu liburuan Julian Unzueta osabaren memoriak jasotzen ditu Julen Arriolabengoak Unzueta aramaiorak. Julian Unzueta Aramaioko alkate izan zen 70eko hamarkadan, eta herriko seme kuttun izendatu zuten 2017an. 124 orritan, base-ri lanak, politika, 36ko gerra, errepresioa... Hainbat pasarte historiko jasotzen ditu liburuan Arriolabengoak.

Zer jaso duzu 124 orriko liburuan eta zergatik erabaki duzu idaztea?

Hitzaurrean esaten dudan moduan, gure memoria aberasteko, besteak beste. Azken finean, pertsonen lekukotasunak ez baldin badira jasotzen, galdu egiten dira, desitxuratu. Berak kontatzen zuena jasotzea izan da helburua, eta baita liburu forma ematea ere. Ez da erraza izan pertsona baten kontakizunei modu koherentean forma ematea. Pisu nabarmena zuen Julianek familian, eta baita Aramaion ere. Zeresana izan du herrian eta uste dut merezi duela horren testigantza uztea. Lan oso xumea da, argitalpen xumea; helburua ez zen argitalpena merkatuan jartzea.

Idazle moduan ez da argitaratzen duzun lehen liburua; bai, ordea, bereziena?

Pertsonalena bai. Osabaren irudiaren gainekoa da; osaba hil zen, eta, alde horretatik, pertsonalena da. Liburuko protagonista nagusia bera da, baina ni naiz entzulea, edo jasotzen duena. Nabarmendu behar da genero aldetik oso ezberdina dela orain arte idatzi izan duanarekin. Fikzioarekin hasi nintzen orain dela urte mordoak, eta, gerora, saiakerarekin ibili naiz.

Liburuan Julian Unzueta hainbat pasarte jasotzen dira, memoria kolektiboaren parte direnak?

Bai, hori da. Hainbat pasarte daude memoria kolektiboaren



Julen Arriolabengoak Unzueta. GOIENA

"PERTSONEN LEKUKOTASUNAK EZ BALDIN BADIRA JASOTZEN, GALDU EGITEN DIRA"

parte direnak. Herriaren parte, azken finean. Politikari moduan bizitza oso xumea izan zuen, baina Euskal Herriko beste politikari askok bezala. Garai oso bereziak bizi izan zituzten, eta merezi du hori jasotzea, ikuspuntu horretatik. Herri mailako istorio horiek, bizipen horiek jasotzea merezi du. Kontuan hartu behar da memoria oso gauza pertsonala dela; horregatik, bere istorio horiek pertsonalak dira.

Ez jat garbatu da titulua. Julianek askotan erabiltzen zuen esamoldea da hori?

Askotan baino gehiago, egoerak eskatzen zuenean erabiltzen zuen esamoldea da *ez jat garbatu*. Izan ere, *damutu* hitzaren sinonimoa da eta hizkuntza aldetik Aramaion eta inguruan erabiltzen den hitza dela esan daiteke. Hemen kokatuko nuke

esamoldea. Izan ere, Julianek beti izan zuen konpromisoa herriarekin, euskararekin, eta herriko euskararekin. Bestalde, gaineratuko nuke hizkuntza aldetik baduela ezberdintasuna *damutu* hitzarekin. *Garbatu* hitzaren adiera zibilagoa dela esango nuke; nik, behintzat, hala ikusten dut. *Damutu* hitzak badu bestelako kutsu erlijiosoago bat. Erabakiak hartu behar izan zituenean bati baino gehiagori ez zitzaizkion gustatuko; egoera horietan erabiltzen zuen Julianek esamolde hori.

Eguno egoeran ez da liburuaren aurkezpenik egingo, baina salgai da dagoeneko. Non eskura daiteke?

Liburuaren argitalpena dela eta, ez neukan ez aurkezpenik ezta zabalkunderik egiteko asmorik ere. Sare sozialetan eta inguruko artean zabaldu nuen liburua idatzi berri nuela; eta, modu horretan, Aramaioko Udaletik harremanetan jarri ziren nirekin, Julian herriko seme kuttun izanda merezi zuela udaletxean bertan ere liburua salgai jartzea. Hori horrela, argitaratu ditugun aleak salgai egongo dira, agortu arte, udaletxeko bulegoan, 10 euroren truke.



Ekiñe, 2020ko abenduan. IMANOL SORIANO

Bueltan da Eguzkierripa Rock; oraingoan, frontoiaren atzean

Segurtasun neurri guztiak hartuta ospatuko dute XII. aldiz egingo den Eguzkierripa Rock jaialdia

A.E.G. ARAMAIO

Iazko etenaldiaren ondoren, aurten indarberrituta datoz Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladako kideak. Bihar, zapatua, Eguzkierripa Rock jaialdia ospatuko dute, XII. aldiz.

80 txartel jarri dituzte salgai, eta antolatzaile lanetan dabilen Unai Etxenausiak azaldu du ia denak saldu dituztela. Segurtasun neurri guztiak hartuta egingo dituzte biharko ekitaldiak: "Bazkaria 14:30ean izango da, eta launakako mahaietan elkartuko gara".

Bazkariaren txartelarekin batera arratsaldeko kontzertuetara sarrera ere saldu dute.

Goizean, Ekiñe Casado

Aurtengo ekitaldiak izango duen berritasuna da Eguzkierripan izan beharrean jaialdia frontoiaren atzealdean izango dela –eguraldi txarra bada, eskolako

aterpean egingo dute. Gaur jakinaraziko dute hori–.

Eguna hasiko dute Arrasateko bakarlarri Ekiñe Casadorekin. Emanaldi akustikoa eskainiko du, 12:30ean, Arrasateko musikariak. *Besterik ez* bilduman jaso dituen bost kantuek eta beste zenbait lan eskainiko ditu zuzenekoan.

Lau talde

Bazkaldu ondoren, arratsaldeko kontzertuen txanda izango da. Zuzeneko emanaldia eskainiko dute Bordan Bizio, El Exterminio de la Raza del Mono, Libertad Condicional eta The Mood Rings taldeek. Urtebeteko etenaldiaren ondoren jaialdia ospatzeko gogoz daudela dio Etxenausiak. Jaialdia lekuz aldatzea erabaki dute jende gehiago sartu ahal izateko. Errespetuz gozatzeko dei egin dute antolatzaileek.

Saguzarrak hobeto ezagutzeko ekimena egingo dute gaur

Saguzarren gaua egingo dute gaur, parkean, 21:00etan. Aurrez izena eman dutenek parte hartuko dute ekintzan. Haur eta familiei zuzendutako ekintza da eta helburua saguzarrak hobeto ezagutzeko da. Ultrasoinu detektagailuak erabilia, iluntzea iristean saguzarren deiak entzun ahal izango dituzte parte hartzaileek.

'Bideak' dokumentala eskainiko dute domekan

Orizol Mendizale elkarteak antolatuta, *Bideak* dokumentala eskainiko dute domekan, kultura etxean, 18:00etan. Aritz Ganboa de Migel artzaina da laneko protagonista. Lanerako eta kirolarekiko zaletasunak uztartu ditu dokumentalean. Helburu nagusia da nekazaritzari eta abeltzaintzari balioa ematea, besteak beste.

Balorazio "positiboa", urtea "zaila" izan arren

Udal Gobernuak agintaldi erdiaren bilakaerarekin "gustura" agertu da, "zailtasun asko izan badira ere"; pandemiak lehentasunak ezartzera behartu dituztela onartu dute, baina, era berean, nabarmendu orain dela bi urte emandako hitza betetzen dabilzala

Mirari Altube ARETXABALETA

Unai Elkoro buru duen Udal Gobernuak agintaldiko lehen bi urteen balorazio positiboa egin du. Hasieran hartutako konpromisoak betetzen ari direla azpimarratu du alkateak, nahiz eta lehentasunak ezarri beharrean izan diren.

Azken urtea zaila izan dela onartu du Elkoroak: "Agertoki berrira egokitu behar izan dugu eta gure helburu nagusia inor atzean ez uztea izan da eta izango da". Hala, agintaldi hasieran emandako hitza betetzen ari direla gaineratu du: "Arduraz, konpromisoz eta oinak lurtean jarrita, egoeraz jabetuta, baina Aretxabaleta eraikitzen jarraitzeko lanean, herritarren ongizatea eta garapen sozial eta ekonomikoa bermatzeko".

Abian jarriko diren proiektuak

Proiektu estrategikoen alde egin duten "apustu irmoa" azpimarratu gura izan dute Udal Go-



Udal Gobernuak kideak, Unai Elkoro alkatea buru dela, udaletxeko lorategian. M. ALTUBE

bernuko kideek, eta herri gisa aurrera egiten jarraitu gura dutela gaineratu, "herritarrekin batera lan eginez, hurbiltasunetik eta ahotsa emanez".

Herri "irisgarriagoa eta erosoagoa" lortzeko helburuarekin

eta "herritarren beharrei erantzun dieten kalitatezko zerbitzuak eta azpiegiturak izateko", dagoeneko martxan dauden edo datozen hilabeteetan abian jarriko diren proiektu estrategikoak gogorarazi dituzte.

Santa Kurtz kaleko hornidura eta saneamendu plan bereziari irail amaieran ekingo diote. "2,3 milioi euroko aurrekontua du horrek, eta urtebete iraungo du", azaldu du Xabi Otxoa Hirigintza zinegotziak. Kurtzabarri eskolako Haur Hezkuntzako gunea eraberritzeko lanak uztailan hasia da, eta lizitazioa abian da.

Bedarreta auzoan irisgarritasuna hobetzeko lanak urrian hasiko dituztela iragarri dute, eta Arbizelain dagoen trialsin gunea udazkenerako prest izatea gura dute, argiztatzeko lanak abuztuan hasita. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra definitzeko prozesua, ostera, irailean jarriko dutela abian adierazi dute, eta gaineratu kiroldegi aurreko berdegunearen erabilera zehazteko prozesua ere aurten egin gura dutela, herritarrekin.

Garteen emantzipazioarako dirulaguntzen programa abiaraziko dutela esan dute, baita ostalaritzari laguntze aldera terrazak egokitzeko inbertsioentzako ere.

Bukatzeke, erabilera askotarako aretoa egokituko dute komentuko kaperan, adinekoendako gizarte zentroko lanekin batera.

Zentro soziosanitarioa

Komentuan egokituko den adinekoendako gizarte zentroa ere "estrategikoa eta lehentasuneko proiektua" izan dela azpimarratu gura izan du Karmele

Uribarri zinegotziak. "Ilusioz lan egin dugu sozializazioa, udalerriko bizitzan integrazioa eta zahartze aktiboa erraztuko dituen espazio bat diseinatzen". Zentro hori "belaunaldien arteko bizikidetzat sustatuko duen topagunea" izatea gura dute. Lanei urte amaieran ekingo diete, ondo bidean, eta lehen fasea ekingo da –lehen solairuari dagokiona–: Basotxo erretiratuaren elkartearen egoitza, taberna eta jantokia, kultur ekin-tzetarako aretoa kaperan, eta eguneko arreta zerbitzua –tailer kognitiboekin hasita–.

Adinekoen egoitza zaharrea orain Basotxo dagoen eraikina, ostera, zentro soziosanitarioa egokitzeko asmoa dago. Uribarri adierazi du plan "aitzindaria" dela EAEn, eta eraikin berean egongo direla kokatuta osasun zentro berria eta udal gizarte arretako zerbitzuak. "Erroka estrategikoa da, arreta soziosanitarioa koordinatzeko aukera berriei ateak irekiko dizkielako. Erroka horri aurre egiteko, Udala eta Debagoieneko ESI elkarlanean ari dira", azaldu du Udaleko Gizarteingintzako zinegotziak.

HERRI "EROSOAGOA ETA IRISGARRIAGOA" LORTZEA DUTE HELBURU PROIEKTU ESTRATEGIKOEN

Aniztasun funtzionala dutenen argazkiak protagonista Arkupen

'Zubiak eraikiz' erakusketa jaso dute Nikaraguako eta Debagoieneko pandemia zelan bizi izan duten

M.A. ARETXABALETA

Pandemia sasoi ez da samurra izan aniztasun funtzionala duten kolektiboendako ezta horiekin lan egiten duten profesionalendako ere, eta horri zelan egin dioten aurre erakutsi gura izan dute argazki bidez Elkar Hezten plataforman batu diren elkarteek. *Zubiak eraikiz* erakusketa, Nikaraguako Carazo eskualdeko Diriamba herrian bizi direnen eta Gipuzkoako baina Debagoieneko ere egunerokoa jaso dute. Arkupen egongo da ikusgai, ekainaren 30a arte.



Arkupen dauden bi argazki. M.A.

Nikaraguako eta Gipuzkoako aniztasun funtzionala duten pertsonen arteko topaketa egitekoak ziren 2020an, baina pandemiaren erruz bertan behera utzi zuten. "Egoerara moldatu eta argazki erakusketa bat egitea erabaki genuen. Eta horietan erakutsi ohiko lan-errutinara itzulera zelakoa izan den", adierazi du Isabel Medinak, Elkar Hezten plataformako kideak. Argazki batzuk Nikaraguan jasotakoak dira eta beste batzuk, Gipuzkoan: Goyeneche Fundazioan, Gurea-ken, Aita Mennin eta Atzegin-tartean, Aretxabaleako etxeko bizilagunak daude. "Profesionalen, erabiltzaileen, senideen eta langileen esfortzua erakutsi gura dugu, erroka handia izan delako. Terapia askotan da irribarre bat edo begirada bat, eta hori zaildu egin da".



M.A.

Senegalgo proiektua ezagutzera

Yaakar elkarteak –argazkien hainbat kide– Senegalgo Mbam eskualdean duen proiektuaren berri emateko –osasun zerbitzuetarako eraikin bat– erakusketa du zabalik udaletxe zaharrea, hilaren 25a arte: astelehen eta egubakoitzean goizez eta arratsaldean (12:00-13:00 eta 18:00-20:00); eguaztenean goizez (12:00-13:00); eta martitzen eta eguenean, arratsaldean (18:00-20:00).

"Herritarrekin lantzeko" bideari ekin dio EH Bilduk

'Bide eder bat' izeneko prozesua aurkeztu dute aretxabaletarrekin batera zehazteko etorkizunera begirako gaiak, eta herritarrak gonbidatu dituzte ahal duten moduan eta nahi duten heinean parte hartzera; horretarako, inkesta bat zabalduko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletako EH Bilduko kideek *Bide eder bat* izeneko prozesuaren berri eman gura izan diete herritarrei, eta eskatu, ahal duten moduan eta nahi duten heinean prozesuan parte hartzeko, guztien ideiak jaso eta denen artean etorkizunera begirako erabakiak hartzeko.

Bidea bera erreminta

Azken urtea gorabeheratsua izan dela uste dute EH Bilduko kideek eta ikusi dela politika egiteko "beste eredu batzuk" behar direla; hala, tokatu zaien eremuetan erakutsi dutela "modu berriak" badaudela. Horregatik, *Bide eder bat* prozesua jarri dute abian. Ez da ohiko prozesua izango, Ion Albizuren esanetan, eta eskaini nahi den tresna bidea bera dela azpimarratu du: "Prozesu honek forma ezberdinak hartuko ditu: gai zehatz batek hala eskatzen duelako, proiektu bat jaiotzeko edo martxan jartzeko jendearen laguntza behar

delako, korapiloren bat askatu behar delako edo arlo baten bueltan patxadaz hausnartu nahi dugulako. Hau da Aretxabaletari eskaintzen diogun erreminta: bidea bera". Hamabost pertsonako talde dinamizatzailea dagoeneko lanean hasita dagoela azaldu dute, eta orain, gai ezberdinak jorrazteko lantaldeak sortzen hasiko direla.

Inkesta herritarren artean


Inkesta bat zabalduko dute herritarren artean, haien kolaboratzeko prestutasuna nolakoa den jakiteko. Azaldu dute norberak nahi duen erara eta konpromisoarekin, gura duen erritmoan, eta nahi duen gaian izango duela aukera parte hartzeko:

LANEAN DABIL TALDE DINAMIZATZAILEA, ETA ORAIN, LANTALDE TXIKIAGOAK SORTUKO DITUZTE

"Proiektu zehatzak mahai gainean ditugu eta laster aditzera eman go ditugu; denon parte hartzea eskatuko dugu proiektu horiek ahalik eta jende gehien oniritzia duten ala ez jakiteko, eta jendeak ekarpenak egin ditzan".

Espero dute epe laburrean, eta arlo zehatz batzuetan, esaterako, parekidetasunean, hezkuntzan eta kulturaren hausnarketa orokor batzuk egitea eta horiek proiektu zehatzetan gauzatzea. Baina erroka bat ere badutela azaldu dute: hirigintzako plan orokorra. Horren bueltan joango dira hurrengo hilabeteetako euren planteamenduak. Esan dute igaro duten bide horretan jarraitu nahi dutela; aretxabaletarrendako dituzten asmoak, ideiak eta helburuak elkarbanatuz, guztiei entzun eta denen artean erabakiak hartzeko.

Gaineratu dute bakoitzak dagoen tokitik baina guztiek batera egin nahi dutela: "Betorik gabe, harrokeriarik gabe, baina harrotasunez".



Jaiki elkarteko dantzariak entseguaren une batean. JAIKI ELKARTEA

Bat-bateko dantza ikuskizuna izango da gaur, Jaikiren eskutik

'Kaioak ez du hotzik' saioa eskainiko dute Ilargi plazan, Sara Alonso piano-jotzaile eta abeslariak lagun eginda

M.A. ARETXABALETA

Jaiki elkarteko sei-zortzi dantzari mugimendu espontaneo landu eta dantzan egingo dute, Sara Alonso gazte aramaioarrak pianoarekin jotako doinuei jarraituta. *Kaioak ez du hotzik* ikuskizunaren baitako emanaldia izango da gaur, egubakoitza, eskainiko dutena Ilargi plazan, 19:00etan.

Musika zuzenean eta dantza

Urtean zehar bat-bateko konposizio ikastaro trinkoan jardun duten partaideen emanaldia izango da. "Musika biziarekin lan egitea dugu gustuko, dantza bat-batekoa izanik musika ere momentukoa izatea delako proposena; izan ere, ez dago koreografia zehatzik, ez hasierarik, ez bukaerarik finkatuta", azaldu du Jaikiko kide Maier Etxebarriak. Hain zuzen, horren erakusgarri dira aurretik Eñaut

Zubizarreta biolontxelo-jolearekin eta Joe Pieman DJarekin egindako ikuskizunak. "Oraingoan, Sara Alonsori proposatu diogu eta gustura onartu du". Bi entsegu bakarrik egin dituztela onartu du: "Horietan bizitakoarekin eta sentitutakoarekin irtengo gara kalera".

Ikasturtea agurtzeko egindako agerraldia izango da, beste batzuetan egin izan duten legez: "Uzten diguten lokala eta dirulaguntza eskertu gura dizkiegu herritarrei, eta hori itzuli, guk landutakoarekin".

Ekain bukaeran, ikastarora

Behin ikasturtea bukatuta, ekainaren 26an eta 27an ikastaro bat izango dute Jaikiko kideek, Alemaniatic etorritako bi irakaslerekin: "Mugimenduen eta gorputzaren esplorazioan sakontzen jarraitzeko lan-saio bat da".



EH Bilduko zinegotziak eta beste hainbat herritar, prozesuaren berri emateko egindako agerraldian. MIRARI ALTUBE

Batzar orokorra egingo du Basotxok martitzenean

Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorrera deitu ditu bazkideak martitzenerako, ekainaren 22rako; komentuan izango da, 16:30ean. 2019ko eta 2020ko ekitaldietako memoriak irakurri eta onartuko dituzte, lehenengo, eta 2021erako aurreikusitako jardueren berri eman, gero. Bukatzeko, zuzendaritza batzordea berriro egingo dute.





UDAKo Ohorezko Erregionala zuzenduko duen taldea Ibarra futbol zelaietan, martitzeneko aurkezpenean. MIRARI ALTUBE

Ohorezko Erregionaleko lantalde berria, eratuta

Unai Calzon izango da UDAko Ohorezko Erregional Mailako entrenatzaile berria. Alboan Aitor Etxeberria izango du, eta taldea osatzeko Andoni Etxagibel, Joserra Gordoak, Paco Jurado eta Alvaro del Blanco izango ditu denboraldi berrian bidelagun

Imanol Beloki ARETXABALETA

UDAK Ohorezko Erregionaleko taldea zuzenduko duen taldea eta entrenatzaile berria aurkeztu ditu. Unai Calzon izango da hori, eta haren laguntzailea Aitor Etxeberria. Hauekin batera, Andoni Etxagibelek atezainekin jarraituko du, Joserra Gordoak delegatu, Paco Juradok fisio lanetan jarraituko du eta Alvaro del Blanco prestatzaile fisikoa izango da.

Calzonek ondo ezagutzen du taldea, futbol jokalaria izan da, eta urte askoz aritu da etxeko taldean, eta azken urteetan entrenatzaile ere ibili da. Gazte mailakoak Euskal Ligara igo zituen, besteak beste. Hori horrela, bere aldeko apustua egin du UDAko zuzendaritzak.

Arduraz hartutako kargua

Erronka polita du aurretik UDAko Ohorezko Erregionaleko entrenatzaile berriak, eta eskerrak emanez hartu du kargua: "Lehenik eta behin, eskerrak eman

nahi dizkiot UDAko zuzendaritzari nigan konfiantza izatearren. Gogoz eta ilusioz nago, baina arduraz ere hartu dut taldearen gidaritzak; izan ere, lehenengo taldeak garrantzi handia du Aretxabaletan".

Talde bera, fitxaketa barik

Denboraldi berrian Ohorezko Erregionaleko talde bera mantendu nahi du Calzonek, eta, printzipioz, ez du fitxaketarik aurreikusten. "Jende gaztea dator aspiko mailetatik, eta kontuan hartuko dugu jokalaririk horiek duten progresioa. Esaterako, aurten gurekin izan dira Unai Beloki eta Ibai Lasagabaster, eta horiek jarraituko dute denboraldi berrian. Asmoa talde

ETXEKOEKIN, TALDE BLOKEA MANTENDUZ, ETA FITXAKETA BARIK HASI NAHI DU DENBORALDIA UDA-K

bera mantentzea da, etxeko jendearekin lan egitea, eta ez dugu fitxaketarik aurreikusten, hasiera batean. Erronka zehatzik ere ez dugu ezarri, baina sailkapeneko goiko postuetan borrokan aritzea izango da, urtero moduan, helburu nagusia".

Talde-lanaren garrantzia

Mikel Larbururen alboan izan da denboraldi honetan, eta haren ikasgaiak barneratu dituela azpimarratu du Calzonek: "Aholku ugari eman dizkit. Asko ikasi dut harengandik, eta talde-lanaren inguruan asko ikasi dut; beraz, hari ere eskerrak eman nahi dizkiot. Orain, nire alboan Aitor Etxeberria izango da, aurretik bigarren taldean entrenatzailearen laguntzaile aritu dena, baita jokalaririk ere, duela bi-hiru urtera arte, kategoria honetan, Mondra taldean aritu da jokatzeko. Kuadrillako laguna da, oso ondo ezagutzen du maila hau, eta bion artean lan polita egin dezakegula uste dut".

Nafarroako jotak izango dira entzungai Herriko Plazan

Martitzenean, Patata Tropikala konpainiaren 'Kalean otso, etxean uso' antzezlanak izango da

I.B. ARETXABALETA

Acordes Navarros taldeak *De Estella a la Navarra* diskoa aurkeztuko du domekan, 19:00etan, Herriko Plazan. Taldeak, sortu zenetik, 20 urteko ibilbidea egin du, eta lehen diskoa atera dute, hamazazpi abesti biltzen dituen. Taldearen sorreratik gaur egunera arteko ibilbidearen oroitzapena irudikatzen du. Bakarkako jokin batera, binaka eta taldean kantatuko dituzte rantxerak, eta bestelako kantuez gozatzeko aukera ere izango da ema-

naldian. Eguraldi txarra eginez gero Iturrigorri frontoian egingo dela jakinarazi du Aretxabaletako Udalak.

Martitzenean, ekainaren 22an, berriz, musika aldera utzi eta Patata Tropikala Antzerki Taldearen *Kalean otso, etxean uso* antzezlanak ikusteko aukera izango da Santa Ritako lorategian. 19:00etan izango da antzerkia, eta 2 urtetik 12 urtera bitarteko hurrei zuzenduta dago. Domekako hitzorduan moduan, eguraldi txarra eginez gero, Iturrigorri frontoian egingo da.

Eskaintza zabala Gu Haziak Gara elkartearen eskutik

Gu Haziak Gara elkarteak, Aretxabaletako Udalaren babesarekin, zenbait ikastaro antolatu ditu ekainerako eta uztaile-rako. Tailer guztietan izango da edukiera mugatua, eta, hain zuzen ere, interesa duenak, guhaziakgara@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar du, edo 688 62 37 18 telefono zenbakira deitu.

Ekainean, hilaren 21ean eta 29an, hilerokoarekin lotutako hezkuntza tailerra izango da; eta 22an eta 29an, berriz, oihailezko estanzazioaren gainekoa.

Uztailean, hilaren 19an, 20an eta 21ean, poltsa eta nezeserrentzat kremaileak egiteko tailerra izango da. Uztailearen 8an eta 15ean, Fototransfer saioa izango da, objektuak irudi edo argazkiekin pertsonalizatzeko, eta amaitzeko, berriz, joskintza ikastaroa egingo da uztailearen 12an, 13an eta 14an.

GORA ETA BEHERA



Bide bazterreko belarra moztuta, agertu da seinalea

Belarra oso altu zegoela kexa jarri zuen orain dela egun batzuk herritar batek, eta orain, txalotu egin gura du belar-mozte lanak egin izana: "Bide bazterreko oihana desagertu egin da. Garbitu egin dute; ez aurreratzeko seinalea ikusten da orain. Txalotzekoa oraingoan".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus



JOSE INAZIO ISASMENDI

Euskara ardatz, zubia eraikitzen

Aniztasunean euskaraz bizitzeko helburua duen Auzoko Eskoriatza egitasmoa ikasturte amaierara iristear da. Asteroko lanetaz gain, ekintza bereziak egiteko aukera izan dute ikasturte honetan, eta helburuak bete dituztela adierazi dute



Auzoko Eskoriatza taldeko zenbait partaide kultura etxean. AUZOKO ESKORIATZA

Imanol Beloki ESKORIATZA
Euskaratik urrun daudenei eta euskarara hurbildu nahi duten horiei euskaraz harrera egiten dien Auzoko Eskoriatza egitasmoak atara dio zukua ikasturte gorabeheratsu honi. Auzotarrak eta auzokideak elkartu eta euskaraz berba egiteaz batera, elkar ezagutzeko egitasmoaren aurtengo balorazio positiboa egin du Iratxe Arresek, Auzoko Eskoriatza taldeko koordinatzaileak.

Ekintza aberatsak

Aurten egin dituzten ekintzei balioa emateaz batera, zenbait lorpen eta helburu bete dituztela adierazi du Arresek. Horrekin batera, ikasturtea borobiltzeko ekintza berezi bat antolatzea aurreikusten dutela aurreratu nahi izan du, eta datorren urtera begira ere markatu dituzte Auzoko Eskoriatzaren helburu

nagusiak: "Ikasturte hasieran ezin izan genuen ekintza berezirik egin COVID-19aren neurriak zirela-eta, baina urtarriletik hona, protokoloa zorrotz betez eta segurtasuna bermatuz, zenbait ekintza egin ditugu, eta aberasgarriak izan dira, gainera. Pentsatzen genuen ezingo ginela joan Huzezi Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera, baina, beraiekin batera adostuta, joan ginen, beste urte batzuetan moduan. Emakumeen Mundu Martxan ere parte hartu ahal izan genuen, Atxorrotx mendira irteera egin genuen

**ARROPA TRUKEAN
BANATU EZ DENA
BESTE ERAKUNDE
BATZUETARA
BIDERATUKO DUTE**

gure herriko historiaren berri emateko...".

Zutabe sendoa eraikita

Auzotarrei euskarara gerturatzeke, ezinbestekoak dira auzokideak, eta aspektu horretan aurrerapauso handia eman dutela aurten adierazi du Arresek. "Auzoko Eskoriatza taldean nazionalitate askotariko hemezti partaide ditugu; Sahara, Brasil, Kolonbia, Mexiko, Siria, Nikaragua, Ukraina... Eta hauekin batera, hiru auzotar izatek hamar izatera pasa gara, eta bide horretan Eskoriatzan Feminismo Bizirik taldekoek zeresan handia dute. Gure helburu nagusia, egitasmoa hasi zenetik, izan da atzeritarrak izan edo ez euskaratik urrun bizi direnak guregana gerturatzea; hau da, aniztasunean euskaraz bizitzea. Eta bide horre-

Urteko ekintza esanguratsuak



Auzoko Eskoriatza taldeko kideak Huheziko ikasleekin. AUZOKO ESKORIATZA

Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunaren harira, Auzoko Eskoriatzako taldeko kideak Huzezi fakultatean izan ziren elkar ezagutzen eta bizipenak partekatzen.



Atxorrotzeko Gurutze Santuaren ermita atzean dutela. AUZOKO ESKORIATZA

Atxorrotx mendia ezagutzera joan ziren maiatzaren amaiera aldera. Gazteluaren historia ezagutu eta eguraldiaz gozatzeko aprobetxatu zuten, Eskoriatzako bista ederrez gozatzeaz batera.

tan jarraitzen dugu. Hala ere, esan behar da beti dugula bermatuta ekintza berezietan euskal hiztunen partaidetza". Hori horrela, auzokide kopurua handituta, datorren ikasturtera begirako helburu nagusietako bat auzotar gehiago batzea dela ere gaineratu du Iratxe Arresek, besteak beste.

Arropa truke arrakastatsua

Martxoan egindako arropa truke azokak izandako arrakastaren ostean, atzo, eguna, ere arropa trukea izan zen kultura etxean, auzotarrek –euskal hiztunak–

**HURRENGO ERRONKA
AUZOTAR
GEHIAGORENGANA
GERTURATZEA IZANGO
DA AUZOKON**

sustatuta. "Batez ere, haurrendako arropak batu ditugu, eta banatu ez direnak beste erakunde batzuek antolatzen dituzten egitasmoetara bideratuko ditugu: Caritasera, Zaporeak-era... Ekintzak xumea dirudien arren, jendearen prestutasuna eskertzekoa da, eta hainbeste gauza batzea zoragarria da. Gainera, auzotarrek zenbait arroparen izenak euskaraz nola esaten diren ikasteko bide eman du".

Hilaren 22an, ekintza berezia

Ikasturte hau borobiltzeko, ekainaren 22rako ekintza berezi bat prestatu nahi dute Auzoko Eskoriatza taldekoek. Hitz-joko jolasa eta poesia tartean izango direla aurreratu nahi izan du Iratxe Arrese koordinatzaileak, egin behar dutena esan barik, parte-hartzaileei sorpresa emate aldera.

"Atsedean hartzeko ordua iritsi zait, penaz bada ere"

IKER MOLINA ESKORIATZA ARETO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

Hamasei urte egin ditu Eskoriatza Kirol Elkartearen, delegatu eta entrenatzaile, baina datorren denboraldian ez du jarraituko talde nagusiko entrenatzaile

Imanol Beloki ESKORIATZA

Maila Nazionala zuzentzen duen Eskoriatza areto futbol taldeko Iker Molina entrenatzaileak taldearen gidaritza utzi du. Agurra barik, *gero arte* bat dela argi du berak, eta kirol elkar-tekoek ere babesa adierazteaz batera eskerrak eman dizkiote. Bere erabakia irmoa da, eta, penaz bada ere, datorren denboraldian, lana, familia eta taldearen gidaritza uzartzeko zailtasunak tarteko, atsedean hartzea erabaki du.

Taldea utziko duzu, momentu gorenarekin dagoela. Zergatik erabakia?

Familia izan behar dut irailen, eta hori da arrazoi nagusia. Horrekin batera, Gasteizen bizi naiz, lanetik berandu irteten naiz, eta astean hiru entrenamendu zein asteburuko partiduetan izanda, dena uzartzeko zaila egingo zait. Pena handiz hartu dut erabakia, baina niretzat zein taldearentzat onena dela uste dut. Hala ere, ez dakit noiz, baina bueltatuko naiz.

Ibilbide luzea izan duzu Eskoriatza Kirol Elkartearen. Zein momenturenkin geratzen zara?

34 urte egin behar ditut eta 18 urterekin hasi nintzen. Jokalari gisa ez naiz sekula aritu, baina 18 urte nituenan lau denboraldi egon nintzen delegatu, beste hiru urte gazte mailako entrenatzaile, lau urte bigarren taldean eta beste lau urte lehen taldearekin. Urte asko dira momentu bat aukatzeke, baina, esate baterako, bigarren taldeko entrenatzailea nintzenean, Lehenengo Erregional Mailatik Erregional Preferentera igo ginekoa oso gogoan dut. Hala ere, gogoangarriena, edo lorpen handiena, lehen taldearekin Euskal Ligatik Hirugarren Mailara igo ginenekoa da, zalantza barik. Izan ere, maila horretara hamalau urtean igo barik egon ostean, salto hori ematea izugarria izan zen.



Iker Molina entrenatzailea partidu batean aginduetan ematen. IMANOL SORIANO

"MIKEL ALKAIDE ESKORIATZARRAK ORDEZKATUKO NAU; BERAZ, TALDEA ESKU ONETAN UTZI DUT"

Datorren urtera begira nola ikusten duzu taldea?

Sailkapenean liderrak izan gara denboraldi erdi, baina igoera fasean seigarren postuan sailkatu gara. Beraz, emaitzei erreparatuz, zapore gazi-gozoarekin bukatu dugula esan dezakegu. Azken bi hilabeteetan lesio ugari izan ditugu; jokalari garrantzitsu asko, gainera. Lehiatu gara, baina taldean halako hutsuneak daudenean oso zaila da aurkariei aurre egitea. Hiru partiduren faltan helburua lortzekotan izan ginen, baina ez da horrela izan.

Etorkizunera begira taldeak igoera lortzeko aukerak dituela esan dezakegu?

Goiko postuetan eta onenen aurka lehiatzeko moduko taldea dugula demostratu dugu denboraldi honetan. Igoera ez dugu lortu, baina datorren denboral-

dian helburu hori jartzea ondo legoke. Joan den denboraldian lortu genuen igoera, lehenengo aldiz jokatu eta mantendu egin genuen kategoria, eta oraingoan ere modu berean jarraitu behar genuke.

Domekan sare sozialetan Eskoriatza Kirol Elkarteak mezu ederra utzi zizun, ezta?

Eskoriatzako ibilbidean egindako lanaren eta lorpenen berri emateaz batera, esker mezu ederra izan da niretzat kirol elkar-teak partekatu duen komunikatua. Halako hitzak irakurtzea zoragarria da.

Nork ordezkatuko zaitu?

Mikel Alkaide eskoriatzarra izango da entrenatzailea. Azken urtean, Narciso Pavorekin batera, bigarren entrenatzaile aritu da Laskorain taldean, eta bertan hartu duen ezagutza oso garrantzitsua izango da taldearentzat. Taldea esku onetan utzi dudala esango nuke.

Zer esango zenioke entrenatzaile berriari?

Gozatu dezala kategoria honetaz. Talde sendoa dela, mundu guztia laguntzeko prest egongo dela, seguru, eta, zalantza gabe, lan bikaina egingo duela.



RAFA CARRIET

Domina sorta ederra eskuratuta

Joan den domekan, Oiartzunen jokatu zen Gipuzkoako kenpo txapelketa, eta bertan izan ziren Atama Eskoriatza taldeko borrokariak. Gainera, lan bikaina egin dute; izan ere, hamasei dominarekin bueltatu dira etxera. Hain zuzen ere, Atama Eskoriatzako taldekoek urrezko zazpi domina eskuratu dituzte, bost zilarrezko eta lau brontzezko.



GIPUZKOAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

Lan-saioa, hasiberriei irakasteko

Basket Take Away izeneko formakuntza jaso dute Eskoriatza Kirol Elkartearen saskibaloiko saileko entrenatzaileek. Mikel Ormaetxearen eskutik saio praktikoa jaso zuten, *Entrenamendua eta ariketa dinamikoak egituratzea hastapen-kategoriaren*, eta Goar Artetxeren eskutik *Hasierako etapetan botea eta pasea entrenatzea* saioa.



FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA
San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

Sanjuanetako ohiturak aldatu egin dira

Belaunaldi askotariko herritarren testigantzak jaso dira 'San Juan bezperan Eskoriatzan' izeneko lana egiteko. Ekainaren 23an, 19:00etan, ekitaldia egingo da Zaldibar antzokian, eta San Juanen baitan herriko ohitura ugari izango dira berbagai

Imanol Beloki ESKORIATZA

San Juan bezperan Eskoriatzan dokumentalaren aurkezpena izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian, ekainaren 23an. Testigantza betetako ikus-entzuzko da, eta kaletar zein elizateetako zenbait herritarrekin osatu dute lana; hain zuzen, Eskoriatzako sanjuanek izan dituzten ohitura aldatetarik dituzten dokumentalak.

Zazpi eskoriatzar elkarrizketatu dituzte lana egiteko. Adin askotariko herritarrek dira, eta, *Nola bizi izan dituzue zuek sanjuanak?* galderari erantzunez, Eskoriatzan gaur egun San Juan bezperan egiten direnak zein galdutako ohiturak jaso dituzte horrela.

Hiru elementu identifikagarri

San Juan bezperako identifikagarriak diren hiru elementurekin osatu dute ikus-entzuzkoa: San Juan sua, tantaia altxatzea eta ura. Azken horrek ihintzarekin du zerikusia. Ekainaren 24 goizean, lehen orduko ira batu, eta goizeko ihintzarekin egiten zen ekintza, hain zuzen. Adibidez, ihintza horrekin aurpegia garbitzen zutela, azalarendako ona zelako, erreumarendako... Hori dio dokumentaleko protagonistetako batek.

Ohituraren bilakaera

"Jaso ditugun testigantzetan sua nola egiten zen kontatzen da etxe aurre bakoitzean. Tantaia lapurtu egiten zela, baina onartuta zegoela. Hasieran, tantaia eskuz altxatzen zen, eta jausteko zituen arriskuak ere kontatzen dira. Gainera, Jon Apraizek adierazten du nola jausi zitzaion hanka gainera... Hortik aurrera, polearekin jasotzen hasi zen, eta gero, garabiarekin. Tantaia-ri dagokionez, plazan jaso zuen azken belaunaldiko herritar batek ere hitz egin du, Saioa

Uribek. Aspaldi egin barik zegoen San Juan dantza egin zuten berriek. Laburbilduta, 1948an jaiotakoetatik 2002an jaiotakoetara bitarteko ohiturak jaso dira", adierazi du Mari Carmen Arrietak Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikariak.

Ekitaldia ekainaren 23an

Lana nola egin den azaltzeaz batera, Zaldibar antzokian proiektzioa egingo da, eta testigantza eskaini dituztenei ere eskerrak emateko aprobetxatuko dute, besteak beste.



2019an, tantaia altxatu eta sua pizteaz batera, dantza egin zuten. IMANOL BELOKI

OHARRAK

Aste Zapatista

Gaur, *Movimientos de mujeres indígenas por el Buen Vivir* izeneko solasaldia izango da Zaldibar antzokian, 19:00etan. Bihar, berriz, Zapatista Jaia, 18:00etan hasita, Santa Marinan.

Dantza emanaldia

Hilaren 22an, Beheko Errota musika eskolako dantza taldeak emanaldia eskainiko du, 18:30ean, Gorosarri plazan.

Ostalariek dirulaguntzak eskatzeko epea

Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu dira eta eskaerak aurkezteko epea zabalik dago, uztailaren 9ra arte.

"Familia guztiak ez dira berdinak, koloretakoak dira"

Asociación Madres solteras por elección taldeak antolatutako lehiaketan hartu dute parte Luis Ezeiza herri eskolakoek, eta saria jaso dute. Ikus-entzuzkoa egin dute Haur Hezkuntzako ikasleek eta bertan, "familia guztiak ez direla berdinak, mota askotakoak daudela, koloretakoak" da ikasleek adierazi nahi izan dutena.

LEINTZ GATZAGA | 23



Jose Ayudarte eta Ibai Agirreurreta, Areantzako emanaldian. BEÑAT ABASOLO

ErNE taldeak Areantza auzoan egin du lehen kontzertua

Jose Ayudarte eta Ibai Agirreurreta gatzagarrak dira proiektu berri horren taldeko bi kide

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

ErNE taldeak egiten duena aurkezteko plaza hoberik ezin izan du aurkitu. Izan ere, Areantzan eskaini zuen lehenbiziko kontzertua, The Potes taldearekin eta Garazi Barrenarekin oholtza konpartituz.

Ander Moreno Arrasateko bateria-joleak, Eneko Iglesias Aretxabaletako gitarra-joleak eta Jose Ayudarte gitarra-jole eta Ibai Agirreurreta baxu-jole gatzagarrek osatzen dute taldea, eta, momentuz, asmo zehatzik ez duten arren, apurka-apurka taldea sendotzea dute helburu.

"Duela bi urte hasi ginen entseatzeko, eta sei kantu ditugu, guztiak guk sortutakoak. Horiak eskaini genituen Areantzako emanaldi paregabean. Hurrengo emanaldiari begira, beste abestiren bat ere aterako dugu, baina, esan bezala, presa gabe", adierazi du Ibai Agirreurreta taldekideak.

Uztailaren kontzertua Gatzagan

Uztailaren 24ko asteburuan Gatzagan jotzeko asmoa dutela aurreratu du Agirreurretak, Oñatiko Larru Beltzak talde hasiberriarekin batera.



GUREL GURASO ELKARTEA

Hilaren 30ean bukatuko dute

Gurelek sustatuta, Gatzagako Udalaren babesarekin eta POOK sormen laborategia elkartearekin lagunduta, muralismo tailerlean ari dira herriko haurrak. Ekainaren 5ean, arlo teorikoa landu zuten kultura etxean, eta zapatuan hasi ziren murala egiten. Hilaren 19an ziren murala margotzen jarraitzeak, baina ekainaren 30ean jarraitu eta amaituko dute artelana.



Hainbat eragiletako ordezkariak, astean egindako aurkezpenean. J.I.

Kataluniarrekin topaketa antolatu du Gure Eskuk

Bartzelonako Manlleu herriko 40 lagun etorriko dira herrira hurrengo asteburuan. Loturak estutzea da helburua, eta erabakitze eskubidearen aldarria indartu eta erreferenduma eskatuz martxan dagoen sinadura bilketari bultzada ematea ere bai

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Bergarako eta Manlleuko –Bergararen antzerako tamaina duen Bartzelonako probintziako udalerria– bizilagun batzuen arteko harremana tarteko sortu zen topaketa antolatze aukera, eta Udalaren babesarekin prestatu du Gure Eskuk hurrengo astebururako egitaraua. Egubakoitzeko aperitiboaren ostean, zapatua izango da egun indartsua, ekitaldiz betea.

Bi herrietako eragileen eta egiten duten lanaren berri elkarri ematea da topaketaren helburuetako bat, eta goizeko saioetan izango da horretarako aukera; Martxanterek, Kultura Mahaiak eta Gure Arterak hartuko dute parte, esate baterako, Irizar jauregian, kartzela zaharrean eta Seminarixoan aldi berean egingo diren topaketetan, herriko zein Manlleuko beste batzuekin batera.

Gure Esku antolatzaile izanda, erabakitze eskubidea ere presente egongo da asteburuan,

dinamikako kide Maite Aristegik azaldu bezala: "Topaketaren beste helburu bat izango da erabakitze eskubidearen aldarria berriro kalera atera eta indartzea, eta duela urtebete hasi zen erreferendumaren aldeko sinadura bilketari bultzada ematea, ea sinadura pila bat lortzen ditugun Bergaran".

Horren harira, hainbat hizlari ezagun izango dira eguerdiko zein arratsaldeko ekitaldietan: CUPEko David Fernandez, Zientzia Politikoetako EHUko irakasle Mario Zubiaga eta Zelai Nikolas Ilegaria –Gure Esku Dagoren bozeramaile izana–.

Tartean, elkarrekin bazkaltze aukera egongo da. Bazkarietarako eta goizeko topaketetarako izena Pol-Polen edo *bergarakogureeskudago@gmail.com* helbidean eman behar da, eta Pol-Polen edo eguen eta zapatuetako Gure Eskuren mahaietan eskura daitezke arratsaldeko ekitaldirako sarrerak, hiru eurotan.

Topaketen egitaraua

Ekainak 25, barikua

- **19:15** Kataluniarrei harrera eta Askatasunaren Martxa, plazan.

Ekainak 26, zapatua

- **10:00-11:30** Topaketak: kultura, kartzela zaharrean; eraldaketa soziala, Irizarren; eta politika, Seminarixoan.
- **12:00** Solasaldia, Seminarixoan: David Fernandez eta Mario Zubiaga.
- **14:30** Bazkaria.
- **19:00** Ekitaldi nagusia, Seminarioko patioan: musika, bertsolariak, Mikel Laskurain... eta David Fernandez eta Zelai Nikolas.



J.I.

"Bigarren olatua dator Eskoziatik"

IÑIGO URRUTIA
GURE ESKU

EHUn Administrazio-Zuzenbideko irakaslea da Urrutia, eta Gure Eskuren zuzendaritzako kidea. **Ze testuingurutan dator Bergarako ekimena?** Testuinguru berrian: erreferendumaren bigarren olatua dator Eskoziatik. Erreferenduma demokrazian sakontzea da, eta hori da bai Katalunian eta bai Euskal Herrian planteatzen duguna. Erreferenduma egin ahal izateko, tresna juridikoak behar ditugu, eta horiek bultzatuko ditu Gure Eskuk Bergarako moduko ekimenen bitartez.

Perspektibarekin begirata, Gure Esku hasi zenean baino gertuago daude helburuak? Urrunago? Halako prozesuek gorabeherak izaten dituzte. Aurreko fasean, ikusi genuen nola erantzun zion Espainiako Estatuak Kataluniako erreferendumari; fase berri honetan, beharrezkoa dena da prozesu politikoa gizartearen prozesuarekin batera joatea. **Eta alderdiak? Estatus berrirako ponentzia?** Estatus berriaren eztabaida udazkenean zabalduko da berriro. Eta fase honetan herri mugimendua askoz ere gertuago egongo da prozesu politiko horretatik, ez soilik berme bezala, ekarpenak egiten ere bai.

Martutenen dago asteburuan atxilotutako gizona

Zapatutik domekarako goizaldean, aurrekariak dituen 36 urteko gizona 34 urteko emakumea, bikotekide ohia, mehatxatu eta erasotu zuen, ustez, Barrenkaleko etxe batean. Emakumearen 3 urteko haurra ere gertaeren lekuan zen.

Ertzaintzak atxilotu egin zuen gizona domeka goizean, indarkeria matxista delitua egotzita. Astelehenean epailearen aurretik pasa eta aske geratu zen, biktimarengana hurbiltzeko debekuekin. Baina astelehenean bertan hautsi zuen agindua, eta berriro atxilotu zuten. Epaileak Martuteneko kartzelara bidali zuen.

Halakoak maiz egiten dituzten epailearen aurretik pasa eta aske geratzeak herrian eragin dezakeen kezka dela-eta galdera eginda, Segurtasun Saileko iturriek adierazi dute legea "oso garantista" dela, eta, adibidez, drogen eraginpean jardun izana "aringarri" har daitekeela, eta atxilotua libre geratzea erraztu.

Indarkeria matxista jasandakoen ahotsa, Seminarioko patioan

Mugarik Gabek eta Hortzmuga Teatroak sustatutako ikuskizun baten bitartez izango da, eta gaur –egubakoitza– eta bihar eskainiko dute, gehienez hogeituzi emanalditan. *Memoria eraikiz* da ikuskizunaren izena.

Indarkeria matxista sufritu duten 28 emakume egindako testigantzak ditu oinarri; hain zuzen ere, *Asfalto arteko loreak*. *Indarkeria matxisten kausak eta eragina biziraun duten emakume biktimen bizitzetan* ikerketan jaso zirenak.

16 urtetik gorakoei zuzendutako emanaldiak dira, eta norberak hautatu dezake hizkuntza. Gaur, 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan dira emanaldiak; eta bihar, 12:00etan, 13:00etan, 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan.

Izena emateko *berdintasuna@bergara.eus*-era idatzi edo 943-77 91 00ra deitu behar da, gaurko 13:00ak baino lehen. Hala ere, egunean bertan Seminariokoan ere eman ahalko da izena.

SANJUANAK 2021 EZ-JAIAK ARRASATE



Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

Guzere arrasatearrekin!

Hemen
garbiketak

Intxaurtueta 16, behea
ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

Bihar emango diote hasiera sanjuanetako kultura egitarau zabalari

Kulturaren aldeko apustu sendoa egin du Arrasateko Udalak, eta hiru ardatz izango direla azaldu dute: esparru itxietako ekintzak, kalekoak eta Monteazpiko terrazan egingo dituztenak. Antton Telleriak irekiko du egitaraua bihar, bakarriketa saioarekin

Maialen Santos ARRASATE

Ezohiko sanjuanak izango dira aurtengoak, eta kulturak hartuko du egitarauaren zatirik handiena; izan ere, horren aldeko "apustu garbia" egin dute la esan du Arrasateko Udalak. Bihar hasita, hogeiki kultura ekitalditik gora izango dira.

Hasteko, bakarriketa saioa

Udaleko Kultura Sustapeneko buruak, Jon Garaik, azaldu du egitarauak "hiru ardatz" izango dituela: "Lehenik, esparru itxietako ekintzak egingo ditugu, gaur eta bihar artean". Hain zuzen, bihar arratsaldean Antton Telleriak irekiko du egitaraua, eta *Nekatutak* bakarriketa saioa eskainiko du Amaia antzokian.

Domeka eguerdian, osterara, Txorbelaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da San

Frantzisko elizan, eta gero, arratsaldean, pandero jaialdia hartuko du Amaia antzokiak.

Astelehenean, Laburbira euskarazko film laburren zirkuituaren baitan, besteak beste, *Ilunabarrean esan* ikus-entzunezkoaz gozatzeko aukera izango da Kulturaten, AEDk antolatuta. "Maiatzaren 22rako sarrerak berehala agortu zirela kontuan hartuta, beste emanaldi bat antolatzea erabaki dugu", azaldu du elkarteak. Gaineratu dutenez, aurreko emanaldian bezala, laburra zuzendu duen Xabi Vallina arrasatearra izango da bertan, ikusleekin berba egiteko. "Saioa doan izango da eta aurrez ez da sarrerarik banatuko. Aretoa bete arte egongo da sartzeko aukera", azaldu dute.

Eguaztenean, hilak 23, sanjuanetako egunetan murgilduko

direla azaldu du Garaik, eta ekintzek bigarren ardatzean izango dute tokia: kalean.

Arrasate Musikaleko irakasle Edorta Aiastuik esan du San Juan bezperako ekintza egingo dutela, errementari dantzarekin eta suarekin. "Murriztuta" egingo dute: "Hala egitea proposatu genuen, eta hala egingo da". Musikari gutxiagok hartuko dute parte, eta, beraz, 22 izango dira, denera. Dantzariei dago kienez, Lore Gazteak taldeko zortzi bikote eta Arrostitzeko beste zortzi ariko dira; guztira, 32. Horren ostean, gainera, *Gora Arrasate* eta *San Juan* ereserkiak abestuko dituzte plazan.

Egun handian, ekintza ugari

San Juan eguna Udalaxpe txistulari elkartearen kalejirarekin hasiko dute arrasatearrek. Ja-

Sanjuanetako kultura ekitaldiak

Ekintza guztietan edukiera mugatua izango da. Hilaren 23ko plazako ekitaldian 45 pertsona bakarrik sartuko dira. Monterronen, asko jota, 200 pertsona; eta Amaia antzokian, 264 pertsona.

Ekainak 19, zapatua

- 19:00 *Nekatutak*, Antton Telleriaren eskutik, Amaia antzokian.

Ekainak 20, domeka

- 12:30 Txorbelaren kontzertua, San Frantzisko elizan.
- 18:00 Pandero Jaialdia, Amaia antzokian.

Ekainak 21, astelehena

- 19:00 Laburbira, AEDk antolatuta, Kulturateko areto nagusian.

Ekainak 23, eguaztena

- 12:30 Txupinazoa eta mikro irekia, Monteazpiko terrazan.
- 19:00 Rebel Noise eta LC taldeen kontzertua, Monteazpiko terrazan.
- 19:30 Udalaxpe txistulari elkartearen kalejira.
- 22:30 San Juan bezperako ekitaldia, Herriko Plazan: errementari dantza eta *Gora Arrasate* eta *San Juan* ereserkiak.

Ekainak 24, eguena

- 11:00 Udalaxpe txistulari elkartearen kalejira.
- 13:00 Monterron parkean, itzulera ekitaldia.
- 17:00 Mus txapelketa, gaztetxean.
- 19:00 Ekiñe eta Nhil taldeen kontzertua, Monteazpiko terrazan.

Ekainak 25, egubakoitza

- 10:30-14:00 Jolasak eta ekintzak, Monterron parkean.
- 12:00 Monteazpiko terrazan, marianito musikatua.
- 12:30 Arrasateko Trikitixa Eskolaren kalejira.
- 19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Monterron parkean
- 20:00 Bordan Bizio eta Txerrikumeak, Monteazpiko terrazan.

Ekainak 26, zapatua

- 19:00 Bertso-saioa, Seber Altube plazan, AEDk antolatuta.

ZERK EGITEN GAITU HERRI HIZKUNTZAK EZ BADA?





lazgo San Juan ez-jaietan, Herriko Plazan, suaren bueltan dantzan. GOIENA

rraian, itzulera ekitaldia egingo dute Monterron parkean. "Kontzertua, normalean, Arrasate Musikaleko bandarena izaten da, baina aurten sei talde kultural arituko dira", argitu du Edorta Aiastuik. Eta gehitu: "Horregatik deitzen da itzulera ekitaldia; talde kulturalak bueltan gatzela adierazteko".

Mus txapelketa ere antolatu dute egun bererako, eta, egunari amaiera emateko, kontzertu bikoitza izango da Montezapiko terrazan: Ekiñek eta Nhil taldeak girotuko dute iluntzea.

Montezapiko terraza, topaleku
Hirugarren ardatza Montezapiko terraza izango dela azaldu du Jon Garaik: "Herriko sortzaileendako plaza izango da. Txosna Batzordearekin elkarlanean jardun dugu; haiek dira ekintzak antolatzeaz arduratu direnak".

Datorren egubakoitz eguerdian, hilak 25, marianito musikatu egingo dute terraza horretan. Aurrez, baina, jolasak eta ekintzak egingo dituzte Monterron parkean, Txatxilipurdiren eskutik. Talde horrek adierazi du aurten ez dela izango betiko

Eguzkilaru Eguna, baina lurralde "alternatiba" pentsatu dutela eta goizerako zein arratsalderako haur, familia eta gazteentzako egitarau berezia antolatu dutela. Zehazki, egun horretan tailer batzuk egingo dituzte goizean zehar, eta arratsaldean, aurrenerabeendako eta nera-beendako ekintzak.

Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasleek herriko kaleak alaituko dituzte egun berean, eta, hori gutxi balitz, arratsaldea girotzeaz arduratuko dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Mon-

terron parkean eskainiko dute ikuskizuna; eguna amaitzeko, Bordan Bizio eta Txerrikumeak taldeen kontzertua izango da.

Bertsoak ere bai

Ekainaren 26an izango da sanjuanetako azken ekitaldia. AEDk antolatuta, Seber Altube plazan bertso-saioa egingo dute, lauokote honekin: Manex Agirre, Ane Beloki, Xabier Silveira eta Oihana Iguaran. Gai-jartzaile lanetan Imanol Artola Felix ariko da.

Halere, sarrerak aldeztu aurretik banatuko dituzte, zapiak saltzeko jarriko diren kaleko postuetan eta AEDren bulegoan.

Sanjuanetan parte hartu gura dutenei "adi" egoteko dei egin die Sustapeneko buruak izan ere, edukiera mugei lotuta sarrerak eta gonbidapenak eskuratuko beharko dira. "San Juan

bezperako ekitaldian 45 lagunentzako lekua egongo da, eta zozketa bidez aukeratu dituzte izena eman dutenen artean", esan du. Eta gehitu: "Itzulera ekitaldirako, ostera, hilaren 21ean eta 22ian Amaia antzokian banatuko ditugu gonbidapenak, 18:00etatik 20:00etara".

Elkar zaintzarako deia

"Neurriak hartu behar ditugu sanjuanetan. Ekintza guztietan edukiera mugatua izango da eta 23an plazan egongo den ekitaldian 45 pertsona bakarrik sartuko dira", ohartarazi du zinegotziak. Gehitu duenez, Monterrongo ekitaldietan, asko jota, 200 pertsona izango dira eta Txatxilipurdiren ekintzak taldeka egingo dituzte. Hala, herritarrei sanjuanetan arduraz jokatu dezaten eskatu diete.

Goiena telebistan zuzenean

San Juan bezperan, ekainaren 23an, Arrasateko Udalak antolatutako San Juan bezperako ekitaldia Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en zuzenean jarraitu ahal izango da. Hain zuzen, 22:00etan hasiko da Maider Arregik gidatuko duen saioa, eta haren ondoan izango dira Eneritz Urrutia eta Jose Ramon Vitoria. Erreportajeak eta Arrasateko musikariak izango dira tarte batean protagonista, eta jarraian, 22:30ean izango dira ikusgai zuzenean suaren piztuera, errementari dantza eta ereserkiak.

San Juan egunean, 13:00etan, itzulera ekitaldia zuzenean eskainiko du Goienak, eta talde kulturalak izango dute tartea.

Dena den, ezohiko jaietako ekitaldiak ekainaren 24ko, 25eko eta 26ko *Hemen Debagoiena* saioan ere izango dira ikusgai.

JMA

Aurrera egiteko
giltza eskuan daukazu

**GOAZEN,
ARRASATE!**

IFAM

Hasier Larrea ARRASATE

Herriko sei talde kulturalak lehenengoz egingo dute bat emanaldi berean, San Juan egunean Arrasate Musikaleko bandak Monterronen eskaini izan duen ohiko kontzertuan. Musika eskolako kideek ikuskizuna azken hilabeteetan geldi egon diren herriko kolektiboekin partekatu nahi izan dute, eta horren emaitza da itzulera ekitaldia Ekimenaren abiapuntua Arrasate Musikaleko haize eta perkusio ikaslez zein Gasteizko musikariz osatuta dagoen Garinband taldeari eta bandako zuzendari Mikel Markiegiri otu zitzaizen. "Ideien elkartruke bat egin ostean, bandarekin batu eta herriko talde kulturalekin emanaldi bateratua egiteko asmoa jarri genuen mahai gainean", adierazi du Edorta Aiastuik, Garinbandeko musikari eta Arrasate Musikaleko kideak. Hala, "esperimentu moduko bat" egitea "polita eta herriarentzako ona" izan zitekeela ondorioztatu zuten: "Izan ere, errementari dantzarako kenduta, normalean herriko taldeak ez gara batzen".



Arrasate Musikaleko banda, Monterronen ikusleen aurreko kontzertua eskaintzen, 2018ko ekainaren 24an. GOIENA

Jaietan inoiz falta ez direnak, oraingoan, inoiz baino batuago

Itzulera ekitaldia eskainiko dute Arrasate Musikaleko bandak, Garinband taldeak, Arrasateko Gaiteroek, herriko bi dantza taldeek eta Konpartsak Monterronen

Adostasuna zegoela ikusita, gaiteroengana, Txikitxu Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeengana eta Erraldoi eta Kiliki Konpartsarengana jo zuten, eta berehala jaso zuten baiezkoa: "Pandemiagatik geldi egotea tokatu zaien jaietako hiru partaide ezinbesteko izanik, ezin genuen beste aldera begira geratu; osasun egoera hobera doa, talde kulturalak euren espazioa berreskuratzen ari dira... Horregatik jarri diogu izenburu hau ekitaldi honi; hain justu, bueltan gaudelako guztiok".

Errepertorio berezia

"Aspaldiko erronka" gauzatuko dute Monterronen, euskal kantak eta nazioarteko abesti ezagunak dantzari eta konpartsaren neurriera jantziko baitituzte; fandango eta arin-arin estilora, alegia. Arrasateko Gaiteroak arduratu dira hori guztiori koordinatzeaz. Bertako kide Edu Abarrategik adierazi du "zertxobait zaila" izan dela partiturak egitea, melodiak moldatzea eta dantzariekin koordinatzea, baina "martxa ona" hartu duela prozesuak. Aiastuiren hitzetan,

ALDEDI

Gu ere arrasatearrekin!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Erraldoi eta kilikiak dantzan, gaiteroen musikak lagunduta, Seber Altube plazan, 2018ko Sanjuanetan. GOIENA

jendeak "sorpresaz eta gogo onez" hartuko du *Oh, Susana* eta *Bella Ciao* kanta dantzarien mugimenduetan islatuta ikustea. Oholtza azpiko zelaira aterako dira txandaka dantza taldeak eta erraldoi zein kilikiak, eta sartu-irtenen artean ere musika egongo da, "ikuskitunaren erritmoa ez jaisteko".

Gainera, buruhandien kaskoa jarriko dute uneren batean Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitzekoek, konpartsari keinu egin eta emanaldiari umore ukitua gehitzeko.

Edukiera murritzua

Zoritxarrez, 500 lagun inguruko publikoa hartzeko gaitasuna duen parkean 200entzako tokia baino ez da egongo. Ekitaldia galdu nahi ez dutenek hilaren 21ean eta 22an izango dute aukera doako sarrerako eskurtzeko, Amaia antzokiko leihatilara hurbilduz 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Ikuskizuneko protagonistek ere mugatu behar izan dute partaide kopurua, eta nahi baino musikari, dantzari eta konpartsakide gutxiago azalduko dira

arrasatearren aurrean. Eragozpenak eragozpen, "norberaren esperientzia hor" egongo dela aipatu du Iñaki Arsuaga konpartsako partaideak, eta, ezereen gainetik, "gogoratzeko moduko zerbait" irtengo dela nabarmendu. 13:00etan hasiko den ekitaldiaren aurreko kalejirari ere eutsiko diote itzulera ekitaldiko musikariet, Abaroako egoiliarrei merezi duten omenaldi musika eskainita. Guztia ondo irteke eguraldi ona egin beharko du, ordezko planik ez delako egongo bestela.

Zer nabarmenduko zenukete?



MAITE BILBAO
TXIKITXU ARROSTAITZ

"Duela gutxi eman ziguten aukera berriz entseatzeko"

"Pandemiagatik udaberrira arte ezin izan ginen taldea lokalean batu. Beraz, urtebete egon gara geldirik, santamasetako karpan Garinband taldearekin batera dantza egin genuela salbuetsita. Orain bai; azkenean, heldu zaigu kalera irteteko momentua. Herriko dantzari guztiok ezingo dugu errementari dantzan eta itzulera kontzertuan parte hartu; lehenengoan 14 bikote izango gara eta bigarrean, 21 lagun. Espero dugu pixkanaka aukerak zabaltzea".



EDU ABARRATEGI
ARRASATEKO GAITEROAK

"Apirilean antzeko asmoa eduki genuen, baina ezin"

"Herriko kultura taldeok aspaldian gabiltza elkarlanean; udaberrirako ekitaldi bat antolatu nahi genuen, baina pandemiak eragotzi egin zigun. Baterekin eta bestearekin nahastu izan gara, baina ez gara batera atera. Materiala badago, eta gogoia ere bai. Faltan sumatuko dugu, halere, entzierroan eta zezen-plazan sortzen den giroa. Batzuetan ohetik altzatzea kostatzen zaigun arren, giro aparta sortzen dute dianara batzen diren gazteek; etorriko dira momentu horiek ere".

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodlaq Seat Arona

Gu ere arrasatearrekin!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

Zaharra izanagatik inoiz baino biziago dagoen panderoari gorazarre

Arrasateko Trikitixa Eskolak Euskal Herri mailako lehen pandero jaialdia antolatu du herrian; bertako ikasle ohiek eta inguruko musikari sonatuek bat egingo dute Amaia antzokian domeka arratsaldean: "Ohorea da jende hori guztiori ekarri ahal izatea"

Hasier Larrea ARRASATE

Panderoari "ikusgarritasuna" emateko helburuarekin antolatu du Arrasateko Trikitixa Eskolak domekako emanaldia. Normalean, bertako ikasleak igotzen dira Amaiako oholtzara, baina oraingoan, Euskal Herriko trikitilari entzutetsuenek izango dute euren dohainak erakusteko aukera. Antolatzaile eta musikari rola, biak hartuko ditu bere gain Maixa Lizarribar Arrasate Trikitixa Eskolako irakasle eta Amak taldeko

kideak. Altxokoak perkusiozko musika tresnaren garrantzia errebindikatu du: "Panderoa soinuaren alboan ezagutzen dugu gaur egun, baina soinua hona iritsi aurretik jotzen zen panderoa hemen, erromeriak egiten baitziren soilik instrumentu horrekin". Denborarekin "tresna guztietara" moldatu dela eta "laguntzaile rolean bigarren mailan" gelditu dela gaineratzeaz bat, musika eskolan "merezi duen garrantzia" ematen diotela azpimarratu du.

Punta-puntakoa

Lizarribarrek Alaitz Telletxea, Amaia Oreja eta Kristina Solano ditu taldekide Amak proiektua. Agertokia beste lau taldeekin partekatuko dute: Elizagoien ahizpak eta Oses-Leuza anaiekin, Izer eta Eneko Dorransororekin, Khami-rekin eta Neomak zazpikotearekin. Azken horri dagokionez, Debako, Zarauzko, Zizurkilgo, Asteasuko eta Arrasateko musikariek osatzen dute; tartean, Amets Ormaetxeak. Trikitiaren munduan


Gustura herrian jotzeagatik?



AMETS ORMAETXEA
NEOMAK

"Antolatzaileak irakasle ohiak izatea handia da"

"Taldekideoi plazera eragiten digulako hasi ginen batzen, eta ez genuen bestelako pretentsiorik. Baina kontzertuak jotzeko gonbidapenak jaso genituenean, ezin ezezkorik esan! Ekainean eta uztailean emanaldi dezente izango ditugu; bada zerbait, bizi dugun testuingurua aintzat hartuta. Gainera, Trikitixa Eskolan hezitakoak gara hiru taldekide; jaialdiko antolatzaileak, beraz, ondo ezagutzen ditugu. Hortaz, oso pozgarria da gurekin kontatu izana".



IRATI GUTIERREZ
NEOMAK

"Talde berriarekin etxean jotzea plazer hutsa da"

"Kepa Junkeraren Sorginak izatetik Neomak izatera pasa gara; hau da, ikuskizunaren parte izatetik pisu guztia guk eramatera. Neomak-ek *ilargi berriak* esan nahi du grezieraz, horixe gara gu, baina lagun zaharrak ere bai. Ni neu Trikitixa Eskolako irakasle ere bainaiz, eta aspalditik geneukan pandero jaialdia antolatzeko ideia buruan, halakoak oso gutxi egiten baitira inguruan. Kartel puska osatu dugu, eta ziur jaialdiari jarraipena ematen lagunduko duela horrek".



EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIK GABE

Unai, Arbe eta Peixoto Arrasaterak!

IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ

JAI ZALE • DAT • ETXOSTE



Amak laukotea, Bergarako Seminarixoa egindako diskoaren aurkezpen kontzertuan, maiatzean. IMANOL SORIANO

murgilduta daudenen hurbiltasunari buruz mintzatu da pandero-jolea: "Amaian egongo garen batzuekin behin baino gehiagotan egin dugu topo oholtzetan, eta askotan elkartu izan gara bazkarietan eta afarietan".

Gainera, Elizagoien ahizpek Neomak-en garapenean zerikusirik izan dutela aipatu du, Nafarroako trikiti jaialdirako deitu zituztelako, Ibai-arteren ekitaldi batean jo zutela ikusi eta gero: "Justu orduan aldatu

genuen izena, eta Sorginak izatetik Neomak izatera pasa ginen".

Mota guztietako hotsak

Gertutasun horren baitan, ordea, bakoitzaren gustu eta neurrira egokitutako panderoak entzun-

go dira Amaia antzokian: txapadunak, txapa gabeak, laukidunak, borobilak, handiak eta txikiak. "Bizirik dagoen tresna" dela dio Lizarribarrek, "animaliaren larrua baitarama soinean".

Norberak jotzeko moduari ere egin dio erreferentzia, eta gitarrarekin alderaketa egin du, eskaintzen duen aukera sortaren adibide modura: "Pandroak oraindik folkaren etiketa daraman arren, rockean ere erabili izan da; begira Lin Ton Town taldeari, bestela".

Gelditzeko dator

Erromerietan sortzen den giroa gustuko duen arren, halako emanaldiak "dantzatzeko baino gehiago entzuteko" egiten direla nabarmendu du jaialdiaren antolatzaileak. "Urtero" gustuko litzaieke errepikatzea hitzordua, udazken garaian ospatzen den Oñatiko trikiti jaialdia bezala. Lehenengo aldian, behintzat, kalitaterik ez da faltako. Eta, agian, toki hutsik ere ez. Badaezpada, arrasate.eus atarian begiratu beharko du domekan 18:00etan hasiko den ekitaldirako sarrerarik hartu ez duenak.

Kanpokoentzat, plazan jotzeko aukera ederra

Ekainaren 20ko ekitaldi sortak pandemia hasi zenetik lehen aldiz emango die aukera zenbait musikariri oholtza gainera irteteko. Elizagoien ahizpak dira horren adibide. Irune Elizagoienek aipatu du "online saio bat bakarrik" egin dutela tarte horretan. Jaialdiaren kalitatea ere goraiatu du etxalartarrak: "Badugu, adibidez, Khami-ko Iraide Ansorena, sekulako perkusionista".



Elizagoien ahizpak. I.E.

CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID

HIBRIDO ENTXUFAGARRIA

55 KM-ko AUTONOMIA*
%100 MODU ELEKTRIKOAN

KARGA AZELERATUA
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN

*Autonomia aldatu egin daiteke erabilera-baldintza errealen arabera



CITROËN C4 BERRIA

%100 ELEKTRIKOA,
GASOLINA EDO DIESELA



CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

gu ere arrasatearrekin!

SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE  

Tabernen gisa arituko dira txosnagunean, egitarau "xumearekin"

Txosna Batzordeko kideek egitarau "kulturala" antolatu dute datozen egunetarako, Monteazpiko gunerako. Herriko sortzaileek euren tokia eduki dezaten ahalegindu dira



Tremenda Jauria eta Kumbia Queers taldeak, txosnagunean, 2019an. GOIENA

Maialen Santos ARRASATE

Pandemiak bultzatuta iaz egin dako etenaldiaren ostean itzuliko dira aurtengo sanjuanetara Txosna Batzordeko kideak. "Urte berezia" izan arren, "auzolanean eta gogo handiz" prestatu dute egitaraua, eta Monteazpin jarriko duten gunean eramango dituzte aurrera egun horietarako antolatu dituztenak.

Baldintzetara egokituta

Txosna Batzordeko kide Josu Zugastik azaldu du koronabirusari lotutako neurriek ahalbi-

detzen dutenari jarraiki prestatu dutela egitaraua: "Nabarmenduko nuke aurten egingo dugula zer edo zer, behintzat. Ahalgina egin dugu berriro ere lehen ezagutzen genituen jaietara hurbiltzen has gaitezen, pixkanaka". Gaineratu du egitarau "kulturala" eta "xumea" geratu zaiela: "Pandemiak gogorren jo zuen garaian hasi ginen sanjuanak antolatzen, eta, gerora, egoerara egokituz joan behar izan dugu, une oro".

Ez da erraza izan ekintzak aurrera eramateko beharrezko

baimenak eskuratzea; izan ere, azkenera arte ez dute jakin ezohiko jaiak iristerako zein izango zen pandemiaren bilakaera. "Egoerak hobera egin du, baina, eta, horrenbestez, neurriak malgutu egin dituzte. Horrek mesede egin digu", aitortu du.

Antolakuntza-lanei buruz galdetuta, adierazi du herriko hainbat eragilek –Askapena, Jaiki, Euskal Herrian Euskaraz eta Tttak!– osatzen dutela Txosna Batzordea, eta eragile bakoitzeko ordezkari banak hartu duela parte bileretan: "Beraz,

normal egin ditugu bilerak, lauzpabost elkartu garelako kasu guztietan".

Herriko sortzaileei eskainia

Besteak beste, kontzertuak izango dira Monteazpiko gunean, eta Zugastik azaldu du herriko sortzaileei keinua egin gura izan dietela: "Uste dugu eurek ere eskertuko dutela eskainiko diegun aukera".

Hain zuzen, eguaztenean, San Juan bezperan emango diote hasiera Txosna Batzordeak prestatutako egitarauari. 12:30ean,

pregoia irakurriko dute, lehenengo, eta mikrofonoa zabalik izango da, gero: "Herriarrek bertan jotzeko aukera izango dute. Pertsona batzuk lotuta ditugu dagoeneko, baina gura duena animatu daiteke kantura, herriarrek alaitzera". Arratsaldean ere izango dira kontzertuak: Libertad Condicional eta Rebel Noise arituko dira.

San Juan egunean, bestetik, mus txapelketa egingo dute gattetxean. "32 bikote aritu ahal izango dira, denera, eta herriarrek ekintza honetan parte



SAN JUAN BEZPERA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' WEBGUNEAN

22:00ETAN HASITA

SAN JUAN SUA, TXALAPARTA, ERREMENTARI DANTZA,...

BABESLEA:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

goiena"
Zu hemen zaude.



Arkada Social taldea, 2001eko ekainaren 26ko kontzertuan. ARKADA SOCIAL

hartzera animatu gura ditugu", esan du batzordeko kideak. Horren ostean, egunari amaiera borobila emateko asmoz, Ekiñe bakarlaría eta Nhil taldea igoko dira agertoki gainera.

Egubakoitzean, hilak 25, marianito musikatua izango da, hasteko eta behin, eta gero, arratsaldean, euskal presoan aldeko manifestazioa egingo dute, txosnagunetik abiatuta. "Sareko ordezkariekin bat egingo dugu honetan", zehaztu du. Bordan Bizio eta Txerrikumeak taldeek girotuko dute iluntzea.

Zapatuan, hilak 26, emango diete amaiera sanjuanei, eta 17:00etan errifan zozketa egingo dutela azaldu du Zugastik: "Oraindik eros daitezke, Txosna Batzordeko kideak ari gara horiek saltzen; tabernetan ez daude". Azkenik, Perlata eta Los Clayton taldeek eskainiko dute kontzertua, egitaraua amaitzeko.

Tabernen funtzionamendu bera Monteazpi gunean txosna jarriko dute, eta tabernen antzera funtzionatuko duela azaldu du Josu Zugastik. Mahai uga-

ri jarriko dituzte: "Edariak salduko ditugu, baina eserita kontsumitu beharko dira; mahai bakoitzeko lau pertsonako taldeetan, gehienez ere". Ordutegia ere ostalaritza establezimenduen berdina izango da: 00:00ak arte egongo da txosna zabalik. "Eta, jakina, distantziak eta, oro har, segurtasun neurri guztiak mantendu beharko dira".

Horren harira, aitortu du bi kezka nagusi dituztela: "Alde batetik, eguraldiak lagun diezagan espero dugu; eta, bestetik, jendeari arduraz joka dezan eskatu gura diogu, egindako lana ez dadin zapuztu".

2001eko kontzertuek, arrastoa 2001eko ekainaren 26an izandako kontzertuez hogeit urte bete dira aurten. Zehazki, egun hartan, Fase Terminal, Arkada

"EGURALDIAK LAGUNDU DIEZAGUN ETA JENDEAK ARDURAZ JOKA DEZAN ESPERO DUGU"

Social eta Des-kontrol musika taldeak igo ziren txosnaguneko agertoki gainera.

Aipatzekoa da garai hartan punk-oi! musika bor-bor zegoela, hiru taldeak Arrasatekoak

zirela eta, are gehiago, azken talde biek hogeit urte luzeko ibilbide luzea egin dutela. Hala, kontzertu hark arrastoa utzi zuen hainbat gazte arrasatearrengan.

"Herrian jotzea berezia izaten da beti"

MAIALEN OLEAGA
PERLATA TALDEKO KIDEA

Datorren zapatuan, hilak 26, Monteazpiko terrazan kontzertua eskainiko du Arrasateko Perlata taldeak.

Berezia izango da herrian jotzea?

Herrian jotzea berezia izaten da beti, eta gogotsu gaude sanjuanetarako. Neurri berriek lan handia eskatzen dute, eta eskertzekoa da antolakuntzan ari direnen lana.

Noiz jo zenuten azkenekoz Arrasaten?



PERLATA

Santamasetan. Egun hartan ere edukiera mugatuarekin izan zen, eta eserita.

Zer duzue esku artean?

Abesti berriak prestatzen ari gara eta udara begira kontzertu batzuk ditugu lotuta, uztaileko: Azpeitian, Zaldibarren eta Zubietan.

Nolako urtea izaten ari da?

Egoera honek eragin egin digu, denoi moduan. Kontzertuetako berotasuna eta izerdiak faltan sumatzen ditugu, egia esan.

mn
Mondragon
Unibertsitatea



Learning from reality



BERRITZAILEA

Mundu osora zabaldu den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea.



PRAKTIKOA

Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, «learning by doing» ez da slogana, geure DNA txertatuta dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.



HURBILA

Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonistak.



KONPROMETITUA

Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura.

'Lepuan zapixa, piztu herrixa'

Lelo horrek apainduko du sanjuanetako zapi morea, eta hori jantzita ibiliko dira herritarrak AEDren ekintzetan: bertso-saioan eta Eguzkilaru Egunean, besteak beste

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
San Juan jaiek badituzte hainbat adierazgarri. Maritxu Kajoi egunean eskapularioa zintzilik eramatea bezain inportantea da sanjuanetan zapia ipintzea, lepoan. Iaz, ez zen halakorik egin. 2019ko hutsunearen ostean, aurten, zapi morea janzteko aukera izango dute herritarrek.

AEDk deitu zuen zapirako leloa aukeratzeko lehiaketa. Hala, titularrak esaten duen moduan, herria pizteko asmoz sortutako leloa da Lubis kuadrillak proposatutakoa. Ez-jaietarako gon-

bidapena. "Disfrutatzeko eta ondo pasatzeko gonbita da. Barrutik irten zaigun gauza bat izan da. Denbora asko daramagu jai barik, eta herria berpizteko beharra ikusten dugu", diote kuadrilla horretako kideek.

Hemezortzi neskatilak osatzen dute kuadrilla, eta esaldia aukeratzeko orduan guztiek parte hartu zuten. "Denon artean sortu genuen. Kuadrillako batek *Txapela burua eta ibili munduan* esaldia aipatu zuen, eta hortik tiraka, aldaera batzuekin, esaldia sortu genuen", diote.

Zapiak eta bertso-sarrerak
Zapi morea erosi gura dutenek hilaren 23ra arte izango dute aukera, hiru eurotan.

Irati, Etxoste eta Monte tabernetan, Ttukun fotokopia-dendan, AEDren bulegoan zein kalean egongo diren postuetan erosteko aukera egongo da. Hain zuzen ere: gaur, Seber Altuben (11:00-13:00) eta Arbolapetan (19:00-21:00); hilaren 19an eta 20an, Seber Altuben (12:00-14:00) eta Arbolapetan (19:00-21:00); hilaren 21ean eta 22an, Seber Altuben (11:00-14:00) eta Arbolapetan



AEDren zapiak: berdea umeendako eta morea helduendako. GOIENA

(18:00-20:00); eta hilaren 23an, txosnagunean (12:00-14:00) eta Arbolapetan (19:00-21:00).

Bide batez, zapia erosteko postuetan, hilaren 26ko bertso saiorako sarrerak salduko dituzte. Saioa debalde izango da, baina, edukiera mugatuarengatik, sarrerarekin joan beharko da emanaldira.

Oholtza gainean egongo dira Manex Agirre, Ane Beloki, Xabier Silveira eta Oihana Iguaran. Gai-jartzaile lanak, berriz, Imanol Artola *Felix*-ek egingo ditu. Askotariko gaiak erabiliko ditu

Tolosaldeako Ataria irradian (*Hiri ari naizela* irratsaioa egiten duen bertsolari adituak.

Bertsolarien erantzunek balioko dute Seber Altube plazako giroa "pizteko".

Eguzkilaru Eguna

Duda barik, Lubis kuadrillaren esana beteko duenak, alegia, herria piztearena, laru koloreko pertsonaia izango da. Iaz ez zuen hutsik egin –pandemiaren baimenarekin–, eta aurten ere Arrasaten egongo da Eguzkilaru, hilaren 25ean.

Artuak eta garixak gorde subiak eta zapuak erre!!

EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Ifnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com



Eguzkilaru, 2020ko kalejiran, Txatxilipurdiko begirale batekin. GOIENA

Iaz, kalerik kale ibili zen haurrak eta gazteak agurtzen, Txatxilipurdiko begiraleen laguntzarekin. Aurten, herriko kanpo espazioak aprobetxatuz, askotariko ekintzak egingo ditu, Monterron parkean, herriko kaleetan eta Santa Barbarako berdegunean. "Ekintzetan parte-hartze mugatuak egingo dira. Indarrean dauden osasun neurrien arabera taldekatzeak sortuko ditugu. Dena dela, ekintzaren arabera edo espazioaren eta txokoaren arabera taldekatze kopuruak aldatu egin daitezke", esan dute Txatxilipurdikoek.

Maskararen erabilera, etxetik tenperatura hartuta joatea eta eskuak garbitzea neurri orokorrak izango dira.

Jolasetan bi txanda

Goizean eta arratsaldean egingo dituzte ekintzak hilaren 25ean. Haurrendako eta familiendako jolasak Monterron parkean izango dira, ordu eta erdiko bi txandatan: 10:00-11:30 eta 12:00-13:30. Txanda bakoitzean 60 pertsona onartuko dituzte, eta gune eta ekintza bakoitzean hamar pertsona egon ahal izango dira aldi berean.

Bestalde, 11:00etatik 13:00etara, Seber Altuben, ginkana egin ahal izateko informazio-puntua ipiniko dute. Edozelan ere, ginkana egiteko egun osoa edukiko dute parte-hartzaileek: pistak jarraitu eta hainbat proba egin beharko dituzte. "Informazio-puntuaz gainera, haur taldeek zein familiek ginkana egin ahal izango dute Txatxilipurdiren webgunean egongo diren urratsak jarraituta", diote antolatzaileek.

Arratsaldekoak

Arratsaldean *Ihes bidea* jolasa egingo dute nerabeendako. "Scape-room bat egingo dugu, eta gazteek, pistei kasu eginez, istorioak kontatzen duen korapilo hori askatzen ahalegindu beharko dute".

Herriko Plazatik abiatuta egingo dute jolasa, 17:30etik 18:30era, hamarrekoko taldeetan.

Eguzkilaru Eguneako azken ekintzan, amatxo Loretoen omenez landatutako zuhaitza izango da protagonista: intxaurrak ematen hasiko da. Pirritx, Porrotx eta Marimotots oso pozik ipiniko dira, eta gogotsu ospatuko dute umeekin, kantuan eta dantzaz. Heriotza -Marimototsen amare-

na- eta dolua jorratzen dituen ikuskizunera 200 pertsona sartu ahal izango dira. Monterron parkean egingo den emanaldirako -19:00etan- sarrerak Amaia antzokian hartu beharko dira, hilaren 21ean, 17:00etatik aurrera.

Sarrera, ezinbestekoa

Izan ere, Eguzkilaru Egunean egingo diren ekintza guztietarako aurrez hartu behar dira sarrerak, ezinbestean; eta kopurua mugatua izango da. "Pertsona bakoitzak lau izen emateko au-

kera izango du. Salbuespena egongo da familia unitatea handiago bada; hau da, bost pertsona edo gehiagoko familiak badira. Orduan, gehiago eskatu ahal izango dira".

Hain zuzen ere, sarrerak eskuratzeko eguna ere zehaztuta daukate: goizean egingo diren haurrendako eta familiendako jolasetarako eta nerabeendako *Ihes bidea* jolaserako sarrerak hilaren 21ean hartu beharko dira, Monterronen, 18:00etatik 20:00etara.

Helduak ere, mugatuta

Era berean, gurasoek eta zain-tzaileek kontuan hartu beharko dute umeekin batera ekintaldietara doazen helduen kopurua mugatua izango dela. "Ahalik eta gaztetxo gehienek ekintzetan parte hartzeko, bakoitzarekin datorren heldu kopurua haurraren ongizaterako eta zaintzarako beharrezkoa den horretara mugatzea eskertuko genuke", esatu dute Txatxilipurdiko kideek.

Gozatu Arrasate Bluesekin
UZTAILAREN 15ean, 16an, 17an eta 18an

WWW.ARRASATEBLUES.EUS

...eta lortu **500€!**



- 1 Bilatu ahalik eta erakusleiho gehien, dragola saxofolaren ondoan duela.**
- 2 Atera argazki bat erakusleihoari eta bidali argazkiak eta bidali argazkiak 688734149 zenbakira Whatsapez.**
- 3 Argazki gehien lortzen dituen parte-hartzaileak 100€ jasoko ditu Ibai-Arteko bonuetan eta parte-hartzaile guztien artean 100 euroko beste 4 bonu zozketatuko dira.**

ARRASATE
BLUES

Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu deitu 688 73 41 49 telefonora



Laburbira hilaren 21ean

Euskarazko film laburren zirkuituaren 18. aldiak bigarren geldialdia egingo du Arrasaten. Maiatzaren 22an egindako emanaldian lepo bete zen gaztetxea. Bereziki, gogoia zegoen herrian Xabi Vallina herrikideak zuzendutako lana ikusteko: *Ilunabarrean esan*.

Orduan leku barik edo ikusteko gogoz geratu zirendako beste aukera bat egongo da hilaren 21ean. Aurrekoan moduan, zortzi lan programatuko dira -*Aterpean*, *Nigandik*, *Game over*, *Babarrun txapelketa*, *Datsegit*, *Nire eguneroko maitea*, *Agur* eta *Ilunabarrean esan*-, eta, aurrekoan bezala, Xabi Vallina egongo da solasaldian. Edukiera mugatuarekin, Kulturateko aretoa bete arte sartzeko aukera egongo da (19:30).

60 urte beteko lituzke aurten sanjuanetako nagusien danborradak

Zortzi zuzendari izan ditu nagusien danborradak lehen urtetik hona, horietako bi Luis Mari eta Nestor Maidagan aita-semeak. Ze oroitzapen dituzten kontatu dute

Oihana Elortza ARRASATE

Pandemia aurreko egoeran egongo bagina, 60. aldiz aterako zen kalera nagusien danborrada San Juan bezperan. Joan den urtean ezin izan zen, eta ezta aurten ere, COVID-19 egoerak baldintzatuta, baina aurten betetzen du 60. urteurrena nagusien danborradak.

Telefonoz deitzean datu horrekin gogoratzen ez zen arren, berehala atera ditu kontuak lehen zuzendari nagusia izan zenak, Luis Mari Maidaganek: "32 urte nituen lehen danborra-

da egin genuenean, eta 92 ditut orain. Bai, 60 urte. Azkar pasatzen dira urteak".

Arrasateko Udalpe elkarteak antolatu zuen nagusien danborrada lehendabiziko aldiz. "Bertako bazkidea nintzen. Elizako abesbatza kantatzen nuen 7 urte nituenetik, musika pixka bat ulertzen nuen eta uste dut horixe izan zela zuzendari izateko gonbidapena jasotzearen arrazoia. Gogoan dudana da 100 bat lagun izango ginela danborra jotzen, denak gizonezkoak, eta oso ekintza polita izan zela; asko

gustatu zitzaion jendeari. Nik neuk oso ondo pasa nuen. Oso oroitzapen onak ditut".

Danborrada egiteko ideia nork izan zuen ez du gogoan Maidaganek, baina bai Donostiakoa izan zutela buruan adibide moduan: "Danborrak eta arropak handik ekarriko genituen; alokatuta, ziurrenik. Entseguak Udalpe elkartearen bertan egiten genuen".

Gizonezkoek osatzen zuten orduko danbor-jotzaileen taldea, baina erregina eta bere damak ere bazituen lehen danborrada



Luis Mari Maidagan, lehen danborrada zuzentzen, 1961ean. J.M.V.D.M.

hark. Jose Mari Velez de Mendizabalek *Hots Begi Danbolinak* blogean jasota duen moduan, Karmele Barandiaran izan zen lehen urteko erregina.

Aita-semeak izan dira zuzendari Maidaganen ostean (1961-1964) beste hainbat zuzendari izan ditu Arrasateko nagusien danborradak, 2018an kargu hori Eva Romerok hartu zuen arte: Jose Luis Mendieta (1965-66), Rafa Fernandez (1967-1978), Luis Mari Muruamendiarrak (1978-1987), Aitor Zeziaga (1987-1995), Luis

Mari Mentxaka (1996-1998) eta Nestor Maidagan (1999-2016), Luis Mariren semea.

Aita bezala, danborradako zuzendari lanetan ibili zen hainbat urtez Nestor Maidagan. 1999an bete zuen zeregin hori lehen aldiz, danborradak bul-tzada bat behar zuela-eta antolatzaileak berarengana jota. "Beti hartu izan dut parte, modu batera edo bestera, danborradan, umetatik. Ikusle moduan bazuetan, baina danborra jotzen ere bai urte askotan. 1999an, SUDC elkarteak Jesus Mari



LIZARRALDE
KIROLAK

Gu ere arrasatearrekin!

ARRASATE Foruen Enparantza San Andres auzoa Tel.: 943 79 91 47	OÑATI Olakua 16 Tel.: 943 78 29 86	LEGAZPI Patrizio Etxebarria 2 Tel.: 943 08 28 46
--	---	---





epele

Calderería



Lehen danborradako erregina, Karmele Barandiaran, eta damak. J.M.V.D.M.

Arce etorri zitzaidan danbor-jotzaileak zuzenduko ote nituen galdezka. Bultzada baten beharra zuen garai hartan danborradak, eta jendearen parte-hartzea sustatzen hasi ziren. Erantzuna oso ona izan zen: bi konpainia izatetik hamar izatera pasatu zen danborrada. Neskak ere urte hartan hasi ziren danbor-jotzaile danborradan ateratzen. Horietako bat, nire kuadrillak osatutakoa. Oso oroitzapen onak ditut".

Hemezortzi urtez izan zen zuzendari Nestor Maidagan, eta

danborradaren ibilbidea sarri aldatu izan dela gogoratzen du: "Ospitale ingurutik atera izan da hainbat aldiz, adibidez. Baita Biteri plazatik ere. 60 urte hauetan Arrasate bera ere aldatu egin da eta ibilbide ezberdinak egin izan dira. Amaiera, hori bai, beti izan da Herriko Plazan. Orduetegiarekin ere egon da aldaketarik urte hauetan. Errementari dantza egiten hasi aurretik, lehenago ateratzen zen, adibidez. Danborrada indartu egin zen moduan, sanjuanak ospatzeko ekitaldiak ere

gehitu egin dira urteotan, eta ordutegia moldatu beharra ekarri du horrek. Normala da".

Beti disfrutatu du danborradaz Nestor Maidaganek, baina danbor-jotzaile zuzendari baino hobeto pasatzen dela aitortu zion Goienari duela sei urte, oraindik zuzendari zela: "Hobeto pasatzen da danborra jotzen. Sekulakoa da, haserre guztiak pasatzen zaizkizu. Zuzentzerakoan, gauza asko izan behar dira kontuan. Askotan pentsatu izan dut zuzendari lana utzi eta danbor-jotzaile izatera pasatzea, baina zuzentzeak dituen gauza onez gogoratzen naiz eta baztertu egiten dut ideia hori". Baztertzen ez duena da aurtengo San Juan bezpera ospatzea.

Azkena 2019an izan da

Joan den urtean Herriko Plazan egin zuten ekitaldian izan zen

ZORTZI KONPAINIAK ETA 200 LAGUN INGURUK HARTU ZUTEN PARTE 2019KO DANBORRADAN

Nestor Maidagan, kantuan. Eta aurtengoz ez daki, oraindik, zer egingo duen, baina barru-barrutik bizi duen eguna da danborradarena, eta ziur da, nola edo hala, parte hartuko edo zerbait egingo duela.

Herriko kaleetan barrena 2019an egin zen azkeneko sanjuanetako nagusien danborrada. Eva Romerok zuzendu zuen hirugarren aldia zen. Maidaganen erreleboa hartu zuen Romerok 2017an. Urte hartan, gainera, berrikuntza moduan, kantu berri bat jo zuten, eta aspaldiko beste bat berreskuratu. 2018koa, berriz, Zaldibartik abiatu zen, zortzi batailoiz osatuta, eta Aitor Zeziaga omen du zuen, 50 urte bete zituelako, urte hartan, danborra jotzen. 2019an, egin zen azkeneko aldian, zortzi konpainia –bost danborjoleekin eta hiru barril-joleekin– abiatu ziren Biteri plazatik; eta horien artean, konpainia berri bat izan zen: Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak sortu zuen Herrikoia izenekoa, hain zuzen. 200 lagun inguruk hartu zuten parte danborrada hartan.

Haurren danborrada ere ez

Nagusien danborrada ez, baina haurrena ere ez da egingo aurtengoz, eta trajeak estreinatzeke geldituko dira berriz.

SUDC elkarteko kideen eta Amaia Albesen artean egin dituzte trajeen diseinuak, eta Natalia Garciak josi ditu. 2020ko urrian hasi ziren trajeak egiten eta ia zozko sanjuanetan ziren estreinatzeak, berez, baina ezin izan zen. Guztira, 58 traje: 26na konpainia bakoitzarendako –bi konpainia–, zuzendariendako bana eta zaldi gainean doazenendako beste lau. Era berean, adostu zuten helduen danborradan zaldi gainean doazen emakumeendako trajeak berritzea.



ORAINDIK UDA GARAIZ HONETARAKO ZABILTZA!





Zelufitsaren aurkakoa



Erreduzitzailea



Sendotzailea

Uda honetan berreskuratu irribarrea eta gozatu
Bisitatu gure webgune berria eta aurkitu zure silueta berreskuratzeko tratamendurik onenak eta eraginkorrenak.

Webgune
berria!

 943 79 52 17

www.lirainarrasate.com

Ez da osasun zentroa RPS: 124/20

LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA

"Kulturaren aldeko gure apustua irmoa da"

MARIA UBARRETXENA ARRASATEKO ALKATEA

Herriko eragileak "oso gogotsu" zeudela dio; eurekin batera antolatu dituzte ekitaldiak. "Hor ikusten da kulturarekiko gure herriak duen grina eta beharra", esan du alkateak

Amaia Txintxurreta ARRASATE

Bihar hasi eta hilaren 26ra bitartean, herrian askotariko kultura eskaintzaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek.

Aurten ere, jairik ez; 2022an izango dira?

Espero dezagun 2022an jaiak ospatu ahal izatea; izan ere, oso egun bereziak dira herriarentzat. Aurten ezin izango dira ospatu, baina kultura egitaraua egongo da, kulturaren aldeko gure apustua irmoa da.

Izan ere, ekitaldiak antolatu dituzue herriko eragileekin batera.

Joan den urtean, ekintza sinboliko bat egin zen; baina aurten, eragileak ekintza gehiago egi-



Maria Ubarretxena, Arrasateko alkatea, udaletxeko balkoian. GOIENA

teko gogoz zeuden, eta Udala ere bai; betiere, protokolo guztiak beteaz eta arauak jarraituz, noski. Eragileak oso gogotsu zeuden, eta hor ikusten da kulturarekiko gure herriak duen grina eta beharra.

Ze aurrekontu bideratu duzue ekitaldi horietarako?

35.930 euro bideratu dira.

Baduzu jaietako ekitaldi kuttunik edo arrazoiren bategatik gustukoak duzunen bat?

Asko gustatzen zait 23ko gaua, orokorrean; nire ustez, oso herrikoia da, elementu eta sinbologia askorekin, oso berezia eta hunkigarria da.

Zer igarriko duzu bereziki faltan aurtengo ez-jaietan?

Bereziki, faltan igarriko dut askatasun gehiago eta, batez ere, jendea elkarrekin egoteak sortzen duen giroa. Baina uste dut gauden egoeran egonda egitarau kultural txukuna atera dugula denok elkarlanean.

Jaiegunak dira honako hauek mondragoetar askorendako. Kanpora eguzki bila... baina bertan gertatzera ere animatzen duzue jendea?

Noski; nahiz eta jaiak bere horretan ezin ospatu, adin guztie-

tara bideraturiko egitaraua sortu da, elkarlanean, eta herritarrek animatu gura ditugu izango ditugun ekintzetan parte hartzeraz.

Sanjuanak dira jai nagusiak, baina udazkenean datoz Maritxu Kajoi, santamasak neguari ondoetorria egiteko... Horiek egingo dituzue aurten?

Uztailean Udazabal egitarauarekin ere aurrera egingo dugu, kultura bideratuz aire zabalean eta Arrasateko auzoetara. Pandemiaren aurkako txertaketa ere badoa aurrera, eta momentu honetan zaila da aurreikustea nola egongo garen udazkenean eta zer egin ahalko dugun, baina, alde horretatik, baikorrak gara eta espero dugu hobeto egotea eta ekintza gehiago egin ahal izatea.

Ze mezu bidali nahi diezu herritarrei? Herritarrek animatu nahi ditut ekintzetan parte hartzera; betiere, osasun neurriak errespetatuz. Erantzukizunez jokatzeko jarraitzea tokatzen zaigu.

Zuk zeuk zer egingo duzu egun hauetan?

Hainbat ekintzetan parte hartuko dut, kulturaz gozatu.

ion



ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua

658 99 59 12

Gu ere arrasatearrekin!



'HEMEN DEBAGOIENA' ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA, SAN JUAN BEZPERA ARRASATEK
EKAINAREN 23AN, EGUAZTENEAN, 22:00ETAN

BABESLEA:

LIRAIN
ARRASATE + ESTETIKA

goiena
Zu hemen zaude.





Herritarrak Otolara Lizentziaduna kaleko tabernetako terrazetan, arkupean, eguazten arratsaldean. HASIER LARREA

Ostalariak nekatuta daude, baina ilusioz

Azken urte eta erdiko egoera lazarriaren ostean, herriko ez-jai nagusien atarian, ostalariak egoerarekin nazkatuta daude, baina, era berean, esperantza ere badute, egunotan euren tabernetan eta jatetxeetan ahalik eta bezero gehien hartzeko gogoz

Amaia Txintxurreta ARRASATE

Bigarren urtez, San Juan jaiak ezin izango dira ospatu herritarrek nahiko luketen moduan. Horrek eragin zuzena izango du ostalariengan, eta, orokorrean, egoerarekin nekatuta eta etsita dauden arren, esperantza apur bat ere badute datozen egun hauetarako.

Arrasateko ostalarien elkarteak ez du nahi izan adierazpen ofizialik egin ez-jai hauetarako dituzten aurreikuspenen inguruan, baina bezeroak hartzeko gertu egongo dira herriko ostalari guzti-guztiak.

Aurreikuspen ez guztiz onak

Derrigorrez bete beharreko hainbat neurrik indarrean jarraitzen dute, eta, egoerak hala eraginda, ez dago ohiko jaietan ezagutu izan den moduko egitarau beterik. Eta, hain justu ere, herriko ostalariak uste dute horrek ere izango duela eragina euren tabernetan eta jatetxeetan jendea ibiltzeko orduan: "Ohiko jaietan egitarau zabala izan ohi dugu eta horrek ekarri izan du kalean jendea ia une oro ibiltzea jaietan. Bai-

na aurten ere ezin izango dugu halakoekin disfrutatu, eta uste dut horrek eragina izango duela jendea kalean eta, beraz, tabernetan ibiltzeko orduan. Beste urte batzuetan baino mugimendu txikiagoa izango dugu", azaldu du Ezkiña tabernako Asier Antiak. Gaineratu du espero dutela, behintzat, terrazak beteta izatea. Eta afariak ematen dituztenen kasuan, gauerdira bitarteko aukera hori ere izango dute.

Irati tabernako Aitor Urizarrek gaineratu du urteroko moduan jendeak jaiegunak kanpora joateko ere aprobetxatuko dituela, eta horrek ere eragina izango duela kontsumoan. Eguraldi eguzkitsua bada jendeak inguruko hondartzetara joateko ere aprobetxatuko duela adierazi du Antiak, etsita.

Dena den, Urizarren esanetan, jaiegun hauei begira egin dituzten eskariak normalean baino zertxobait handiagoak izan dira, dagoeneko badituztelako, esaterako, hilaren 23rako eta 25erako bazkari batzuetako erreserbak eginda. Martxan jarraitzeko gogoz daude.

Gure nahia?
Elkarrekin gozatzea

GORA SAN JUAN!



Euskal Herria 3, behea

Arrasate

Tel.: 943 79 44 22

www.udalaitz.com

inform@cmudalaitz.com

RPS 23B/19 - 23B/19

Espezialitate medikuak

Azterketa psikoteknikoak CRC SS0048

Diagnosi-probak

COVID-19aren probak

Su ere arrasatearrekin!

Xabier Urzelai ARRASATE

Iazko hutsunearen ondoren, Artgazki taldeko lagunek sanjuanetako seigarren argazki lehiaketa antolatu dute. Azken detaileak lotzen dabilta, eta, jai bereziak izango direnez, lehiaketa bera ere egokitu egingo dute.

Pandemiara begira egitarau egokitua izango dute aurtengo sanjuanek. Beste urte batzuetan baino zailagoa izango da erretratu ezberdinak egitea, originalak...

Eta, hain zuzen, lehiaketaren gaia ere moldatu egingo dugu. Hau da, *Arrasate* izango da gaia, eta ez horrenbeste San Juan jaiak. Izan ere, jaietan oso gauza gutxi daude antolatuta; berez, ekitaldi sinboliko bat egongo da, eta ondoren, formatu egokituko kultura hitzordu batzuk antolatu dira, baina ez dira beste urte batzuetako jaiak izango, inondik inora. Eta ez du zentzurik ekitaldi apur horietan herritarrek argazki kamerarekin ibiltzea; gainera, edukierak eta halakoak kontrolatu egingo dituzte, normala den moduan. Aurtengoak oraindik ez dira jai normalak izango

"Argazkilaritza ihesbide moduan erabili dugu askok"

ANIBAL CARMONA ARTGAZKI TALDEKO KIDEA

Sanjuanetarako seigarren argazkilaritza lehiaketa antolatu du Arrasateko argazki taldeak, baina argazkiak ez dituzte jaietara mugatuko, 'Arrasate' izango da gaia

eta ez litzateke oso erakargarria izango lehiaketaren gaia aldatuko ez bagenu.

Lehiaketaren gaia birpentsatu egin duzue, horrenbestez.

Bai. San Juan jaietan zehar aterako argazkiak onartuko ditugu lehiaketan, normala den moduan, baina *Arrasate* gai moduan hartuko dugu. Izan dai-

teke paisaia bat, udaletxe gainean azaldu den ostadarra, eraikin bat... Ez du zertan jaietako irudia izan. Beste modu batera; esaterako, margolariak ibiltzen

dira Arrasateko bazter ezberdinek aukeratu eta horiek margotzen. Horrelako zerbait planteatzen dugu guk ere, bakoitzak erabili dezala gura duen estiloa; horrela, uste dugu jende gehiago animatuko dela lehiaketan parte hartzera. Ea zer-nolako harrera duen.

Baina argazkian ez dago zertan ikusi San Juan jaiak direla.

Hori da, ez dago zertan. Hori bakoitzaren aukerakoa izango da.

Halako lehiaketek laguntzen dute jendea Artgazki elkartera gerturatzeko?

Bai, zalantza barik. Azken batean, argazkiak sare sozialetara igotzen ditugu, etiketatu egiten ditugu, jendea iritsi egiten zaizkio erretratu horiek, herritarrekin interakzio bat gertatzen da. Ondoren, esaterako, sari banaketa ekitaldia Kajoi tabernan egin izan dugu, eta jendea horra ere joaten da... Solasaldi politak, eta, bada, bai, Alegia, Artgazkiren berri izateko modu ona.

Sanjuanetan, lehenengo edizioan rallya egin zenuten, eta ondorengoak lehiaketak izan dira. Guztira, sei

2021-2022 MATRIKULA ZABALIK

- Adin eta maila guztiak 6 urtetik aurrera
- Cambridge azterketetarako prestaketa
- Klaseak goiz + eguerdi + arratsaldeetan
- Jatorrizko irakasleak eta klase presentzialak

Bu ere arrasatearrekin!

ENGLISH

FRANÇAIS

DEUTSCH

Bisita gaitzazu



idiomasterarrasate@gmail.com

Otalora 29, behea - 20500 Arrasate



IDIOMASTER

Ador
HORTZ KLINIKA

Mila esker urte hauetan
bidelagun izateagatik
Bu ere arrasatearrekin!

Arrasate pasealekua 15, behea • 20.500 Arrasate • Tel.: 943 79 95 60

urte herritarrek sanjuanetan argazkiak egitera animatzen.

Halaxe da, iaz ez genuen-eta jaietan lehiaketarik antolatu, ez zuen zentzurik. Egia da lehenengo edizioan rallya egin genuela, baina formatu hori lotuagoa da; hitzordu konkretuak jartzen dira, ordutegi itxi batekin egiten da rallya eta zailagoa izaten da kuadrilla polita batzea, jendeak, akaso, ordu horretan ezin duelako hitzorduarekin bat egin. Kontrara, lehiaketa formatuan herritarrek egitarauko hitzorduak aukeratzat dituzte argazkiak egiteko, bakoitzak aukeratzat du zein momentutan atera argazkiak, non, nori, zelan... **Non aurkeztu beharko dira argazki horiek?**

Joango gara lehiaketaren detailak hobeto zehazten, eta sare sozialen bitartez emango ditugu xehetasun horiek. Baina argazkiak gure taldeko posta elektronikoa jasoko ditugu, arrasateargazki@gmail.com helbidean. Eta, noski, esan gabe doa sanjuanetako egun horietan ateratako argazkiak izan behar dutela, ez duela balio norberaren artxibotik tira egiten hastea.



Anibal Carmona. A.C.

Helburua da jendea argazkiak egitera animatzea.

San Juan jaiak alde batera utzita, zer-nolako urtea izan da hau Artgazki elkartearendako?

Bueno, esango nuke gauza politak egin ditugula eta argazki-

laritzak askori lagundu digula egoera beste modu batera eramaten, ihesbide bat delako, entretentzeko baliagarria dena. Hasieran, denoi bezala, etxeratzeko aginduak ezustean harrapatu gintuen. Baina ondoren hasi

ginen taldeko kideak buruari eragiten, eta etxean egindako erretratuekin lehiaketa bat jarri genuen martxan, *#etxeangeratu* traola erabilia; 185 erretratu inguru jaso genituen sare sozialetan. Gainera, sariak Ibai-arte-ko dendetan trukatzeko jarri genituen eta oso ekimen polita izan zen. Horrekin batera, sare sozialetan tutorialak txertatzen joan ginen: zelan egin etxean erretratu politak, zelan jolastu kearekin, ur tanten argazkiak zelan egiten diren... Ekimen horiek harrera ona izan zuten. **Ondoren, Kulturaten jarri zenuten taldeko hainbat lagunek erakusketa, ia ezer egin ezin zitekeenean.** Oso pozik geratu ginen *Arrasate 20/20* erakusketak eman zutenekin. Taldeko hogeit hamar lagunek launa argazki aurkeztu genituen, eta Kulturaten egon ziren ikusgai. Herritik irten ezin zitekeen sasoiari jarri genuen erakusketa, tabernak itxita zeuden... Kallean ere ezin zen askorik egin eta jende asko etorri zen Kulturatera, garai hartan antolatu zen kultura ekitaldi apurretakoa izan zen eta uste dut horregatik hartu zuela jendeak gogo onez.

Gainera, normalean, korrika eta presaka ibiltzen gara, eta orduan jendea patxadaz etortzen zen erakusketa ikustera. Pentsa, zazpi lagun batu ziren Artgazki taldera; horrenbestez, ezin da gehiagorik eskatu. Eta ondoren egin ditugu beste lehiaketa batzuk ere; pandemia egoerak zuzenean eragin dion ostalaritza sektorea gai moduan jarri genuenekoa, esaterako. Horrekin batera, Movember ekimenarekin bat eginez Mondraveren taldeko lagunekin argazki saioa ere egin genuen... Azken batean, iaz San Juan jaiak bertan behera geratu zirelako ez genuen urteroko lehiaketa antolatu, baina urtean zehar, zailtasunak zailtasun, uste baino gauza dezenteko gehiago egin ditugu.

Argazkilaritza lagungarri izan da pandemia egoeran?

Nik uste dut baietz, askori bizitasuna eman digula argazkilaritzak, ihesbide moduan ere erabili dugula. Denok etxean geratu ginen momentua oso gogorra izan zen, eta, beste zailtasun batzuk laguntzen duten moduan, argazkilaritzak ere bere ekarpena egin digu askori.

Jai berezi hauetan ondo pasa!

<p>Inbisa Negozio Gunea (Gamarra) Zumar Etorbidea 1, 229 bulegoa 01013 VITORIA-GASTEIZ Tel.: 945 00 00 71 • Fax: 945 00 00 72</p>	<p>Antso Abarka 6, behea 20500 ARRASATE Tel.: 943 79 59 81 Fax: 943 79 39 18</p>	<p>Zurradero 2 20570 BERGARA Tel.: 943 76 97 65 Fax: 943 76 40 37</p>
goiena@goienaasegurua.com		www.segurosgoiena.com

IKERRA

Gu ere arrasatearrekin!

Tel. 943 533 831 - 630 087 071 - ikerra@ikerra.com



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK
ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97

RED sare teknika



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA
OSTALARITZARAKO, GARBITEGIETARAKO
ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO
MAKINEN SALMENTA.

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banatzaile Ofiziala



URE BEZEROAK:



Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

*Gu ere
arrasatearrek!*

etxe-lan@etxe-lan.com
Torrebaso industrialdea 14
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)



Jose Mari Larrañaga, Jorge Arevalo eta Ina Larrañaga, Zahar eta Gazte ekimenaren aurkezpenean, 2016an. IREKIA

"Euskadiko Lanbide Heziketak asko zor dio"

Jose Mari Larrañagak bere ibilbidean egindako lan handia nabarmendu du Jorge Arevalo sailburuordeak; beste hainbeste, Miguel Altuna ikastetxeko Joxu Aranak eta Miguel Lazpiur enpresaburuak. Larrañaga aurreko domekan hil zen, 75 urte zituela

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA
Jose Mari Larrañagak pasioz bizi izan ditu Lanbide Heziketa eta herriko ikastetxea, Miguel Altuna; 1991tik, 11 urtez izan zen hango zuzendari. Bera zuzendari zela jarri zuen martxan ikastetxearen egoitza berriaren egitasmoa; eta Lanbide Heziketa ikastetxe publikoak batzen dituen Ikaslan erakundearen bultzatzaile ere izan zen: Altxasu elkartean sortu zuten, 1993an. Aretxabaleta Lanbide Eskolako zuzendari izan zen, eta Eusko Jaurlaritzan ere jardun zuen, Lanbide Heziketarekin lotuta. Behin erretiroa hartuta, 2016an, Zahar eta Gazte ekimena sortu zuten, Lanbide Heziketako beteranoek euren ezagupenak eta esperientzia belaunaldi berriei transmititzeko helburuz, eta elkarteko presidente izan da hil den arte.

Lanbide Heziketako sailburuorde Jorge Arevalok harreman estua izan du urteetan Larrañagarekin: "Pena handia da Jose

Mariaren galera. 1995ean hasi ginen elkarrekin lanean, bera Bergarako ikastetxeko zuzendari zela. Ordutik, oso harreman estua izan dugu, gauza asko egin ditu-eta Lanbide Heziketaren alde; Miguel Altunatik, beti lan-kidetzan, beti laguntzeko gogoia izaten zuen pertsona. Izugarritzko estimua izan diot".

Arevalok argi dio: "Euskadiko Lanbide Heziketak asko zor dio Jose Mariri; letra larriz idatzi dezakezu hori".

Herrikoen aitortza

Azken hatsera arte mantendu du Larrañagak Miguel Altuna ikastetxearekiko maitasuna eta ardura; hala baieztatu du ikastetxeko zuzendari Joxu Aranak: hil hurren zela, harekin hitz egin nahi izan zuen Larrañagak lehendik jorratzekoak zituzten kontu batzuez; hil baino bi egun lehenago izan ziren elkarrekin.

"Berak zeukan energiarekin eta bizitzeko eta gauzak egiteko gogoarekin, pena da Jose Mari

joan izana", adierazi du astean Joxu Aranak. Larrañagaren ibilbideari buruz, hark maiz gogoratu ohi zituenez ziharduen Aranak: "Zuzendari moduan, berari tokatu zitzaion kalitate ziurtagiriaren gaiarekin lan egitea, eta Miguel Altunak pauso handia egin zuen hor, Espainia osoko lehen ikastetxea izan baitzen, Tolosakoarekin batera, ISO9001 ziurtagiria atera zuena. Eta beti geratu zaio berari horren oso oroitzapen ona".

Jose Mari Larrañagak bihotzean zeraman Miguel Altuna ikastetxea; duela bi urte eta erdi ikastetxeari buruz Goienak egindako ikus-entzunezkoan honela zioen: "Miguel Altuna oso zentro berezia da. Gure harremanak

**ENPRESEN DIRUAZ
ESKOLAKO TAILERRA
BERRITU ZUTENEOA
SARRI GOGORATU OHI
ZUEN LARRAÑAGAK**

enpresekin oso zuzenak dira. Gehienak dira enpresa txikiak eta ertainak, gehienek dituzte eskolatik irtendako zuzendariak edo tarteko arduradunak. Guk telefonoa hartu, deitu eta zuzenean gerentea jartzen da, bueltaka ibili beharrik gabe".

Horren harira, Larrañagak beti gogoratu ohi zuen gauzetako bat da inguruko enpresek eman zuten diruarekin eskolako tailerra berri zutenekoa. "100 milioiko kontua zen, 2000. urtean. Eta to! 28 enpresa, denek baietz! Hori beste inon ez da egin Euskadin, hemen egin zen. Zergatik? Konfiantza genuelako enpresaburuarekin, denak ezagutzen genituen, eta eskolak mantendu egiten du hori", zioen.

Pasarte hori ondo oroitzen du Miguel Lazpiurrek ere: "Etorri zitzaidan tailerrera esanez berak ezin zituela ikasleak gertatu nik nahi nukkeen moduan, bitartekorik ez zuelako, makina egokirik ez zuelako. Esan nion ea Jaurlaritzak-edo ez ote zuen laguntzen, eta erantzun zidan: 'Ni aspertu naiz!'. Eskatu nion zerrendatzeko ze makina eta bitarteko behar zituen. Bi egunera etorri zen. Behar zituen haiek baloratu nituen nik, eta otu zitzaidan enpresei galdetu geniezaiekeela eta enpreson artean ordaindu. Hala egin zen".

Lazpiurrek ere pena handiz hartu du Larrañagaren heriotza: "Gauza askotan lan egin dugu elkarrekin, eta nik Jose Marientzako ditut, bakarrik, berba onak, eredu bat izan da. Bere heriotzagatik baino min handiagoa gutxitan hartu dut nik, oso lagun onak ginen, eta ondo konpontzen ginen elkarri aurreperra begiratuta bakarrik. Oso gizon zintzoa zen, beti gauzak aurrera ateratzeko deseatzan, beti herriaren eta gizartearen onerako".

Lazpiurrek zioen azkena Lorenzo Askasibar eskultorea omentzeko sortutako batzordean hasi zirela elkarrekin; izan ere, saltsa askotan aritu ohi zen Larrañaga, Joxu Aranak berak ere nabarmendu bezala: "Gai askotan jakituna zen: eskolan eman izan zuen kurso bat erretiratuentzako-eta perretxiokoan gainean, eta Miguel Altunak kurtso hasieran langileentzat egin ohi genuen Bergara ezagutzeko ibilaldian berak egin izan zuen gidari moduan, gustuko zuen".

Jardunen Udako Euskarazko Postalen lehiaketa, martxan

Hamargarren edizioa izango da aurten, eta postalak, bakoitzak nahi beste, Jardunen egoitzara, Errotalde jauregira (z/g), bidali beharko dira, posta arruntez. Jasotzeko azken eguna irailaren 16a izango da, eta postalik onenak 60 euro eskuratuko ditu. Edonork har dezake parte, eta norbere kontaktua ere jarri beharko da postalean.

Diplomen banaketako kontzertua egingo dute martitzenean

Mariaren Lagundiaren elizan egingo du Bergarako Musika Eskolak 2020-2021 ikasturteko diplomen kontzertua ekitaldia, martitzenean, 19:00etan. Hamazazpi ikasle egingo dute saioa askotariko instrumentuekin, eta Bigarren Mailako diploma jasoko dute ondoren. Ekitaldia jarraitu nahi izanez gero, Musika Eskolara deitu behar da.

Helduen eskolarako matrikulazio epea zabalik dago

Astean, ekainaren 15ean, zabaldu dute Bergarako Helduen Eskolarako matrikulazio epea, eta zabalik egongo da uztailaren 9ra bitartean. Irizar jauregian dago Helduen Eskola, eta 943-76 44 52 da kontakturako telefono zenbakia. Bigarren Hezkuntzako graduatua, goi zikloetarako sarbide proba, alfabetizazioa, hizkuntzak... eskaintzen dituzte.

OHARRAK

San Juan: dastaketa

Auzoko plazan izango da, zapatuan, 19:00etan, eta txakolina, Arabako Errioxako ardoa eta Idiazabalgo gazta izango dira, Mikel Garaizabalekin. Izena emateko: 659 29 79 65 edo obietasanjuan@gmail.com.

Kontzertua Uberan

June Odriozola eta Leizeak, domekan, 19:00etan.

Ane Miren Etxebeste, balkoi ederrenaren jabe

400 euroko saria eskuratu du Bergara Loratzen lehiaketaren irabazleak, herriko dendetan erabiltzeko; Elisabeth Urrutiarentzat izan da bigarren saria, 200ekoa; eta 100ekoa, parte-hartzaile guztien artean zozketatutakoa, Kontxi Leturiari egokitu zaio

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Eguazten arratsaldean egin zuten Oxirondon Bergara Loratzen lehiaketako sari banaketa, eta bertan jaso zuten irabazleek zegokien saria –lehenengoaren kasuan, alabak jaso zuen–.

Ane Miren Etxebeste pozik dago lehen saria eskuratu izanagatik. Horrelakoek beti izaten dute ezusteko puntu bat, nahiz eta Etxebeste kontzientzia zen aurrean oso balkoi txukuna zuela: "Jendeak ere esaten zidan, bai, bai; urteetan dut balkoia apainduta, baina aurtengoa dago politen". Berak geranioak beti bezala zaindu dituela dio: "Aurtengo neguan ez du hainbeste izotzik egin, eta giro hobea egin du. Nik, zaindu, beti bezala: ura bota, eguzki errea badago toldoa zabaldu... Ezer berezirik ez".

Elisabeth Urrutiari lehen aldiz hartu du parte lehiaketan, eta bigarren saria eskuratu: "Balkoia oso polita nuen, ze, iazko geranioak nituen, negua gainditu egin zuten eta. Eta horregatik animatu nintzen parte hartzera. Orain, ekaitzak hondatu egin dit dena". Epaileek balkoia ikusi eta gero, antza, Urrutiarentzat zorionez.

Kontxi Leturiari zozketaz egokitu zaio 100 euroko saria, baina jakin ondo dakizki surfinia



Ainhoa Lete alkateordea eta lehiaketako sarituak, sari banaketan. J.I.

LORENTZAKO NEGU ONA EGIN DU AURTEN, IZOTZ GUTXIREKIN, ETA HORI IGARRI EGIN DA BALKOJETAN

politik edukitzeko sekretuak: "Lurra aldatu, harrotu, ustelak kendu, ongarria bota..."

Helburuak eta irizpideak

Lehiaketaren helburua bikoitza da, Udalaren arabera: "Balkoiak

eta leihoak zaintzen eta apaintzen jarraitzea edo horren ohitura berreskuratzea, batetik; eta, bestetik, apainketak ingurumenari eta herriaren itxurari ekartzen dizkion onurei ere balioa ematea; naturari keinu bat egitea, alegia".

Eta ondorengo irizpideak baloratu dira saridunak erabakitzeke: "Originaltasuna, apainketaren kalitatea, loreen iraunkortasuna eta diseinu floristikoa; horrez gain, egitura moduan berrerabilitako materiala erabiltzea ere bai".

'Begirada adia' egitasmoa egingo dute Bergaran ere

Bakardadea pairatzen duten pertsona nagusiak atzematea eta egoerok gainditzea da helburua

J.I. BERGARA

Aurretik Arrasatekoak eta Oñatikoak bezala, Bergarako Udalak ere bat egin du *Begirada adia* proiektuarekin, Aurrerantz Kooperatiba Elkartearen ordezkariekin hitzarmena sinatuta.

Bergarako biztanleriaren %23,9k 65 urtetik gora ditu, eta kolektibo hori du jomuga egitasmoak. Izan ere, gizarte zibilaren, boluntarioen eta profesionalen "begirada aktiboaren" bidez, herriko pertsona nagusien beharriari erantzuna eman nahi zaie, horretarako eskuhartze planak aktibatuz.

Adineko pertsonen bakardadeak eta isolamendu sozialak, batez ere bakarrik bizi diren pertsonenak, dakarren erronkari erantzuteko, aktibo dauden eragileen sarea osatu gura du proiektuak, bakardade edota isolamendu egoerak edo beste-



Hitzarmena sinatzen. BERGARAKO UDALA

lako arrisku egoerak detektatzeko: antena sozial deitzen dituzte. Identifikatutako pertsona horien eta inguruko beste pertsona batzuen arteko harreman-sare aktiboa ere eratu gura du ekimenak, elkarrekin kafea hartzeko geratuz, esaterako.

Abian da espazio publikoen ordenantza berritzeko prozesua

Herritarrengandik jasoko duen informazioa aztertu eta urte amaierarako prest egotea espero du Udalak

J.I. BERGARA

Bergarako Udalak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi duenez, parte-hartze prozesu bidez eraldatuko dute espazio publikoen okupazioaren gaineko udal ordenantza. Hiritik At enpresak bideratuko du ordenantzaren egokitzapena, eta dagoeneko hasi dira lehenengo urratsak egiten. "Aste honetan landa-lana egiten aritu dira teknikariak, eta datorren astean abiatuko da eragileekiko lana", zehaztu dute oharrean.

Bestetik, tabernari eta merkataritari bergararrek ere inkesta digitalak jasoko dituztela aurreratu du Udalak –euren ekarpenak egin ditzaten–, eta, ondoren, saio espezifikoak egingo dituztela haiekin, beste hainbat kolektibotako herritarrekin, eta baita norbanakoekin ere, prozesuarekin jarraituz.



Irala kalea. GOIENA

Kontrasterako saioak

Urte amaierarako behin betiko ordenantza "prest egotea" aurrerikusten du Udalak, baina horren aurretik, udazkenean, "kontrasterako saio irekiak" egin nahi ditu, ordenantza zirraborroaren gainean.

Loreez ondo apainduta

Ibargarai kaleko etxe ilara bateko izkinan, gora begiratzuz gero, ondo agerian dago Bergara Loratzen lehiaketa irabazi duen balkoia.

Egiari zor, bat baino gehiago dira eraikin berean primeran apainduta daudenak, eta, horietan, azken aurreko solairukoak da lehiaketako lehen saria eskuratu duena, Ane Miren Etxebesterena.



Lehen saria eskuratu duen balkoia, azken aurreko solairukoak. J.I.



Burdinolako neskek, aurreko asteburuan. BURDINOLA

Bigarren liga onenean ariko da Burdinola

Espainiako Bigarren Mailan jokatuko dute datorren denboraldian: lehiakide izango diren hamabi taldeen gaintetik maila goreneko zortzi taldeak baino ez daude. Agustin Oianguren: "Lorpen handia da guretzat; bi denboraldi generamatzen honen atzetik"

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA 2017an sortu zen Burdinola taldea, eta orain arte Euskadiko ligan aritu eta gero, asteburuan igoera lortu eta Espainia mailako hogeitahiru talde hoberenetakoa bat bilakatu da. Bergararrek hirugarren amaitu zuten aurtengo liga, baina azken txapelketa sektorialean ligan aurretik

izan dituzten bi taldeak ere menderatu eta eurek lortu zuten igoera txartela: 7-0 irabazi zioten Zaragozako All Starsi; 3-2, Gasteizko Sumendiri; eta, penaltietan –partidua eta luzapena bana bukatu eta gero–, Bilboko Metropolitanoko taldeari.

Agustin Oianguren pozik da: "Lorpen handia da guretzat; ho-

rrer atzetik ibili gara azken bi denboraldietan, eta ezinean".

Bi seniorrekin soilik

Hurrengo denboraldian lehiari ariko diren hamabi taldeetatik lauk maila galduko dute, eta Oianguren argi du mantentzea izango da helburua: "Ez da izango erraza".



Gazteen talde mistoa. BURDINOLA

Euskadiko kopa mistoan, garaile

Gazteen Euskadiko kopa mistoa ere bere egin du Burdinolak, Metropolitanoko B taldeari penaltietan irabazita, neurketa hiruna amaitu eta gero. Bina amaitu zen lehen zatia, eta, bigarrean aurre hartuta, partidua amaitzeko berdindu zuen Metropolitanok.

Hasteko, dena den, lortutakoa disfrutatzea eta maila bat gorago jokatzeko gozatzea dagokie Burdinolako neskei. Asko aldaketa zaizkie gauzak; inguruko taldeen kontra jokatzetik, Valentziari, Madrilen, Galizian edo Katalunian jokatzera pasako dira: "Prest gaude aldaketarako. Dirua lortuko dugu alde batetik edo bestetik. Eta neskek oso pozik daude bidaiatzeko-eta, nahiago dute Bartzelonara jokatzera joan Bilbora baino".

Bergarako, Aramaioko, Arrasateko eta Sorraluzeko jokalariek

ditu Burdinolak, eta oso talde gaztea. "Seniorrak diren bi jokalaririk bakarrik ditugu; beste denak gazteak dira. Bizpahiru urtean senior bihurtuko dira gazte horiek". Gazteak zaildu bitartean mailari eustea, beraz, handia litzateke.

KLUBA PREST DAGO ALDAKETARAKO: NESKAK POZARREN, ETA DIRUA EZ DA OZTOPO IZANGO

Beste bi finaletarako sailkatzeko aukera Bergarako pilotarientzat

Etkezaretza-Rezusta Udaberri txapelketako finalerdian ariko dira eta Etxaniz-Gartzia, klubaren arteko ligakoan

J.I. BERGARA

Euskal Herriko klubaren arteko 22. urteazpikoko ligako finalerdia jokatu dute gaur arratsaldean, Lazkaoan, Etxanizek eta Gartzia, hango pilotarien kontra. "Pentsatzen dut partidua gogorra edukiko dugula, baina Etxanizek eta Gartzia, biak, ondo ibiltzen badira eta euren maila ematen badute, aukerak izango ditugu irabazteko", dio herriko taldeko arduradun Julen Aranburuk. "Partidua gogorra izango da, eta biek fisikoki eustea gakoa izango da".

Udaberri txapelketari dagokionez, berriz, Etkezaretza eta Rezusta ere ez dituzte lan errazak izango bihar goizean: "Errenteriakoak lehenengo geratu dira, eta nahiko zaila edukiko dugu. Ea Etkezaretza jokoan sartzen den eta pilotari ematen dion abiadurarekin min egiten duen". Aranburuk dio aurrelari arrasatearrek duela bikoteko giltza: "Rezusta eutsi-eta oso ondo egiten du, baina jokoari desberdintasun puntu bat Etkezaretzari ematen dio, eta hura jokoan sartzea inportantea da".



Maddi Barrocal, finalean. GEPE

Barrocal eta Bergara, galtzaile Bestetik, aurreko asteburuan jokatu ziren, Donostian, lau eta erdiko Gipuzkoako Txapelketako finalak, eta pilotari bergararrak esku hutsik itzuli ziren etxera.



Arrate Bergara, finalean. GEPE

Gazte mailan, Maddi Barrocalek 14-22 galdu zuen Antiguako Izurun klubeko Mirian Arraizaren aurka; nagusietan, berriz, Arrate Bergarak 20-22 eman zuen amore Su-Berriko Miren Larrarteren kontra.

Neska futbolariaren topaketa, Reala lagun, bihar goizean

Zapatuko 10:00etan hasita egingo dute Agorrosin neska futbolariaren aurtengo topaketa. 2007 eta 2014 artean jaiotako nesken-tzat da, eta Real Sociedad Fundazioaren laguntzarekin gauzatu da ekimena –iaz, bertan behera geratu behar izan zen–.

Hain justu ere, Realeko teknikariek entrenamendua egiteko aukera izango da topaketan; horrez gain, atezainen erakustaldia izango da, eta baita zozketa bat ere. Azkenik, Bergara eta Real Sociedad C taldeen arteko partidua ere egongo da.

Topaketan parte hartu nahi duten neskek kanpusbke@gmail.com helbidean eman behar dute izena.

"Komunitatean jarduteak bestelako onura dakar"

MAITANE BASASORO PEDAGOGOIA

Askotariko diziplinak batzen dituen Ikergazte jardunaldiak egin dituzte. Eskolako hezkuntza proiektua izan du aztergai Maitane Basasoro ikertzaile eta pedagogoa

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eskolako hezkuntza proiektuaz jardun du Maitane Basasorok (1992, Errearteria) Ikergazteren jardunaldian. Ikasle ohien bizi-penak jaso ditu eta euren parte-hartzea sustatzeko gako pedagogikoak eman ditu. Tesia aurtent borobiltzea du helburu.

Zergatik ikertu duzu Antzuolako hezkuntza ereduak?

Psikodidaktikako master amaierako ikerketa-lana Antzuolan kokatu nuen, nire tesi zuzendaria eta ikaskide bat ere Antzuolako ereduaz aztertzen zebiltzan eta. Master amaierako lan hartan ikusi nuen Antzuolako hezkuntza proiektuan ikaslea ardatza zela, eta ikaslearen ongi-zatea bilatzen zutela etengabe. Erabakiak hartzean nahiz ikaskuntza prozesuan protagonismoa zuten zantzu indartsuak zeudela ohartu nintzen.

Parte-hartzailea izan da zure ikerketa prozesua.

Bai; elkarrekin nola egin deza-kegun eta zein behar dauden ikustea gustatzen zaigu. Hala, Antzuolako irakasle eta ikasle ohiekin elkartu eta diseinua adostu nuen. Bi helburu nituen: ikasle ohien testigantzak jasotzea eta parte-hartzea iradokitzen duten gakoak identifikatzea. Bigarrenik, gako horiek egune-



Maitane Basasoro, Ikergazteko jardunaldian. M.B.

rokoan zein forma hartzen duten aztertzea izan dut xede.

28 belaunaldi elkartu dituzu.

Bai; 1974tik 2001era jaiotakoak batu nituen lehen helburua betetzeko. Zehazki, belaunaldi bakoitzeko bilera bat egin nuen, eta, hala, 28 talde-etzabaida abiatu genituen. Bigarren helburua

"EREDU HAUEK ERAKUSTEN DIGUTE ESKOLA ZERBAIT GEHIAGO IZAN DAITEKEELA"

betetzeko, ordea, behaketak egin nituen ikastetxean eta euren dokumentazioa eta publikazioak aztertu nituen. Ondoren, irakasleekin eta irakasle ohiekin talde-etzabaidak egin nituen informazioa kontrastatzeko.

Zein berezitasun ikusi diozu eredu pedagogiko honi?

Paulo Freire pedagogoa zioen justizia sozialaren alde egiten ez duen hezkuntzak egungo zapalkuntzak erreproduzitzeko joera izango duela. Alegia, eskola ikaskuntza-irakaskuntza gune hutsa baino gehiago dela eta Antzuolako ereduak bat

Eskola ereduak Legebiltzarrean

Antzuolako Herri Eskolaren proiektu pedagogikoaren auzia izan dute berba Legebiltzarreko saioan. Etorrizuna bermatzeko premia dela bertako langileen eta klaustroaren egonkortasuna azpimarratu du Ibai Iriarte EH Bilduko legebiltzarkideak. Ikasturte berrirako klaustroaren egonkortasuna eskatu du: "Pausoka guraso elkarteari eskerrak, irailero hutsetik hasi beharra duelako. Arazo estrukturala da, eta ez da soilik Antzuolako. Mugikortasunak ez du laguntzen eskola proiektua sendotzen eta garatzen. Etorrizuna bermatzeko tresnak eman behar zaizkie".

Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek adierazi du Antzuolako eskolari jarraipena egiten dihardutela: "Datorren ikasturtean 228 ikasle izango ditu eskolak, eta 25,2 irakasle; horietatik 15 karrerako funtzionario direnak, eta behin betiko lanpostua ikastetxean dutenak. Ikasturtea hasi zenetik neurriak aplikatu dira bitarteko irakasleen egonkortasuna bermatzeko. Kalitatezko proiektu berritzaileen aldeko apustua agerikoa da".

Bestalde, Eusko Jauriaritzako Hezkuntza sailburuorde Maria Begoña Pedrosa Antzuolako Herri Eskolan izan berri da eskolako egoera eta kezkak zeintzuk ziren azaltzeko. Jauriaritza EAEko ikastetxe guztiendako plan orokorra lantzen ari da eta esleipena egiteko modua ere aldatu egin duela azaldu du.

egiten duela irakurketa horrekin. Orain dela 40 urte eredu abian jartzea erabaki zutenean, hori zegoen oinarrian: hezkuntza ereduarekin nolabaiteko desadostasuna zegoen. Irakurketa horretatik abiatuta beste balio batzuk jartzen dituzu erdigunean eta eragina dute parte hartzen dutenengan eta komunitatean. Bi dira oinarriak: haurra ulertzeko modua. Lan handia egin zuten hasierako formakuntzan eta ikasleek berezko gaitasunak zituztela ikusi zuten. Eta ezagutza ulertzeko modua. Eguneroko errealitatearekin harremanetan eraikia dagoen ezagutza, hain zuzen ere. Bi oinarri horiek aldaketa asko ekarri dituzte antolatze eta jarduteko garian.

Bi oinarri horiek erdigunean jarrita parte-hartzea zuzenagoa da, beraz.

Bai, ikasleen parte-hartzea zuzena izan da. Azken batean, herri-tar gisa zure komunitatean modu aktiboan jarduteko aukera duzunean, onurak bestelakoak dira; identitatearen hedapenean, kritika eta argudiorako gaitasunean...

Hiru minutuan nolako aurkezpena egin duzu Ikergazten?

Eredu berritzaileak jasotzearen garrantzia aldarrikatzea erabaki nuen Ikergazteko nire aurkezpenean. Eredu hauek erakusten digute eskola zerbait gehiago izan daitekeela eta ikasleen parte hartze erreala bultzatu daitekeela eta eskolak modu demokratiko eta ardurasuan ekarpen aktiboa egin dezakeela. Egunerokoan gertatzen diren egoerak azaldu nituen; adibidez, ikasleak, irakasleak eta ama batek esperientziak nola partekatzen dituzten.



NIRE USTEZ

AITZOL ITURBE

Tripa barrenetik

Azpiegitura handiek suntsitutako nekazaritzarako milaka hektarea; intsinisa eta eukalipto; merkataritza-gune handiak non-nahi; lurrarekin gero eta lotura gutxiago duten baserriak; desagertutako milaka baserri; herbizidaz kutsatutako larre eta baratzeak; eskoletako-sukaldean desagertuta... Eta emaitza, Eusko Label tomatea. Eredu hidroponikoan hazia.

Tomateak lurtean partez plastikozko poltsatxoetan sartu eta elikagaiak ureztapen bidez eman. Horra hor lurrik gabeko nekazaritza. Horra hor kalitatea. Horra hor EAJren 40 urteko kudeaketaren uzta. Antzuolako EAJ, Antzuolak askoz gehiago egin beharko luke elikadura ekoizpen jasangarriko ehunaren eraikuntzan, baina hobe zenukete eskaerak

eta proposamenak eskumenak eta gaitasun ekonomikoak dauzkaten erakundeetara bideratzea: kale barrenetik, Sabin-etxe barrenera. Guk, bitartean, herrigintzan zintzo jarraituko dugu. Nekazaritzan bezala arloz arlo, sistema kapitalistaren alternatiba eraikitzen. Herriaren interesen defentsan, Neguri-barreneko eliteak nahieran jardun ez daitezten.

EH Bilduk ekitaldi politikoa egingo du bihar Herriko Plazan

Bihar, zapatua, goizeko hamai-ka eta erdietan egingo du EH Bilduk ekitaldi politikoa. Zinegotziek eta hainbat herritarrek parte hartuko dute eta bi urte-tako balorazioa egingo dute. Esti Elduaie batzarkideak, berriz, EH Bilduren hamar urteen inguruan jardungo du. Bertsoek, musikak eta hitzaldiak jantziko dute ekitaldi politikoa.



Herriko erretiratuak, Zurrategin, Iñigo Ramirez de Okarizen azalpenak entzuten. AINHOA ARANA

Erretiratuen bizipenak herriko kaleen historian

Ezohiko bisita gidatua egin dute Antzuolako kaleetan barrena. Tertulia formatua izan duen bisitak herriko erretiratuen testigantzak eta bizipenak jaso ditu ibilbidean zehar. Landatxoek antolatua, Iñigo Ramirez de Okariz historialaria izan dute gidari

Maidar Arregi ANTZUOLA

Landatxoep Erretiratuen Elkar-teak bisita gidatua antolatu du Antzuolako kaleetan zehar. Ez da, baina, ohiko bisita gidatua izan. Tertulia moduan egin dute bisita, eta, Iñigo Ramirez de Okarizek sarreratzat egin ondoren, erretiratuek gogorarazi dituzten oroitzapenak eta bizipenak izan dira protagonistak.

Hori dela-eta, datu historikoak ez dituzte ibilbidean barrena oinarri izan. "Bisita gidatuko protagonistak erretiratuak izan dira. Nik euren testigantzak eta dituzten oroitzapenak osatu ditut. Helburutako bat elkarrekintza sortzea izan da, eta bakoitzak herriarekiko dituen bizipenak azaleratzea. Bisita oso aberatsa izan da", argitu du historialari antzuolarrak.

Leku esanguratsuak

Impaktuzko aldaketak izan dituzten lekuak bisitatu dituzte. "Garai bateko Antzuola ezagutu dute eta konturatu dira euren

herriak bizi izan dituen aldaketak zeintzuk izan diren. Zurrategi plazan, esaterako, garai batean zurratzaileen lanbidea bizi izan dugu. Paisaia bat ikusi dugu, eta gaur egun desagertuta dago. Plazan, larrua ontzen zela gogorarazten digun estatua edo irudia daukagu soilik. Gu gai gara aldaketa ikusteko, baina ohartu gara belaunaldi berriak, agian, ez direla gai izango garai hartara itzultzeko. Horregatik, ibilbide honek badauka lehengo eta gaurkoa uztartzeko balioa", adierazi du Ramirez de Okarizek.

Ibilbidean zehar, Kalebarrenen geldialdia egin eta Amparo Arregik gogora ekarri du familiak uztarriak nola egiten zituen: "Kalebarrengo gure familia

**ERRETIRATUEK
KALERA IRTEN ETA
PARTE HAR ZEZATEN
NAHI IZAN DU
LANDATXOPEK**

etxeak oso antzinakoak dira. Zehazki, nire aitajaun Jose Arregiren osabarena Domingo Antonio Arregi uztargilearena zen. Kanpotik ere etortzen ziren mutil gazteak uztarriak egiten ikastera. Nire aitajauna Arrasate baserrikoa zen, eta, osabak ez zeukanez ondorengorik, seme gisa hartu zuen nire aitajauna eta uztargile ogibidea erakutsi zion. Horregatik gara uztargileen familia Antzuolan".

Herria ezagutzeko saioa

Landatxoep elkar-teak dio antolatutako bisita herria hobeto ezagutzeko asmoz egin dutela. "Urtero ekingintza ugari egiten ditugu; baina herria ezagutzeko lehena izan da. Aurten, COVID-19a tarteko, ezin izan dugu kanpo irteerarik egin, eta bisita gidatu hau iaz egitekoak ginen. Urtebete egon gara geldi, eta erretiratuek kalera irten eta parte har zezaten nahi izan dugu", azaldu du elkarteko zuzendari-tzako kide Jose Mari Iturbek.




ARROLA

Mendi-seinale berriak, gertu

Arrola Mendizale Taldeak GOIENari jakinarazi dio beste mendi-bide batzuen seinaleak ere gertu dituela. Zehazki, herriko arotzak beste bi seinale berri egin ditu –argazkian horietako seinale bat dago–. Hala, Korosoko iturria, Urkillu, Pagamendi, Lizarraga eta Ogeiturrirako mendi-bideak laster jarriko dituzte.

GORA ETA BEHERA



Gorotzak Ibarrodo auzoko lorategian



Herritar batek ohartarazi du, noizbehinka, Ibarrodo auzoko lorategiaren inguruetan gorotzak egunkari orrietan bilduta azaltzen direla.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Galeano ahizpek finala jokatu dute Uharte Arakilen

Domekan jokatu dute pilota goxoko gazteen kategoriako finala Nagore eta Leire Gleanok. Uharte Arakilen izango da aurtengo Nafarroako txapelketako finala. Antzuolarrak txapelketa bikaina egin dute eta finalurreko partida aise garaituta iritsi dira finalera. Leire Oscoz eta Erika Alvarez bikote indartsua izango dute aurkari.

Botikak ordaintzeko dirulaguntza pentsiodunendako

Urteko errenta 18.000 euro baino gutxiago duten pentsiodunek egin dezakete botikak ordaintzeko dirulaguntza eskaera. Ekainaren 22an eta 23an Landatxoepko bulegora jo daiteke (17:00-18:00). Lehen aldia dutenek kontu korronteko titularraren ziurtagiria, nortasun agiria eta Osakidetza txartela eraman beharko dute eskaera egiteko.



Herritar bat Elgetako osasun zentrora sartzen. ARTXIBOA

Gero eta kontsulta ordu gutxiago

Hilabeteak dira pediatria kontsultarik ez dela herrian. Orain, gainera, kontsultatik falta da medikua hamabostean behin egun batez. Elgetarrak beldur dira behin-behineko neurriak betikotzearekin. Egoera koiunturala dela esan dio alkateari Osakidetzak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Hainbat elgetar kexu dira hilabeteak direlako pediatria kontsultarik ez dagoela herrian, eta azaldu dute hasi direla murrizketak barne medikuaren arreta orduetan ere. Konturatuta daude gaixotasun-bajak edo baimen egunak heltzen direnean Osakidetzako arduradunek ez dutela Elgetarako ordezkorik jartzen. Azkenaldian, gainera, eguenetan hamabostean behin falta da medikua Elgetatik, Bergararik egiten duelako lan.

Hainbat erabiltzailek zerbitzu murrizketa moduan ulertzen dute kontsulta orduak gutxitzea, eta beldur dira behin-behineko neurriak denborarekin behin betikotzearekin.

Xalbadorpe erretiratuen elkarteko arduradunek, esaterako, adineko pertsonen egoera azpimarratu dute. Askorendako

nabarmen zailtzen du eguneroa Bergarako osasun zentrora joan-etorriak egin beharrak.

Pediarraren kontsulta ere aspaldian etenda dagoela azaldu du bi mutikoren gurasoa den Maialen Arnedok. "Lehen, astean behin etortzen zen pediatria, eguenetan, eta ohiko osasun azterketak egiteko izaten zen. Une honetan bajan da, eta ez dago ordezkorik", esan du.

Hala, kontsulta orduak ez gutxitzea eta pediatria kontsultak berriz jartzea eskatu dute. Adi egongo direla ohartarazi dute, eta behin-behinean hartutako


ERABILTZALEEK MURRIZKETA GISA ULERTZEN DUTE KONTSULTA ORDUAK GUTXITZEA

neurriak izatea espero dutela. Ez dute nahi zerbitzua poliki-poliki murrizten joatea.

GOIENA jarri da harremanetan Debagoieneko ESiko ordezkariarekin, baina ez du, oraingoz, erantzunik jaso.

Egoera koiunturala

Gaiaren inguruan galdetuta, Iraitz Lazkano alkateak esan du etengabeko harremanetan dagoela bai kontsultako medikuekin zein erizainarekin bai Debagoieneko ESiko ordezkariarekin. "Esan digutena da Osakidetzak duen pertsonal arazo itzela dela eta Elgetako medikua ari dela beste mediku baten baja estaltzen. Hainbat medikuren artean ari dira baja hori estaltzen. Horregatik falta da bi astean behin egun batez". Behin-behineko egoera dela azaldu du Lazkanok. "Esan digute egoera




L.Z.L.

"Medikua zeharo esentziala da"

PELLO OJANGUREN
ERRETIRATUEN ELKARTEA

Erretiratuen elkarteko presidentek Elgetako adineko pertsonak ditu bereziki gogoan. **Garrantzitsua da zerbitzua mantentzea?** Medikua Elgetan zeharo esentziala da. Kenduko balute, Bergarako zentrora joan beharra edukiko genuke, eta denok ez dugu aukera hori. Adin batetik aurrerakoek beti ibili beharko genuke laguntasuna eskatu beharrean. Egun bat hamabostean behin ez dela medikua egongo... Baina hori hasieratxo bat izango litzateke, akaso. Nire ustez, arazoak badaude, beste nonbaitetik topatu beharko litzukete soluzioak arduradunek. Herri txikia izango da Elgeta, baina baditu milatik gora biztanle eta mediku zerbitzua zeharo garrantzitsua da.



L.Z.L.

"Ez du inork azalpenik ematen"

MAIALEN ARNEO
GURASO BAT

Bi mutikoren gurasoa da. Eskatzen du pediatria zerbitzua berriz jartzeko. **Zer gertatzen da pediatria arretarekin?** Orain hiru urte dituen semearekin aukera izan genuen osasun azterketak Elgetan egiteko. Eguenetan bakarrik eta osasun azterketak bakarrik egiteko etortzen zen pediatria. Horrekin konformatu behar izaten genuen. Orain, ordea, ez dugu aukera hori ere izan. Pediatria bajan dago, eta, ordezkoa bidali beharrean, Bergarara bideratzen gaituzte zuzenean. Hasieran, pentsatu genuen salbuespen egoera bat zela, baina denbora aurrera doa eta ez du inork inongo azalpenik ematen. Bi hilabete ditu semeak. Bestetik, hiru pediatrik artatu gaituzte, eta bi ez dira euskal hiztunak.

koiunturala dela, eta ez dela inondik inora zerbitzu murrizketarik gertatuko. Dena den, ganean egongo gara bermatzeko hori horrela izan dadin eta herrian zerbitzua egon dadin medikuaren zein erizainaren ordutegirik murriztu gabe". He-

IRAITZ LAZKANO:
"ESAN DIGUTE KOIUNTURALA DELA, ETA EZ DELA IZANGO MURRIZKETARIK"

rritarrak kezkatuta egotea normalizat jotzen du: "Kutxabanekin ikusi dugu nola halako zerbitzu murrizketa txikiek ekarri duten, azkenean, bulegoaren itxiera, baina Debagoieneko ESitik garbi esan digutena da ez dagoela halako asmorik".

Pediarrarekin arazoa potoloa-goa dela uste du. "Bere garaian, arazoak izan genituen, euskalduna ez zelako, eta orain, denboraldi bat da falta dela. Debagoieneko ESikoek esan digutena da espero dutela irailerako berriz hastera pediatria zerbitzua".

COVID neurriekin bada ere, udalekuak martxan

Astelehenean zabalduko ditu ateak Elgetako udaleku zerbitzuak. Bost astez askotariko ekintzak egingo dituzte bertan. Zazpi taldetan banatuta 69 neska-mutiko hartuko ditu aisialdi eskaintzak, eta bederatzi hezitzailek osatuko dute lantaldea

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ekainaren 21etik uztailaren 23ra emango du aisialdi eskaintza aurten Udalak. Hezitzaile taldea eguazten iluntzean elkartu zen erabiltzaileen gurasoekin, zerbitzuaren funtzionamenduaren nondik norakoak azaltzeko.

Ezinbestean, pandemia egoerara egokitutako eskaintza izango da, eta, Eusko Jaurlaritzaren dekretuak markatutakoak betetzeko, Udalak handitu egin du hezitzaile taldea. Bederatzi hezitzaile izango ditu zerbitzuak, eta ordezkari bat dago izendatuta, badaezpada.

Udalekuen aurtengo gai ardatza euskal mitologia izango da. Taldeen izenak, esaterako, izango dira Galtzagorri (HH2), Mari (HH3), Tartalo (HH4), Akerbeltz (HH5), Gizotso (LH1), Ortz (LH2) eta Lamiak (LH5). Galtzagorriekin Nerea Erdabide eta Uxue Larrea egongo dira, Mari taldekoekin Paula Palacios eta Ane Ugarteburu. Tartalo taldeko arduraduna Jone Elkoro izango da, Akerbeltz taldekoa Nerea Villa. Gizotsoez Sara Ugarteburu arduratuko da, Ortz taldeko neska-mutikoez Eider Ormaetxea eta Lamiak taldekoek Mikel Canelo. Koordinatzailea Nerea Villa izango da.

COVID protokoloa

Eusko Jaurlaritzaren dekretu jarraituz COVID egoerak markatutako udalekuak izango dira. Hain zuzen ere, COVID protokoloa banatu zitzaientz gurasoei. "Gehienez ere, hamar laguneko taldeak egin daitezke; horregatik, bi taldetan banatuta egongo dira bai Galtzagorriak bai Mari taldeko umeak. Egoera normalean nahikoak izango ziren lauzpabost hezitzaile, baina bederatzi beharko dira aurretan", esan zuen aurkezpenean Nerea Villa koordinatzaileak. "Zehatz-mehatz jarraituko dugu protokoloa. Taldeak banatuta



Udaleku zerbitzuan hezitzaile lanak egingo dituzten bederatzi lagunak. L.Z.L.

TALDEAK BANATUTA EGONGO DIRA, ETA BAKOITZAK EKINTZAK EGITEKO BERE ESPAZIOA IZANGO DU

egongo dira, eta bizikidetzat taldeak izango dira".

Gurasoei hainbat eskakizun egin zitzaientz: "Edozein sintomaren aurrean, mesedez, ez bidali umea udalekuetara. Bestetik, goizean tenperatura hartuko diegu, eta 37,5 gradu emanez gero ezingo dira sartu. Horregatik, ez joan umeari tenperatura hartu diogula ziurtatu arte".

Halaber, neska-mutikoren baten sintomarik agertuz gero isolatze-gelara bideratuko dutela adierazi zuten. "Ez da bakarrik egongo. Hezitzaile batekin egongo da une oro, gurasoak abisatu eta bila etorri bitartean. Hori bai, lehenbailehen etortzeko eskatzen zaizue".

Informazio praktikoa

Sarrera ordua 09:00ak da HH2-HH5 tarteko umeendako. Irteera ordua, berriz, 13:00ak. Aldiz,

LH1-LH5 arteko umeak 09:10ean sartuko dira, eta 13:10ean irten. "Frontoi zaharra izango da sarrera-irteerak egiteko puntua. Talde bakoitzak markatuta izango du dagokion lekua". Haur bakoitzak, bestetik, etxetik eraman beharko ditu hamarretakoa eta ura. Ur jolasak edo berezia den edozein jarduerarako jantzi egokiak ere bai. "Ezin da ezer partekatu", azaldu zuen.

Ahalik eta ekintza gehienak aire zabalean egingo dituzte. Galtzagorriek frontoi zaharrean, Mari taldekoek Maalan, Tartalo taldekoek ludotekako parkean, Akerbeltz taldekoek eliza ondoko parkean, Gizotso taldekoek San Roke ostean, Ortz taldekoek Bolatokian eta Lamiak taldekoek Salbadorren. Eguraldi txarra dagoenerako, berriz, eskola izango da aterpe nagusia. Bizikidetzat taldeak errespetatuz txikiak beheko solairuan egongo dira, eta gainerakoak 3. solairuan zein ganbaran. Frontoi eta kafe antzokia ere erabilgarri izango dituzte. "Difusio taldeen bitartez komunikatuko gara. Garrantzitsua da nork bere hezitzailearen telefono zenbakia kontaktuetan sartzea", esan dute.



Ikasturte amaierako ur jolasak bost urteko gelako neska-mutikoendako. HERRI ESKOLA

Irailera arteko oporrak hartuko dituzte eskolako umeek gaur

Pandemia egoera dela-eta ez da ikasturte erraza izan, baina balorazio positiboa egin dute irakasleek

L.Z.L. ELGETA

Ikasleendako beti da berezia ikasturteko azken eguna, eta gaurkoa ere hala izango da. Aurreko egunetan, eta adinaren arabera, ipuin saio bereziak eta ur jolasak izan dituzte ikasleek. Gaur, barikua, jardunaldi trinkoa izango dute eskolan, eta egitarau berezia gertatu dute elkarlanean irakasleek eta guraso elkarteak kideek. *Altxoraren bila*, *Escape room* eta askotariko tailerrak izango dituzte goizean umeek, eta ikastetxean bazkalduko dute guztiek. Makarroiak, haragi-bolak eta izozkia dituzte menuan HHko ikasleek; ogitartekoa eta izozkia, berriz, LHkoek, kanpo espazioetan eta talde egonkorrek mantenduz.

Ikasturte berezia

Pandemia egoeran egindako ikasturteak esfortzu handia eskatu du, baina balorazio positi-

boa egin dute zuzendaritza taldeko kideek. "Helburua zen irakaskuntza presentziala lehenestea, eta posible izan da", azaldu du Libe Inurrigarro zuzendariak. "Konfinatuta egon zen bigarren mailako taldea, eta nagusien taldean ere etxean egon zen taldetxo bat, baina, gainerakoan, bete egin da helburua. Beste antolaketa bat eskatu du ikasturteak, eta egokitu beharra izan dugu, baina txalotzekoa izan da ikasleen jarrera. Primeran egokitu dira. Irakasleen zein familien jarrera ere txalotzekoa izan da. Elkarrekin egin du lan komunitate osoak. Eskertzekoa da, benetan".

Hurrengo ikasturtea prestatzen hasita daude ikastetxean. "Jaso dugu lehen protokolo bat eta herenegun izan genuen bilera Donostian. Hurrengo ikasturte hasiera nahiko antzerakoa izatea aurreikusten da".

Eskolako jangela eredu eraldatzeko taldea sortu dute

Zazpi bat lagun elkartu dira, asteon, gaia bultzatuko duen talde eragilea sortzeko. "Udala ere prest azaldu da prozesuan laguntzeko", azaldu dute. Gurasoak dira gehienak, eta deialdia egin dute esanez beste inor animatuz gero zabalik dituztela ateak. Interesatuak guraso elkarte ordezkariekin jar daitezke harremanetan.

OHARRAK

Saskibaloia saioa

8-11 urte bitarteko neska-mutikoendako saskibaloia saioa gaur, 18:00etan. Izena emateko: 688 62 83 96.

Podologoia

Erretiratuendako podologo zerbitzua hilaren 21ean izango da. Txanda hartzeko, deitu 667 80 70 06 telefono zenbakira. Derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea.

Oihana Elortza OÑATI

Onaro du izena Oñatiko telekomunikazio operadoreak, Udalak sortutakoa da eta Internet eta telefono finko eta mugikorra eskaintzen ditu. "Argia eta ura bezala, oinarritzko zerbitzua da Internet, eta herritar guztien-gana iristea da gure nahia, eta geuk eskaintzea zerbitzu hori. Argindarraren esperientzia bagenuen, eta adibide horrekin eta oinarritzko zerbitzu hau ere tokikotik eskaintzeko gai gela ikusita hasi ginen Onaro sortzen. Aho batez hartu genuen erabakia eta buru-belarri aritu gara martxan jartzeko", esan zuen proiektuaren aurkezpena hasteko Izaro Elorza alkateak.

Zerbitzu integrala da

Internet Oñatin noraino eta nola heltzen zen ikusteko azterketa egin zuten lehenengo, eta landagunean, adibidez, 210 eraikinek banda zabalik ez dutela ikusi; herrigunean ere bai, erakin eta auzo edo gune bat baino gehiago. Eta egoera horiei irtenbidea nola eman aztertuta, bi sistema ezberdin erabili dituzte banda zabala ahalik eta herritar gehiengana heltzeko. "Landagunean, esaterako, Belarren eta hilerrian jarritako supernodei esker, eta irrati lotura erabiliz, 30/30 MB zerbitzua erabili ahal izango dute lehen ez zuten eraikinen %85ean, eta ahaleginak egiten jarraituko dugu gainerakoetara ere heltzeko. Zerbitzu horren prezioa 25 eurokoa litzateke hileko, gutxi gorabehera, eta hiru gehiago lehengo zenbakia mantentzen duen telefono linea finkoarekin", Xabier Igartuak azaldu zuenez. Izan ere, zerbitzu integrala ematea garrantzitsua dela uste du Udalak, eta, Internetez gain, telefono finko eta mugikorra ere eskaintzen ditu Onarok.

Herrigunera begiratuta, toki askotan zerbitzu integrala emateko moduan dago Onaro. Kasu honetan, zuntz optiko simetrikoaren bitartez eskaintzen du zerbitzua; hau da, abiadura berean nabigatu eta egin daitezkeela deskargak saretik. Azken teknologia erabiliko du zerbitzuak, eta zuntza etxeraino heldu. "Orain beste azpiegiturak erabilita zerbitzua eman dezakegu, baina gure erronka da geure zuntz sarea egin eta eskaintzea. Argiaren kasuan, sor-kuntza, banaketa eta merkatu-



Anjel Biain, Izaro Elorza eta Xabier Igartua, eguazten iluntzeko aurkezpenaren ostean. IMANOL SORIANO

Onaro: argindarraren bidetik heldu den Oñatiko operadorea

Internet eta telefono finko eta mugikorra eskaintzeko telekomunikazio zerbitzua da Onaro. Oñargiren zuntza eta Orangeren antenak erabiliko ditu zerbitzua emateko, eta etxeetaraino helduko den zuntz sare propioa hedatzea du helburu

ratzea ere egiten dugu. Ikusi dugu transformazio zentro pilo bat ditugula herri barruan konektatuta zuntz optikoz. Ikusi dugu zuntz zati bat ez dela erabiltzen, eta hori erabili eta etorkizunean hedapena egin gurako genuke, Internet zerbitzua eskaintzeko. Momentu honetan, herri barruan zabaldua dauden zentroetara heldu gara, eta gure zuntz propioa hortik etxeetara helduko litzateke". Igartuak gaineratu zuenez, "iruzur barik" eskainiko du zerbitzua Onarok: "Beste konpainia batzuetako faktura errealetan ikusi dugu, esaterako, 300 MB-ko abiadura kobratu eta 29 MB / 49 MB ematen dutela".

Herritarrek badituzte kezak

Pandemia hasierako itxialdian, Internet zerbitzurik ez zuten herritarrei, batez ere ikasleek ikasketak jarraitzeko, zerbitzua eskaini zien Udalak Izarkom kooperatibaren laguntzarekin, eta orain ere gabezia hori konpondu gura du zerbitzu honekin. "Lehentasuna izango dute behar handien dutenek. Landaguneetako azpiegitura prest dago, esaterako, eta handik hasia da asmoa, baina herrigunea ahaztu barik", Igartuaren esanetan.

Hain zuzen ere, auzoetara nola eta noiz iritsi eta orain arte egingakoekin zer gertatuko den galdetu zuten eguazteneko aurkezpenean hainbat auzotarrek. Arantzazun eta Araotzen, esaterako, hainbat antena edo aparailu jarri dituzte baserrietan Internet zerbitzua izateko, eta orain, horiek zerbitzu honekin bateragarriak diren edo ez aztertu beharko dute, edo baloratu irrati loturak erabili gurago dituzten aurrerantzean. Baita baserri baten ere zein obra edo zer egin behar duten Onaro jartzeko. "Baserriz baserri aztertu beharrekoa da hori. Guk antenak eta routerrak lagapenean utziko genituzke, baina ez gara ausartzen obraren prezio finko bat jartzen. Etxe batzuk beste batzuk baino handiagoak dira eta lan gehiago egin behar da; prezio finkoa jarri gero, azkarrago egingo luke lan langileak, eta, agian, ez litzateke egoki geldituko. Beraz, gure proposamena da norberak egitea bere baserri edo eraikineko proiektua, beharrek zeintzuk diren ikusita, eta herriko elektrikari batekin batera egitea obra. Izan ere, herri-

Komunitatearekin batera

Onaro telekomunikazio operadorea dagoeneko martxan dago eta erabili daiteke. Hau da, gura duenak eskatu dezake bere Interneteko edo telefonoko zerbitzua Onarok ematea eta Onarok fakturatzea.

Xabier Igartua zinegotziak eguazteneko aurkezpenean azaldu zuenez, 100 MB-ko abiadura duen eskaintza hartzea da gomendioa. "Ikusi dugu askok agindutakoa baino gutxiago ematen dutela eta 100 MB nahikoa direla etxe baterako. 30 bat euro litzateke horren hileko prezioa, gutxi gorabehera, telefono finkoa barne. Baina nork bere tamainako eskaintza modulatu ahal izango du, mugikor kopuruaren edo linea finkoaren arabera, adibidez. 600 MB-ko abiadura aukera ere badago".

Ekainaren 30ean bilera irekia Oñargiren bidez herrian dagoen zuntz optiko sarea herri osora hedatzea eta zerbitzua zuntz sare propioarekin ematea da



Onaroren SIM txartela. ABAO

helburua. "Hori komunitatearekin egitea da gure asmoa. Oñatiko aztarna digitala kontsultatu ahal dezakegu, eta hor ikusi herriko zein gune, kale edo eraikinetan zuntza dagoen edo ez, adibidez. Ez dagoen tokietara heltzeko bidea eta obra herritarrekin batera egitea da gure planteamendua, zuntza etxeraino eramateko egin behar den inbertsioa norberak bere gain hartzea, uste dugulako gero Internet prezio merkeagoan emateko modua egon

daitekeelako. Gure sare propioetik asko jaitsi daiteke tarifa, eta urtebetean egon daiteke amortizatuta gastu hori".

Sortutako zerbitzu honek Oñargiren bulegoan emango dio aurrez aurreko harrera herritarri, Bidebarrieta kalean, portabilitatea aldatzeko edo zalantzak argitzeko, adibidez. Dena dela, hilaren 30ean, 18:00etan, kultura etxean, saio irekia egingo dute proiektu honi buruzko azalpenak emateko.


tik eta herritarrendako proiektua da hau, eta herriko elektrikari, informatikari edo bestelako langileak ere sartzen dira eta diru hori ere herrian geldituko litzateke. Formakuntza eskainiko diegu profesional horiei", azaldu du Igartuak. Aurretik beste operadore batzuek egindako lanekin baserri batzuetan bai eta beste batzuetan ez dutela-eta, orain horrek konponbiderik duen ere bazen beste auzotar baten kezka. "Horrelako konpainia handiek beste interes eta helburu batzuk dituzte. Egindako lan guztietan dirulaguntzak jaso dituzte, eta ez dute konpromisorik zerbitzua eskaintzeko. Herriko proiektuek duten balio bat da hori", Elorzaren erantzuna.

Herrigunean zabalduta dagoen zuntzaren inguruan, Igartuak azaldu zuen landagunean Mo-

vistar-ek zabaldu duen moduan, herri barruan Masmovil-ek egin duela hori. "Baina San Martinen ez dago, eta Olakuako gune batzuetan ere ez. Gure asmoa izango litzateke auzotarrek in batera egitea lan horiek, bestela ezingo gara toki guztietara azkar heldu. Interesa baldin badugu, goazen elkarrekin egitera".

Orangeren antenak

Telekomunikazio operadore izaera ere bere gain eroango du hemendik aurrera Merkaña argindar merkaturatzaileak, eta berak hartuko du Onaroren zerbitzua. Gainerako operadoreek erabiltzen dituzten antenak erabiliko dira, Orangerenak kasu honetan, eta Euskaltelen estaldura bera eskainiko du Onarok, Oñatiko telekomunikazio operadoreak.



Pollangua baserrian jarritako Onaroren antena. ABAO

Proba pilotuak egin dituzte

Onarok funtzionatzen duen edo ez jakiteko hainbat proba pilotu egin dituzte, landagunean zein herrigunean. Larraña auzoko hiru baserrian egin dute proba, adibidez; horietako bat Pollangua da. Bertako Belen Anduagak kontaktu duenez, hilabetez egon dira Onaro erabiltzen, eta hobekuntza igarri dute: "Seinalea ez da eteten orain. Lehen, lanean ari nintzen bitartean, adibidez, etenak izaten zituen seinaleak, baina orain, berriz, ez. Abiadura ere azkarragoa da orain".

Euren etxean proba egiteko proposamena jaso zuten Udaletik Anduagaren etxean, eta baiezkua eman zuten: "Araozak genituen sarearekin. Auzotarren artean eta auzo-alkatearekin ere hitz eginda genuen horri buruz, eta proba egitea erabaki genuen. Semeak, gainera, dagoeneko erabiltzen du. Sakelakoa du berak; lehen, dei mugatuak zituen, eta, pasatuz gero, asko ordaindu behar zuen. Orain, dei mugagabeak ditu eta prezio ona, lehen baino gutxiago ordaintzen du. Internet ondo erabiltzeko ez duela batere arazorik dio. Pozik dago". Herrigunean egindako probak abiadurarekin du lotura. "Beste konpainia bat kontratatuta zutenekin egin ditugu herriguneko probak. Konpainia horiek abiadura jakin bat eskaini eta kobratzen zieten, baina agindutakoa eta ematen ziotena ez zirela berdinak ikusi da", azaldu du alkateak, Iزارo Elorzak.

Ur uhinen parkean ere freskatu ahal izango da

Bihar, zapatua, zabalduko dute ur txorroten parkea, iazko neurriekin, txanda aurrez hartuta; Zubikoako solariuma eta terraza, datorren astean. Fitness gela datozen egunetan egongo da erabilgarri, baina uztailleko ikastaroetako izen-ematea zabalik dago

Oihana Elortza OÑATI

Usakon joan den asteburuan zabaldu zuten bainu denboraldia eta datozen egunetan, bihar, zehazki, udako beste gune bat zabalduko dute: ur uhinen parkea. Zubikoako kiroldegiko solariuma eta terraza, berriz, datorren astetik aurrera egongo dira erabilgarri.

Hiru ikastaro egongo dira

Igerilekuak urte hasieratik daude zabalik, baina kanpoko eremuan prestatutako solariuma eta terraza datorren astean zabalduko dituzte, bainatu ostean, esaterako, eguzkia hartu gura dutenentako. Fitness gela ere laster egongo da erabilgarri eta uztaillean bertan emango dituzten ikastaroetako izen-ematea zabalik dago dagoeneko. Eskainiko dituzten ikastaroak dira: zintzilik dagoen eta hainbat altueratan beso moduko batzuk dituen oihal batean egiten den aeropilatesa, muskuluak egon-



Ur uhinen parkean. IMANOL SORIANO

kortzeko egokia den Trx entrenamenduak eta makilekin ibiltzeko *nordic walking* teknika.

Uztaillean izango dira ikastaro horiek, hamar eta hamasei laguneko taldeetan. Izena emateko epea ekainaren 21ean buka-

tzen da. Kiroldegira bertara joanda eman daiteke izena. Bakoitzak bere toalla eta ur botila eramane beharko du.

Aurrez hartu beharko da tokia

Ur uhinen parkean ere COVID-19a prebenitzeko osasun jarraibideak beteko dituzte, eta joan den urtean hartutako neurriak hartu. Hala, 22 pertsona egon ahal izango dira, gehienez, batera, eta aurrez hartu beharko da txanda. Egoteko txanda ere mugatua izango da, 30 minutuko. Ordutegia hauxe izango da: 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

Usakora, bestalde, egunean birritan joango da herribusa aurten ere: 16:00etan eta 19:30ean Ugarkaldetik irteten diren autobusak, hain zuzen ere. Zerbitzu hori uztailaren 30era arte egongo da. Abuztuko lehen hiru asteetan goizez bakarrik ibiliko da herribusa, eta, beraz, ez da Usakoraino iritsiko.

Eskola kiroleko azken jaia egingo dute gaur Larrañako aretoan

Ikasturte amaierarekin batera ospatuko dute aurtengo Eskola Kirolaren azken jaia. Gorabeherak tarteko, LH1 eta LH5 bitarteko ikasleek egin ahal izan dute aurten ere Eskola Kirola eta kurtso amaierako ospakizun ekitaldira daude gonbidatuta guztiak, maila bakoitzeko 100 bat ume. Eskola Kirolaren ardura duen Rosa Lasagabaster udal teknikariak azaldu duen moduan, gaur, egubakoitza, izango da azken jaia Larraña institutuko areto nagusian, 15:00etatik 20:00etara bitartean. Mailaka hartuko dute parte eta ume guztiek oparixko bana jasoko; aurretik, baina, ikuskizun bat ikusiko dute.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Derrigorrez

Oraindik orain pandemian baitan gaudela, eta nahiz eta egoera honen amaiera zerbait gertuago ikusten dugun, azken hamabost hilabeteetan bizi izan dugunak aurrean zehar ere, gogoeta asko ekarriko ditu. Horien artean, eta besteak beste, soziologikoek: hau da, gizarte bezala nola funtzionatu dugu, zeri garrantzia eman diegu, gure arteko lotura non datzan.

Ni nahiko harrিতuta nago zein nabarmen gelditu den (XXI. mendean) araudiak derrigorrez eta zigorrez ezartzen ez badira, eta gure ona ekarri nahi duten neurriak, gomendio hutsak bihurtzen direnean, zein modu errazean alboratu izaten ditugun. Inozokeria nirea, zeren trafikoa eta beste gizarte zereginetan ere, postura berbera lehen ere nabarmen zen, baina...

Immanuel Kant filosofoak zera zion: gure baitan gizaki etikoak izateko, zigor guztien aurretik "agindu moral bat" daramagula denon ona nirea bezala hartzera behartzen naueni.

Ilustrazioak, arrazoiaren bidetik giza jokabide zintzo eta osoa deskubritu zuen. Oraingo batzuen jarrerak ikusita, infernuaren zigorra goizegi jubilatu dugula dirudi.

Musika eskaintza da nagusi udako agendan

Maite Larburu, Maren, Noa Elvis, Ganbara eta Hots abesbatzak eta herriko musika banda dira emanaldiak egingo dituztenetako batzuk. Doan izango dira ekitaldi guztiak eta gonbidapenak bihar, zapatua, jarriko dituzte eskura ohiko tokietan

Oihana Elortza OÑATI

Musika izango da nagusi bigarren aldiz *Esk-ult-ura Kultura Eskura* izenarekin udalak prestatu duen udako kultura agendan, baina magia eta zirku ikuskizuna ere egongo da familian gozatzeko. Azken urteetako ohiturari jarraituz, irailaren hasieran izango da hori, Bidebarrieta auzoko jaiekin bat eginez.

Musika eskolako ikasleen emanaldiak emango dio hasiera, astelehenean, udako kultura agendari, 19:00etan Lazarragan egingo duten emanaldiarekin. Ganbara eta Hots abesbatzek eta herriko musika bandak ere egingo dituzte emanaldiak. Kan-



Olalde eta Meabebasterretxea, udako kultura agenda aurkezten. O.E.

potik etorriko direnen artean daude, bestalde, hiru emakume hauek: Maite Larburu, Maren eta Noa Elvis.

Lazarraga lorategian gehienak

German Meabebasterretxea Oñatiko Udaleko Kultura teknikariaren esanetan, herriko espazio ezberdinetan egin izan dira urteetan udako kontzertuak, baina pandemiak hori moldatzea ekarri du eta aurten Lazarraga lorategian izango dira gehienak. "Ahalik eta jende gehienendako izatea da gure asmoa, baina egunean eguneko osasun araudia beteko dugu, eta horrek ekar dezake edukiera mugatzea. Baita distantziak hartzea, eskuak gelarekin garbitzea eta maskarak erabiltzea ere", gaineratu du Oñatiko Udaleko Kultura zinegotziak, Iñaki Olalde.

Urmuga egitasmoaren barruan, Et Incarnatus orkestra, Alex Sardui, Petti eta Maider Zabalegi izango dira uztailaren 18an plaza ondoko frontoian. Urmuga mendi ibilaldi musikatuak Euskal Herri zeharkatuko du datorren uztailaren 13tik 31 (Ikus 57. orria).

Larru Beltzak taldeak birritan joko du bihar Antixena parkean

Apirilaren 10ean eta 11n gazte-txean egin behar zituen kontzertuak bihar, zapatua, egingo ditu Larru Beltza taldeak Antixena parkean. Birritan joko du: apirilaren 10erako sarrerak 17:00etako kontzerturako izango dira eta 11koak, 18:30eko emanaldirako. Eurria eginez gero, berdu-ra plazan egingo dituzte emanaldi biak.

Musika, bertsoa eta dantza 'Hauspotu bizitza!' jaialdian

Herriko trikitilarien, bertsolarien, musika ikasleen eta dantzarien artean osatutako ekimena da *Hauspotu bizitza!* Ekainaren 26an egingo da, Santa Ana antzokian, eta, doan izan arren, aurrez hartu beharko dira sarrerak: plazan banatuko dituzte hilaren 25ean 18:00etatik 19:00etara eta egunean bertan 11:00etatik 12:00etara.

DEBAGOIENEN

PROFESIONAL LIBERALAK

<p>ABOKATUAK</p> <p>BERNARDINO MAIZTEGI BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>BEGOÑA LASAGABASTER ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A Tel.: 943 79 98 86 / Faxes: 943 77 01 08 blasaga@conet.es</p> <p>RAFAEL ARANBURU BERGARA / Irizar 5 Tel.: 943 76 10 81</p> <p>AHOLKULARITZAK</p> <p>ANDRA MARI AHOLKULARITZA ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea Tel./Faxes: 943 79 29 26 andrama@arrakis.es</p> <p>ALBERDI ASESOREAK BERGARA / Matxiategi 36 Tel.: 943 76 90 83</p>	<p>ARKITEKTOAK</p> <p>BIARK ARKITEKTOAK ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea Tel.: 943 79 80 33 www.biark.net</p> <p>LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA Arkitektoa eta tradesperson formazioa Tel.: 636 89 92 11 larraitz.arkiestudioa@gmail.com</p> <p>ETXE ADMINISTRATIOAK</p> <p>URIBESALGO ADMINISTRATIOAK ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea Tel.: 943 79 51 25 uribesalgo@uribesalgo.es</p>
--	---

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



ZUK ERE %100 EMAN DUZULAKO...

GOIENA TELEBISTAK INOIZKO DATU ONENAK

11.000

IKUSLE

11.000 lagunek ikusten dute egunero Goiena telebista,
CIES erakundearen audientzia neurketen arabera.
Tokiko telebisten artean ikusiena da Gipuzkoan.

Eskerrik asko guztioi.



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!
▶ 🍏

goiena

Zu hemen zaude.



Beñat Rezusta, iazko buruz burukoa jokatzeko kanporaketa partiduan. GOIENA

"Buruz buruko final bat jokatzera kristorena da"

PILOTA Iñaki Artola domekako finalerako garaiz errekuperatu ez, eta bergararrak beteko du haren lekua. 2008a ezker ez da atzelari bat finalera iritsi: "Denok dakigu Altunak zenbat jokatzeko duen, baina ni ere entrenatzen ibili naiz; aukera ederra dut"

Xabier Urzelai ARRASATE

Finalera lagun baten lesioa tarteko iritsi izana ez da inoren gustuko, ezta Beñat Rezustarendako ere (Bergara, 1993). Baina halakoak eliteko kirolaren parte ere badira, eta bergararrari inork ez dio ezer oparitu, buruz burukoan sekulako maila eman eta gero iritsi zaio finala jokatzeko aukera, eta aitortu du

Artolak erabakia hartzeko izan dituen bi aste hauetan lasai egon dela: "Azken batean, erabakiaren zain egon behar izan dut, baina lasai entrenatzen ibili naiz, eta, alde horretatik, etxeko lanak ondo egin ditut, ez dago inongo aitzakiarik. Sasoi honetan ez ditugu partidu asko izaten, eta entrenamenduetan zentratzeko tarteak izan dut. Lehen ere esan

nuen bi aste hauek finala jokatu beharko banu moduan hartuko nituela, eta halaxe egin dut. Bihar [atzo] egingo dut azkeneko lan-saioa; ez da fisikoki oso gogorra, baina sentsazio onak hartzeko erabiliko dut".

Bergarakoaren esanetan, finalera iritsi izana sekulakoa da, eta finala irabaztea ametsa izango litzateke: "Garbi dago finalean

egoteko meritua Artolak eta Altunak egin dituztela. Baina arauak direnak dira, ez ditut nik jarri, eta finalistetako batek kale egiten badu hirugarren sailkatuak jokatzeko du finala.

Alegia, ez dut aparteko ahalegin egin behar finalerako motibatzen. Honaino iristeko Zabalari irabazi beharra zegoen eta halaxe egin nuen. Aukera ederra daukat aurrean".

"Eskuz banakakoan, Beñat lau onenen artean egon daiteke"

REYES AZKOITIA ENTRENATZAILE OHIA

Rezustaren entrenatzaile ohia Bilboko harmailetan izango da etzi, finalaren ondoren ETBren tertulian esku hartzen. "Partidua zuzenean ikusi ahal izango dut horrela, eta animatu egin naiz. Hala ere, urduritasuna dela-eta ez dakit berba egiteko kapaz ere izango naizen", dio bergararrak, umorez.

Luze egin dira bi aste, baina eguaztenean konfirmatu zuten Beñatek jokatzeko duela finala.

Bai, eta lehenengo eguna penatuta egoteko izan zen, Artolak irabazi duelako finalean egotea, baina bigarren egunetik aurrera pozarren gaude, Beñatek jokatzeko duelako final hori.

Txapelketa handia egin du Beñatek.

Artolari ezer kendu gabe, Beñaten kontra izugarriko partidua egin zuelako, uste dut Beñat prezipitatu egin ibili zela finalerdian. Artolak nekez egin dezake partidu hobea, oso ondo ibili zen, eta Beñatek, ordea, inportanteak izan zitezkeen hainbat tantotan ez zuen



GOIENA

asmatu, azkarregi amaitu gura izan zuen tantoa. Zortea ere halakoetan klabea izaten da, eta Beñatek ez zuen zortea aldeko izan. Hirugarren izatea ez dio inork oparitu.

2008tik ez du atzelari batek buruz buruko finala jokatu.

Nire ustez, Beñat, txapelketa ondo prestatzeko denbora emanez gero, lau pilotari onenen artean dago, dohain onak ditu torneorretarako. Baina denbora behar du txapelketa prestatzeko.

Bada, Altuna izango du finalean...

Finalean kontrario *txarrena* egoten da beti, hark ere txapelketa borobila egin duelako. Ze final klase izango litzateke bestela? Onenak egon behar du aurrean.

"Jotzearekin ez da nahikoa". Rezustaren esanak dira.

Bai, garbi dago, baina ez gaitzen nahastu, hor oinarritu behar du bere jokoa. Eta tokatzen denean, tantoa amaitzen asmatu.

AUTOMOBILISMOA Pablo Irizar pilotua, 'Harmailatik' saioan

90eko hamarkadan, besteak beste, Citroen kopan nabarmendu zen Pablo Irizar pilotu bergararra *Harmailatik* saioan izango da astelehenean (21:30). Hala, garai bateko kontuak errepassatzearrekin batera, Irizar zirkuituetara itzuli da Mini Cooper kopa barruan. Bergarakoak Chesten izango du hurrengo lasterketa, hilaren 26an.

MENDI LASTERKETAK Kortazar, podiumean Nuriako lasterketan

L'Olla de Nuria mendi lasterketan podiumera igo zen joan den asteburuan Oihana Kortazar elgetarra. Lasterketa bikaina egin eta hirugarren postuan helmugaratu zen, 2.35.25eko denbora eginda. Inoizko edizio bizkorrena izan da aurtengoa. Emakumezkoetan, Maude Mathys izan da onena (2.21.52); lehengo marka 15 minutu ondu du.

ATLETISMOA Carrascal eta Agiriano, Nerjan, 23 urtez azpikoan

Espainiako 23 urtez azpiko Txapelketak egin dituzte asteburuan Malagan, eta Eneko Carrascal arrasatearra eta Alex Agiriano eskoriatzarra bertan izango dira. Luzera-saltoan Carrascalek aire zabalean 7,73 egin du aurten eta Agirianok, berriz, 7,13. Eta hirukoitzean, 15,22ko marka egin du Eskoriatzakoak eta 15,08koa egin du Arrasatekoak.

FUTBOLA Azkargortak Garitanorekin segiko du lantaldean

Eibarko lantaldearen osaketa baieztatu du Gaizka Garitano talde armagineko entrenatzaile berriak. Ia ez da aldaketarik izan, eta Antzuolako entrenatzaile laguntzaileak, Andoni Azkargortak, 2021-2022 denboraldian ere talde nagusian jarraituko du lanean. Hain zuzen, Azkargorta lehen ere Garitanoarekin lanean ibilitakoa da.

KICKBOXINGA Txapelketa egingo dute Eskoriatzan

Duela bi urte egin moduan, ekainaren 26an kickboxing txapelketa egingo dute Eskoriatzako Joseba Inurrategi pilotalekuan. Orduan, K-1 Basque Country txapelketa jokatu zuten Eskoriatzan, eta pisu askotariko kategorietan batuta, erakustaldi polita egin zuten Euskal Herri osotik gerturatu ziren borrokalariak.

Sufrikarioak saria du, Taiwanerako sailkatzea

ATLETISMOA Santanderko distantzia luzeko Espainiako Txapelketan –50 kilometroko lasterketa– bigarren sailkatu eta gero (3.46.08), Nere Arregi Munduko Txapelketarako sailkatu da, bigarren urtez; urrian izango da hitzordua, Txinan

Xabier Urzelai ARRASATE

2018an egin moduan, Nere Arregi munduko distantzia luzeko txapelketan izango da ostera ere: "Oporraldi ederra izango dut aurretik", dio, umorez, jakinda hilabete askotako lana geratzen zaiola oraindik, eta halako prestakuntza luze baten kirolariak gorabehera dezente izan ditzakeela. Hala ere, ondo ezagutzen du egin beharreko bidea, duela hiru urte Kroazian egin zuten Munduko Txapelketan –100 kilometroko distantzian– egoteko ez zen-eta bidezidorrak egon: lana eta lana. "Baina orduan gauza asko alboratu nituen, seriotasun handiarekin ibili nintzen entrenatzen, eta diziplina handia behar da horretarako. Orain, gauzak beste modu batean egin nahi ditut".

Pandemia urtea, errekupepatzen

Nere Arregi pandemian urte hau lehenagotik izandako lesioetatik errekupepatzeko baliatu du: "Alde horretatik, ondo etorri zait urtea, denok altxa behar izan dugu hanka eta nik lehenagoko lesioak atzean uzteko baliatu dut geldialdi hau. Hala ere, hilabeteak lasaiago ibili eta gero ostera ere motibazioari heldu eta zorrotz jardutea gogorra izaten da: "Garbi neukan ostera ere itzuli gura nuela, baina 2018an lasterketara ondo iristearren gauza asko alboratu nituen. Lagunekin planak, as-teburuan lasai hartzen diren garagardo horiek... Eta ostera ere horretaz gozatzen hasten denean, ohitura berriak hartzen direnean, berriz alboratzea zaila egiten da. Orain, beste modu batean hartu nahi ditut gauzak".

"Inoizko lasterketa gogorrena"

Egutegian urriaren 31 gorriz markatuta zeukala joan zen Arregi zapatuan Santanderrera. Izan ere, udazkenean egingo dute, Taiwanen, distantzia lu-



Nere Arregi, zapatuan, Santanderko lasterketan. N.A.

NERE ARREGIK SABELKO ARAZOAK IZAN ZITUEN 20. KILOMETROTIK AURRERA

zeco Munduko Txapelketa. Duela hiru urte bezala, Kantabriako hiriburuan zuen *azterketa* gainditu beharra zeukan. Espainiako Txapelketa zegoen jokoan, eta podiumera igozteko garrantzitsua zen, baina baita gutxieneko marka egitea ere. Eta arrasatearrak inoiz ez bezala sufritu zuen. "Benetan, inoizko lasterketa gogorrena izan zen, inoiz ez dut horrenbeste sufritu". Pentsa zer den hori 2018an Kroazian 100 kilometroko asfaltozko lasterketa amaitzeko kapaz izan zenarendako.

Ezin jan, ezin edan

Esan bezala, zapatuan Santanderren Munduko Txapelketarako txartelak zeuden jokoan, eta distantzia luzeko Espainiako korrikalari onenak erakarri zituen hitzorduak. "Maila oneko atletak zeuden eta erritmo oso

azkarrean hasi ginen. Berehala konturatu nintzen hobe nuela nire erritmoa hartu, lehertu egingo nintzelako bestela".

Erritmoari dagokionez, aurrekoen borrokarekin itsutu barik arrasatearrak apustu propioa egin zuen, eta asmatu egin zuen. Arazoak, baina, ez ziren hor amaitu: "20. kilometrotik aurrera konturatu nintzen ezin nuela ezer jan, eta ezta ura edan ere, gorputzak ezetz esaten zidan. Eta oraindik 30 kilometro nituen aurretik, pentsa. Deshidratatzeko beldur nintzen eta hor ere nire erritmoa gehiago egokitzea erabaki nuen, eta erabaki ona izan zen. Hala, egin nuen denbora ez zen aurreikusitakoa izan, hobeto ibiltzea espero nuen [3.46.08], baina helburua bete nuen eta bigarren postuan sailkatu nintzen. Helburua Munduko Txapelketarako sailkatzea zen, eta lortu dut, baina ez gorputzaldi onean nengoelako, burugorria naizelako baizik".

Dena ondo bidean, urrian Txinan izango da, nahiz eta horretarako beste uda bat entrenatzen pasa beharko duen: "Eskerrak, sikiera, iaz oporrak ondo gozatu nituela".



Ointxe! Araski taldea. ANGEL AYASTUI

Ointxe! Araskiko neskek gaur dute lehen hitzordua, Lleidan

SASKIBALOA Euskadiko Txapelketa irabazi eta gero Espainiakoa dute jokoan; gaur, Zaragoza kontrario

X.U. ARRASATE

Euskadiko txapelkun geratu ostean, Ointxe! Araski taldeko neskek Espainiako Txapelketa jokatu dute egunotan Lleidan. Hala, talde arrasatearra Espainiako 32 talde onenen artean egongo da, eta txapelketako C multzoa egokitu zaie, Fundacion Valencia –Valentziako Erkidegoko txapelketa–, CN Helios –Aragoiko txapelketa– eta Jesuitinas baloncesto Femenino de Leon –Gaztela eta Leongo bigarren sailkatua– taldeekin batera. Hala, Alex Susok eta Gorka Alarziak zuzentzen duten

taldeak gaur, egubakoitza, jokatuko du lehenengo norgehiagoka, Zaragozako Helios taldearen kontra (17:30): "Oso multzo zaila da, baina multzoko lehen hirurak final-zortzirenetara sartuko dira, eta hori da gure taldearen lehen helburua", adierazi dute klubeko ordezkariak.

Partiduak, zuzenean

Arrasatekoek zapatuan 19:30ean izango dute bigarren lehia eta domekan hirugarrena (17:00). Hala, Espainiako Federazioaren kanalean jarraitu ahal izango dira norgehiagokak zuzenean.



LOKATZA

Gipuzkoako erlojupekoan, ondo

Martitzenean Aizarnazabalen egin zuten Gipuzkoako erlojupekoan bailarako zenbait ziklista nabarmendu ziren. Emakumezkoetan, Garazi Estevez hirugarren izan zen, laugarren sailkatu zen Xubane Garai eta bosgarren Eneritz Urrutia –argazkian–. Juniorretan, Danel Casais bigarren izan zen, Aimar Erostarbe bosgarren eta Aimar Madina hamabosgarren.



Debagoieneko Antzerki Plataformako kideak lan-saio batean. DAP

Herri guztietan antzerki eskolak izateko gogoz

DAP edo Debagoieneko Antzerki Plataformak antzerki formakuntza saioak abian jarri nahi ditu, "antzerkia eraldatzailea izateko helburuarekin". Eskualdeko herri guztietan egin gura dituzte, eta urrian hastea da euren asmoa; aurrematrikulazioa zabalik dago

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE D2030 ekimenaren babesean dagoen ekimena da DAP, Debagoieneko Antzerki Plataforma. Antzerki arloan diharduten hainbat lagun, euren kezketatik abiatuta, arte diziplina honi bultzada emateko elkartu ziren; izan ere, entretenezko tresna baino gehiago, gizartea eraldatzeko tresna moduan ulertzen dute antzerkia.

"Antzerkia ahalik eta jende gehienari zabaldu nahi diogu. Zer lortzeko? Alde batetik, Debagoieneko euskarazko antzerkirako formakuntza aukerak egoteko,



DAP FORMAKUNTZA izena emateko formularioa betetzeko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

eta, bestetik, antzerkiaren bitartez norbere burua ezagutu eta subjektu aktibo eta sortzaileak bideratzeko, gizarte kohesionatuago eta enpatikoa osatzeko asmoz", azaldu du DAPeko kide Josu Zubiak.

Formakuntzan inbertitu beharra
Helburu horiek gauzatu ahal izateko bost lan-ildo zehaztu di-

tuzte, eta horietako bat da datoren ikasturtean, bereziki, lankidun formakuntzaren arloa. "Irailean aurkeztuko dugu jendaurrean orain arte egin dugun lanketa osoa, baina kultura gizartea eraldatzeko erreminta moduan ikusteko, ezinbestekoa dugu formakuntzan denbora eta indarra inbertitzea. Lehendik ere bagenekien, baina osasun-krisiak handitu egin du sentitzeko dugun beharra, gertatzen ari den guztia gorputzera eramateko beharra. Haurrek, gazteek eta helduok badakigu zer egin eta nola jokatu behar dugun, baina ez dakigu emozio horiek kudeatzen, eta, ondorioz, modu arrazionalen geratzen gara, eta horrek itxurakeriaren auzia ekartzen du sarritan gizartera, eta arriskutsua iruditzen zaigu hori".

Asmoa, herri guztietan izatea

Arrasaten –Doke antzerki eskola–, Oñatin –Irazan-gunea– eta Bergaran –Jardun antzerki eskola– badaude dagoeneko, baina Zubiak azaldu du DAPen formakuntza saioak ez datozela horien jarduna ordezkatuz. "Antzerki eskola horiek indartu nahi ditugu, eta, horrez gain, antzerki formakuntzarako aukerarik ez dagoen herrietan formakuntza-gune bat eskaini ere bai. Debagoiena bailara moduan eta batasun kontzeptu horretan sartu ditugu formakuntza saioak; horregatik, egun guztietan, gutxienez, herri baten, behintzat, saio bat eskaintzen saiatuko gara, gutxienezko jende kopurua lortuz gero".



DAP: herritarrentzako galdetegia; eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Aurrematrikulazioa zabalik da
Euskaraz izango dira formakuntza saio guztiak, urritik ekainera bitartean, eta 8 urtetik gorako edozeinendako daude ateara zabalik. "Adinaren arabera hiru multzotan banatuko ditugu parte hartzaileak: haurrak, gazteak eta helduak. Herri guztietan egiteko aukerarik ez badugu, alboko herriko saioetara joateko aukera izango dute parte hartzaileak. Haurrendako saioak astean ordubetekoak izango dira, gazteendako ordu eta erdikoak edo bi ordukoak eta helduendako bi aukera eskaini ditugu: astean behin bi ordukoak astean zehar; edo asteburuetan lau orduko saioak, bi astean behin".
Aurrematrikulazioa egiteko aukera badago dagoeneko; atxikita dagoen QRaren bidez egin daiteke. Hor dagoen inprimakia beteta.

Ikerketa ere abian dute

Hurrengo ikasturtera begira asmo gehiago dituzte, eta horien artean dago aurten egiten ari diren ikerketaren emaitzak aurkeztea. "Ikerketa horren bidez aztertu gura dugu antzerki sarean eta, orokorrean, kultur ikuspegiari buruz Debagoieneko dagoen pertzepzioa. Eta horretarako, eskualdeko sortzaileekin egon gara, baina publiko orokorrekin, herritarrekin, ere egon gura izan dugu inkesta horren bitartez. Dagoeneko iritzi asko jaso ditugu, askotarikoak, eta oraindik ere erantzunak jasotzen ari gara, baina ahalik eta erantzun gehien jaso nahiko genituzke, ikerketaren emaitza ahalik eta osatuena izateko; hortaz, interesa duenak bete dezala QRaren bidez ikus daitekeen inprimaki hori".

NESKAK PLAZARA!

GOIENA TELEBISTA, CORPUS DANTZEN GAINKO ERREPORTAJEA
EKAINAREN 18AN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
JULEN IRIONDO KAZETARIAK EKOIZTUTAKOA

goiena
Zu hemen zaude.





Juantxo Zeberio eta Maddi Oihenart, Urbian kontzertua eskaintzen, iazko Urmuga ekimenaren baitan. MIREN ARREGI

Mendizaletasuna eta kultura bat Urmugarekin

Uztailaren 13tik 31era bitartean egingo dute, aurten bigarren bezala, Euskal Herri osoa zeharkatuko duen Urmuga ekimena; euskal musikari ezagunekin eta berriagoekin osatu dute egitaraua, eta sarrerak ekainaren 25ean hasita izango dira eskuragarri

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Iaz bezala, aurten ere musikaz beteko ditu Euskal Herriko mendiak eta askotariko txokoak Felipe Uriarte mendi-gidariak eta Migel Zeberio Et Incarnatus orkestrako zuzendariak beste eragile batzuen laguntzarekin abiatu zuten Urmuga ekimenak.

Iazkoa "zapora onarekin" bukatu zuten, eta, bultzatzaileen hasierako asmoa bi urtean behinoko maiztasunarekin egitea bazen ere, aurten ere aurrera egitea erabaki dutela azaldu du Felipe Uriartek: "Dokumentala grabatzen ibili ginen iaz; dagoneko lehenengo zirriborroa Mendifilm jaialdian erakutsi dugu. Eta ikus-entzunezko hori osatzeko lehenengo bi Urmugak segidan egitea hobetsi dugu".

Zeharkaldi osoa edo zatika

Angulo portutik abiatuko dira, uztailaren 13an, eta Hiru Erregeen Mahaian borobilduko dute zeharkaldia, uztailaren 31n. Guztira, hemeretzi eguneko

zeharkaldia izango da, baina parte hartu gura dutenak ez daude ibilbide osoa egitera behartuta: "Hainbat aukera daude: bi astekoa, astekoa edo egunekoa ere egin daiteke. Motxila txiki batekin joango gara mendi ibilaldian zehar. Furgoneta baten laguntza izango dugu lo egingo dugun tokitik eguneko ibilaldiaren hasieraraino eta baita ibilaldiaren helmugatik hurrengo aterperaino ere".

Mendi zeharkaldian parte hartzeko izen ematea zabalik dago, info@mendiaketaherriak.eus helbidera idatzi behar da; ordaindu beharrekoa, ibilaldien ezaugarriak eta informazio gehiago Urmuga.eus atarian daude eskuragarri.

EKAINAREN 25EAN HASITA EROSI AHALKO DIRA KONTZERTUEN SARRERAK, 'URMUGA. EUS' ATARIAN

Debagoienan hiru geltoki

Urbian egin zuten iazko aldian kontzertu bat eta aurten ere hala egingo dute, uztailaren 18an, goizean; eta arratsaldean, Oñatiko Foruen plaza alboan dagoen frontoian izango da ekitaldi handiagoa. Taularen gainean izango dira, besteak beste, Et Incarnatus orkestra, Alex Sardui, Petti eta Mainer Zabalegi. "Aurten indarra jarri dugu, bereziki, musikari gazteengan, Aramaio-ko Idoia Asurmendi eta Iruñeko Chill Mafiakoak izango dira, esaterako, baina baita eskarmentua duten beste asko ere. Urmugako kontzertu-guneko oso bereziak dira eta hari-orkestra batekin jotzeko aukera izatea erakargarria da musikarientzat".

Aramaion uztailaren 17an izango dira. "250 urte dituen pagoaren inguruan ekitalditxo bat egingo dugu. Sekulako harribitxia da zuhaitz hori, eta zaintzea merezi du; Jon Ugartek, Santi Balanzategik eta Ana Martirenak txukundu berri dute".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko ekaineko sariak!

Telebista LG 32"
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIS O S A K

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremanondia.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus / WhatsApp: KLUBA "zokoren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. 'goiena app'-a / zozketa atalean.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Informazio gehiago: 1090151000 laguntza zerbitzua. Aurten, gozatzeko sariak: Zuhaitz eta Urmuga zeharkaldia. Zuhaitz eta Urmuga zeharkaldia da urteko bigarren zeharkaldia. Zuhaitz eta Urmuga zeharkaldia da urteko bigarren zeharkaldia. Zuhaitz eta Urmuga zeharkaldia da urteko bigarren zeharkaldia. Zuhaitz eta Urmuga zeharkaldia da urteko bigarren zeharkaldia.

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: ekainak 22



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



'goiena app'-a / zozketa atalean.



KLUBA Jotetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

BAZKIDETZA KUOTA: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baseri bila Oñatin. Baseri bila gabiltzan Oñati-ko familia bat gara. Baseria saltzekotan bazabiltza, edo informazioz izanez gero, deitu edo idatzi telefono zenbaki honetara: 653 01 71 65

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bi logelako duplexa ematen da errentan. Trastelekuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 75 01 94

Uztaila. Zumaia. Ondar-
txo plaza. Hiru logela, bi bainugela, sukaldari-jan-
gela-egongela, bi balkoi eta garajea. Egokia 4-6 lagunen-
dako. 2.000 euro. Interesatuok deitu edo whatsapp-a idatzi zenbaki honetara: 675 70 77 51

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaleta. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 663 40 92 67

Arrasate. Errentan hartzeko etxe bila dabilen familia bat gara. Telefonoa: 633 68 35 76

Arrasate. Familia biki bat gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean, ahal bada erdigu-
nean. Behoko edo lehenengo solairua izan behar du. 680 87 38 66

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan Musakolan. Nahiago dut neska izateko. Telefonoak: 682 31 97 37 edo 669 73 61 76

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Eskoriatza. Soziosanitario titulua duen neska euskalduna behar dugu pertsona nagusiak zaintzeko. Autoa ezinbestekoa. Informatzeko idatzi Whatsapp mezua edo deitu zenbaki honetara: 680 50 82 75

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke, goizetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 41 72 62

Arrasate. Asteburuetan ospitalean dauden pertsonak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 80 33 82

Arrasate. Egunean zehar nagusiak zaintzeko nitzuke.

Titulazioa eta legezko agiriak daukat.682 31 97 37

Arrasate. Erizaintza ikasten dagoen Arrasateko neska euskalduna, uztailean umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 17 37 01

Arrasate. Garbiketarako egingo nitzuke, orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 06 28 04

Arrasate. Orduka etxeko lanak egingo gertu nago, zapatu arratsalde edo domeka goizetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 77 66 21

Bergara. Emakumea prest nagusiak zaindu edo eta garbiketa lanak egingo. Astelehenerdik ostiralerara goiz eta arratsalde, edo jai egun eta asteburuetan baita. Formazioa agiriak egunean ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 74 00 14

Bergara. Gizarte hezitzailea naiz eta aisialdiko begirale titulua daukat. Una honetan umeak zaintzeko prest egongo nintzateke, arratsaldeetan. Telefonoa: 697 49 51 04

Bergara. Pertsona helduak zaintzen edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo prest. Edozein ordutegi. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 85 61 22

Bergara. Udan umeak zaintzeko prest. Lehen Hezkuntzako ikasketak ditut eta uda honetan umeak zaintzeko prest nago. Haurrak zaintzen esperientzia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 84 99 79 edo 610 49 48 47

Debagoiena. Arratsaldean pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen neska bat naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 81 08 63

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu nagusiak eta umeak orduka zaintzeko. 620 23 58 15

Debagoiena. Garbiketa eta lisatze lanetan, edo ume, nagusi eta gaixoak zaintzen lan egingo nuke. Baita ospitalean ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 611 24 26 64

Debagoiena. Garbiketan eta ume zein nagusien zaintzan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 91 23 61

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: nagusiei kalera lagundu, manda-

tuak egin eta abar. Baita denetarik garbiketarako egingo ere: tabernak, atariak, baserriak eta abar. Edo banaketak. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Hainbat lanerako prest dagoen mutila; pertsona nagusien zaintza, garbiketa lanak, sukaldari lanak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 643 48 73 46

Debagoiena. Harategian, tabernan, pertsona nagusiak zaintzen. Lan egingo prest nago. Eskarmentu handia daukat. Baita erabateko prestasuna ere. 642 90 41 05

Debagoiena. Lan egingo nuke, astean zehar etxean bertan bizi izaten, garbitzaile gisa, haurrak eta nagusiak zaintzen eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 28 42 74

Debagoiena. Legezko agiriak eta lanerako ziurtagiria daukan neska arduratsua egunean zehar nagusiak zaintzeko gertu. 662 02 45 80

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu: eraikuntzan, lanbide astun zein arinetan, joskintzan, zaintzan, eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 28 05 29

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta denetarik garbiketarako egingo gertu nago, etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 91 49 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke, lanleku zein etxean. Formazioa eta legezko agiriak daukat. 632 83 32 44

Debagoiena. Neska arduratsua naiz, esperientzia duena, eta garbiketan zein ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke. Berehala hasteko gertu nago eta ordutegi aukera guztietan. 678 12 28 56

Debagoiena. Neska euskalduna lanerako gertu: umeak zaintzen, dendan, lantegian, tabernan edo bestelako edozein lanetan. 656 79 28 37

Debagoiena. Orduka garbiketa eta zaintza lanak egingo gertu nago. Legezko agiriak daukat. 688 65 32 00

Debagoiena. Orgak gidatzeko titulua daukat.

Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo prest nago baita ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 98 15 50

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen eskarmentu handia duen emakume euskalduna naiz eta lan egingo prest nago. 688 72 88 97

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen jarduteko prest dagoen neska arduratsua naiz. Soziosanitario titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 611 18 91 55

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu lan egin nahi dut. 672 55 67 35

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo prest nago; gauetz, orduka. 659 90 85 13

Debagoiena. Soziosanitario eta legezko agiriak dituen emakumea prest nagusiak zaintzeko. Orduka, gauetan eta baita asteburuetan ere. Inter-

esatuok deitu zenbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan neska lanerako gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 37 71 54

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan egingo nuke lan. Orduka edo etxe barruan bizi izaten. 643 73 62 36

Debagoiena. Umeak edo pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan jarduteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. 671 16 54 60

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nitzuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 604 37 70 41

Debagoiena. Zaintzaile lanak egingo nitzuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziarekin. 637 05 96 07

Etxeak garbitu. Etxeak, lokalak, garajeak, eta

abar garbitzeko prest. Pertsona helduei lagundu edota haurrak zaindu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 19 26 50

Haurren zaintza Bergaran. Udan haurrak zaintzeko prest dagoen neska gazte euskalduna. Telefonoa: 634 40 86 24

Udan haurrak zaintzeko. Kaixo! Magisteritza ikasten dabilen 20 urteko neska langile eta inplikatu naiz. Uztailean eta abuztuan umeak zaintzeko interesa eta prestasuna izango nuke. Harremanetarako eta gehiago jakin nahi izanez gero, jarri zenbaki honetara: 689 09 97

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. 3 katakume aurkitu ditugu kalean eta hauentzat jabe bila gabilta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 691 83 10 72

HILETA

Jose Antonio Gallastegi Arregi

'Inhausti'
Mari Leteren alarguna



2021eko ekainaren 17an hil zen, 96 urte zituela.

Seme-alabak: Miren eta Juanjo, Eguzkifre eta Javier eta Pedro, Maite eta Gorka. Bilobak: Jon eta Arrate, Xabi eta Garazi, Julen, Andoni, Olaia, Aloña, Garazi, Birbilobak: Peio, Ixai, Malen. Anai-arrebak: Jose M. eta Conchita, Modesta eta Damaso, Angeles eta Jesus, Bittori eta Higinio, Arantza eta Tomas, Rita eta Felix, Juantxo, Luis eta Elena, Jose Mari eta Inese. Zaintzaileak: Antonia eta Samuel.

Illobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta elizkizuna gaur, ekainak 18, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Aldez aurretik mila esker.

Familiak Arrasate Bellatokia hartuko zaituzte
10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'NESKAK, DANTZARA!' IKUS-ENTZUNEZKOA

'Bereziak' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

SAN JUAN BEPERA ZUZENEAN

'Bereziak' Martitzena, 22:00

ASTELEHENA, 21

PABLO IRIZARRI ELKARRIZKETA

'Harmailatik'

21:30/23:30

MARTITZENA, 22

MIREN GORROTXATEGIRI ELKARRIZKETA

'Harira'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 23



GOIENA

AMAIA GOIKOETXEARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21:00

EGUENA, 24

EUSKAL KULTURGINTZA TRANSMISIOA

'EKT'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

URTEURRENA



Angel Gallego Martin



2020ko ekainaren 28an hil zen, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko ekainaren 18an.

URTEURRENA



Encarna Tornos Ruiz



2020ko ekainaren 26an hil zen, 79 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko ekainaren 18an.

URTEURRENA

Juli Laskurain Zabaleta

Luis Zilaurrenen alarguna



2020ko ekainaren 20an hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza igandean izango da, ekainaren 20an, 12:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren Eliza Nagusian.

Eskerrak elizkizunetara joango direnei, senideen izenean. Oñatin, 2021eko ekainaren 18an.

OROIGARRIA



Espe Mercader Sologaistoa




2021eko ekainaren 8an hil zen, Acapulcon (Mexiko), 69 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko, gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

Arrasateko familia. Arrasaten, 2021eko ekainaren 18an.

OROIGARRIA



Carmelo Sagasta Juldain




2021eko ekainaren 13an hil zen, 54 urte zituela.


Beti izango zara gure bihotzetan.

Anai-arreben eta iloben partez. Arrasaten, 2021eko ekainaren 18an.

OROIGARRIA



Javier Errasti Legazpia



2020ko ekainaren 22an hil zen, 57 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Aretxabaletan, 2021eko ekainaren 18an.

OROIGARRIA

Jose Mari Larrañaga Etxeberria

Mireia Larrañaga lankidearen aita



2021eko ekainaren 13an hil zen, 75 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Goiena Komunikazio Taldea. Bergaran, 2021eko ekainaren 18an.

OROIGARRIA

Jose Mari Larrañaga Etxeberria



2021eko ekainaren 13an hil zen, 75 urte zituela.

Gizon konprometitu berebizikoa, ilusio handi ta kexa gutxikoa; Lanbide Heziketan

denon begikoa, lagun taldean, berriz kategorikoa... Zeure omenez doa azken txikitoa.



Miguel Altuna LHilko lagunak. Bergaran, 2021eko ekainaren 18an.


OROIGARRIA

Jose Mari Larrañaga Etxeberria



2021eko ekainaren 13an hil zen, 75 urte zituela.

Arexabaleta Lanbide Eskolako hasieran jarri zenuen aleak ernaltzen dirau. Eskerrik asko, Jose Mari, ALEtarron partez.



Bergaran, 2021eko ekainaren 18an.

ESKER ONA

Joakina Altuna Insausti

Angel Iñurritegiren alarguna



2021eko ekainaren 10ean hil zen, 99 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, ekainaren 19an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko ekainaren 18an.

ESKER ONA

Jose Mari Larrañaga Etxeberria



2021eko ekainaren 13an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko ekainaren 18an.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guregan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



BADESLEA

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



Kontatu, kontatu!

Badukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Aurkezpen gogoangarria

200 bat lagunek gozatu ederra hartu zuten Aretxabaletako Areantza auzoko kontzertuan. The Potes-ek diskoa aurkeztu zuen, Garazi Barrenaren eta ErNE taldearen laguntzarekin.

2. Jostailuak trukutzen

58 jostailu eta jolas trukatu zituzten aurreko egubakoitzean Arrasaten. Era berean, eguraldia aprobetxatuz, askok eskulanak egin zituzten Txatxilipurdiko begiraleekin.

3. Trena ezagutzeko bidaia

Oñatiko Ganbara Kantu Eskolakoek bidaia ederra egin zuten aurrekoan. Herriko ondarea ezagutarazteko helburuarekin, *Triki traka*, *Oñatiko trena* emanaldia egin zuten.

4. Ballet erakustaldia

Arrasate Musikako 80 bat ikaslek egin zuten erakustaldia aurreko egubakoitzean. Askotariko koreografiak egin zituzten, Jana Fuente irakaslearen aginduetara.

5. Saria, eskuetan

Mondrateg dagoeneko jaso du Euskal Ligako Kopa. Futbol Federaziokoak Musakolan egon ziren. Era berean, Iker Uribesalgok jaso zuen jokalaria onenaren saria.

6. Singular Dendak

Oñatiko Iramira eta D'or Estetika Zentroa Singular Denda dira. Gipuzkoa Merkatarien Federazioak ematen ditu izendapenak. Oñatin hamar dira izendapen hori dutenak.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



BERGARA
Anouk Izagirre Santamaria
Ekainaren 24an, 7 urte. Zorionak, maitia! Besarkada handi bat etxeko danen partetik! Primeran ospatu!



ARAMAIO
Jakes Valoria Garcia
Ekainaren 22an, 9 urte. Zorionak, mutikote! Muxu pilo bat familiako guztion partetik eta noski, aitaren artz-besarkada handi-handi bat ere! Askok maite zaitugu!




BERGARA
Malen Igarza Sotil
Ekainaren 22an, 3 urte. Zorionak, Malen! Primeran pasatu zure eguna! Patxo handi bat etxeko danen partetik!



OÑATI
Ekain Oronoz Mugarza
Ekainaren 21ean, 3 urte. Zorionak gure etxeko *potxolituari!* Jada hiru urtetxo! Ondo-ondo pasatu eguna! Gustora ospatuko du! Etxeko danen partetik, patxo handi bat!



OÑATI
Iker Arenaza Arriaran
Ekainaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Iker! Egun ederra pasatu, mutikote!



ESKORIATZA
Unax Aramendi Altuna
Ekainaren 21ean, 10 urte. Zorionak, Unax! Super ondo ospatu zure eguna lagun eta etxekoeekin, eta muxu erraldoi bat danon partetik!



BERGARA
Ekhi Laskurain Blanco
Ekainaren 20an, urtebete. Zorionak, Ekhi! Familia osoaren partetik, jarraitu horren alai izaten! Patxo potolo bat!



OÑATI
Elene Urzelai Larrañaga
Ekainaren 20an, 7 urte. Zorionak, potxola! Primeran pasatu zure eguna eta patxo handi-handi bat familia osoaren partetik!




OÑATI
Ander Gavilan Iturbe
Ekainaren 18an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu urtebetetzea! Beti bezain alai jarraitu eta segi orain arte moduan! Muxu handi bat guztion partetik!



BERGARA
Nora Gonzalez
Ekainaren 18an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Sei urte! Primeran ospatuko dou egun politx hau! Patxo erraldoi bat etxeko guztion eta, bereziki, Markelen partetik!



BERGARA
Unai Arana Romero
Ekainaren 18an, 7 urte. Zorionak, Unai! Ondo pasatu zure eguna, txapeldun! Muxu handi bat familia osoaren partetik!



OÑATI
Jon Garitano Moyua
Ekainaren 17an, 8 urte. Zorionak, Jon! Gure etxeko txikiñak zortzi urte! Ondo-ondo ospatuko dogu! Patxo handi bat etxeko danen partetik. I zugarri gura zaugu!



BERGARA
Ane Erdozia Barrenetxea-Arando
Ekainaren 17an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Jada hiru urte. Ondo-ondo pasatuko dou zure egunian eta besarkada handi-handi bat familixa osoaren partetik. Askok maite zaitzugu!




ANTZUJOLA
Lur Narbaiza Peñagarikano
Ekainaren 17an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, bihotz-bihotzez, familixa danaren partetik!



ESKORIATZA
Unai Arana Romero
Ekainaren 16an, 12 urte. Zorionak, mutil handi! Ederto pasatu zure eguna eta besarkada erraldoi bat etxeko guztion partetik. Pila-pila maite zaitugu! Aupa Uni!



ARAMAIO
Haizea Berasaluze Eriz
Ekainaren 14an, 4 urte. Zorionak, poxpolin! Segi beti bezala gure bizitzak alaitzen! Izugarri maite zaitugu! Mila muxu danon partetik!



ARRASATE
Eki Solupe Beitia
Ekainaren 13an, 3 urte. Zorionak, Ekibxo! Primeran pasatu zure eguna. Patxo potolo bat familixa danaren partetik.



BERGARA
Peru Axpe Albistegi
Ekainaren 12an, 2 urte. Zorionak etxeko izartxo alaiari! Patxo handi bat eta, etxeko danon partetik, ondo pasatu zure egunean, bihotza!



ARRASATE
Janitz Moreno Rozas
Ekainaren 11n, 6 urte. Zorionak, Janitz! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna, *pitufu*. Patxo potolo-potolo bat Garazi, amatxo, aitatxo eta familixako danon partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 18

ELGETA Saskibaloia saioa, 8-11 urtekoendako
Bigarren saioa.
Elgetan, 18:00etan.

ARRASATE Kurtso bukaerako kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleekin.
Amaia antzokian, 18:30ean.

OÑATI 'Gordailua: traste zaharrak ondare' hitzaldia
Xabier Kerexeta Errok egingo du berba, Erreusak egitasmoaren baitan.
Santa Ana antzokian, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Kaioak ez du hotzik' dantza eta musika ikuskizuna
Jaiki elkarteak Sara Alonso piano-jotzaile eta abeslari aramaioarra izango du lagun. Eguraldi txarra bada, pilotalekuan.
Ilargi plazan, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Movimientos de mujeres indigenas por el buen vivir' hitzaldia
Aste Zapatistaren baitan, Zaldibar antzokian edo online.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

BERGARA 'Dantzaz beteriko gaua' emanaldia
Bergarako Musika Eskolako ikasleen eskutik.
San Martin plazan, 20:00etan.

ARAMAIO 'Saguzarren gaua'
Haurrendako eta familiendako ekintza, saguzarrak hobeto ezagutzeko.
Parkean, 21:00etan.

ZAPATUA 19

ARRASATE Baserritarren azoka
Garaiko produktuak salgai.
Seber Altube plazan, 09:00etan.

ARRASATE Elkartasun Eguna
Gobernuz Kanpoko Erakundeen eskutik. Batutako dirua Indiako Ankur harrera-etxeko proiektura bideratuko dute.
Seber Altube plazan, 09:00etan.

ANTZUOLA EH Bilduren ekitaldi politikoa
Zinegotziek eta hainbat herritarrek parte hartuko dute.
Herriko Plazan, 11:30ean.

ARRASATE Zuzeneko sukaldaritza saioa
Arteaga jatetxeko sukaldariak bi plater prestatuko ditu, azokan erositako produktuekin.
Seber Altuben, 11:30ean.

ARETXABALETA 'Zubiak hezten' erakusketa
Aniztasun funtzionala duten pertsonen errealitatea erakusten duen bilduma.
Arkupen, 11:30ean.

OÑATI 'Lesboseko begietatik' erakusketa: azken eguna
Lesbosen errefuxiatu egoeran bizi den Yousef Alshewaili argazkilaririk irakiarren lana ikusteko aukera.
Eltziako topagunean, 12:00etatik 13:30era.

OÑATI Larru Beltzak taldea
Apirilean gaztetxean egitekoak ziren kontzertuak. Eurria bada, azokan.
Antixena parkean, 17:00etan eta 18:30ean.

ARRASATE Biolin kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleekin.
San Frantzisko elizan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Ongi etorri, zapatistak' jaia
Umeendako gozo-eltzea; tonbola; takoak erosteko txosna; eta Bixentak eta Screamers and Sinners taldeen kontzertuak egongo dira.
Santa Marina plazan, 18:00etan.

ARRASATE Blues Deluxe taldearen kontzertua eta Arrasate Blues garagardoaren aurkezpena
Kajoi tabernaren 34. urteurrena ospatzeko.
Kajoi tabernan, 19:00etan.

BERGARA Txakolin, Arabako Errioxako ardo eta gazta dastatzea
Mikel Garaizabal sommelierarekin. Izenak emateko: 659 29 79 65 edo obietasanjuan@gmail.com. Debalde.
San Juan auzoan, 19:00etan.



ACORDES NAVARROS

ARRASATE 'Nekatutak' bakarrizketa saioa
Antton Telleria ohol-tza gainean. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:00etan.

DOMEKA 20

ARRASATE 'Murugain. Dragoiaren bidetik' bisita gidatua
Aurrez eman behar zen izena.
Herriko Plazan, 10:00etan.

BERGARA Lorenzo Askasibarren erakusketa: azken eguna
Gaur da Bergarako artistaren egurrezko, harrizko eta brontzezko lanak ikusteko azken eguna.
Aroztegin, 12:00etatik 14:00etara.

ARRASATE Txorbela otxotea
Sanjuanetako emanaldia.
San Frantzisko elizan, 12:30ean.

ESKORIATZA Ikasturte amaierako ospakizuna gaztelekuan
Musika, mahai-jokoak, lehiaketak eta beste hainbat ekintza.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARAMAIO 'Bideak' dokumentala
Orixok mendizale elkartearen eskutik.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Pandero jaialdia
Neomak, AMAK, Khami, Elizagoien ahizpak eta Osés-Leuza anaiak.
Amaia antzokian, 18:00etan.

ARETXABALETA Acordes Navarros taldea
De Estella a la Ribera diskoa aurkeztuko dute.
Herriko Plazan, 19:00etan.

BERGARA Leizeak taldea
Maravillas diskoak joko dituzte. Debalde.
Uberan, 19:00etan.

ASTELEHENA 21

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Piano kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleekin.
Azoka plazan, 18:00etan.

OÑATI Ikasturte amaierako emanaldia
Musika eskolako ikasleen eskutik.
Lazarraga lorategian, 18:00etan.

ARETXABALETA Acordes Navarros taldea
De Estella a la Ribera diskoa aurkeztuko dute. Rantxerak, Nafarroako estanpak eta jotak abestuko dituzte. Eguraldi txarra bada, Iturrigorri pilotalekuan.
Etzi, domeka, Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Laburbira emanaldia
Zortzi film labur emango dituzte; tartean, Xabi Vallinak zuzendutako *Ilunabarrean esan*.
Kulturaten, 19:00etan.

MARTITZENA 22

ARETXABALETA Basotxo elkarretaren batzar orokorra
Besteak beste, zuzendaritza batzordea berriro egingo dute.
Komentuan, 16:30ean.

OÑATI Adineko pertsonen elkarretaratzea kafe hitzordua
Begirada Adia ekimenaren baitan elkartzen dira.
Pake Lekun, 17:00etan.

OÑATI 'Zaharrak berri: Oñatiko etxeko langileen auzia' lan saioa
Selma Huxley bekarekin egindako ikerketa lanaren harira. Aurrez eman behar da izena.
Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI Matematikari buruzko hitzaldia
Jordi Farok eta Elkar Heziketa Haur Hezikuntzako eta Lehen Hezikuntzako irakasleek egingo dute berba.
Elkar Hezin, 18:00etan.

BERGARA Ikasleen diplomadunen kontzertua
Bergarako Musika Eskolako ikasleen eskutik.
Mariaren Lagundian, 18:30ean.

ARRASATE Biolin kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleen eskutik.

Arrasate Musikalen, 18:30ean.

ESKORIATZA Dantza emanaldia

Musika eskolako ikasleen eskutik. Edukiera mugatua. Gonbidapenak, musika eskolan edo 943-71 49 95 telefono zenbakian.

Eduardo Gorosarri plazan, 18:30ean.

ARETXABAETA 'Kalean otso, etxean uso' antzezlan, umeendako

2-12 urte artekoendako, Patata Tropikala taldearen eskutik.

Santa Rita lorategian, 19:00etan.

EGUAZTENA 23

ARRASATE Sanjuanak

12:30ean, txupinazoa Monteazpiko terrazan; 19:00etan, Rebel Noise eta Libertad Condiciona taldeen kontzertua; 19:30ean, Udalaxpe txistulari elkartearen kalejira; eta 22:30ean, errementari dantza, *Gora Arrasate* eta *San Juan* ereserkia, Herriko Plazan.

Arrasaten.

ESKORIATZA Kuadrillen arteko jokoak

Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailetakoko ikasleendako. Hainbat erronka gainditu beharko dituzte, lauko taldeetan banatuta.

Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren sasoiko produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, 18:00etatik aurrera.

BERGARA 'Honeyland' pelikula

Zinekluba, jatorrizko hizkuntzan, azpitu-luekin. Sarrerak, hiru euro.

Oxirondon, 18:00etatik aurrera.

ESKORIATZA 'San Juan bezperan Eskoriatzan'

dokumentalaren aurkezpena

Garaiko ohiturei buruzko testigantzak jaso zaizkie hainbat eskoriatzarri. Gonbidapenak, 943-71 46 88 telefono zenbakian edo kultura etxean.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

EGUENA 24

ARRASATE Sanjuanak

08:00etan, tortilla-pintxo dastatzea, tabernetan; 10:00etan, Udalaxpe txistulari elkartearen kalejira; 11:00etan, Gariband taldearen kalejira; 13:00etan, itzulera ekitaldia, Monterronen; 16:00etan, mus txapelketa, gaztetxean; 17:00etan, gaztetxoaren mus txapelketa; eta 19:00etan, Ekiñe eta Nhil taldeen kontzertua, Monteazpiko terrazan.

Arrasaten.

OÑATI Musika bandaren kontzertua

Esk-ult-ura programaren barruan.

Lazarraga lorategian, 19:00etan.

EGUENA 24

ARRASATE Sanjuanak

10:30-14:00, jolasak eta ekintzak umeendako, Monterronen; 12:00etan, marianito musikatua, Monteazpiko terrazan; 12:30ean, Arrasateko Trikitixa Eskolako kalejira; 14:30ean, *Zeuk in, zeuk jan* bazkaria; 19:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Monterronen; 19:00etan, presoen aldeko manifestazioa, txosnagunetik hasita; eta 20:00etan, Bordan Bizio eta Txerrikumeak taldeen kontzertua, Monteazpiko terrazan.

Arrasaten.

ESKORIATZA 'Diberti dantza' ikuskizuna

Musika, jolasa eta dantza bateratzen ditu Deabru Beltzak taldeak. Olatz Pagaldai eskoriatzarra da aktoreetako bat.

Santa Marina plazan, 18:30ean.

BERGARA Bergara-Manlleu topaketa

Katalanei harrera eta Askatasunaren Martxa egingo dituzte.

Santa Martin plazan, 19:15ean.

OÑATI 'Erraiak' kontzertua

Ganbara eta Hots abesbatzek egingo dute emanaldia, *Esk-ult-ura* ekimenaren baitan. Edukiera mugatua.

Asentzioko ermitan, 22:00etan.

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

La casa del caracol
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

EIBAR

COLISEO

En un barrio de New York
Zapatua eta domeka: 17:00.

Dios mio, ¡los niños han vuelto!
Zapatua eta domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

La violinista
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Cascarrabias
Zapatua eta domeka: 17:00.

En un barrio de New York
Zapatua eta domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Raya y el ultimo dragon
Egunero, domeka izan ezik: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30.

Tom y Jerry
Egubakoitza eta zapatua: 17:45. Domeka: 12:00, 17:45.

Cascarrabias
Egunero, domeka izan ezik: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30.

Cruella
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:35, 22:10. Domeka: 11:45, 17:00, 19:35. Astelehenera: 17:00, 19:35.

Uno de nosotros
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00. Domekatik eguenera: 19:30.

Despierta la furia
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 22:00.

Domeka: 12:00, 17:30.

Maya erlea
Domeka: 12:00.

Expediente Warren
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:00. Domekatik eguenera: 17:30, 19:45.

Mulholland drive
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:00. Domekatik eguenera: 17:30, 19:45.

La casa del caracol
Egubakoitzetik domekara: 19:50.

El hobbit
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 21:35. Domekatik eguenera: 18:50.

Un lugar tranquilo
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:30, 20:15, 21:30, 22:30. Domeka: 11:45, 17:30, 19:30, 20:15.

Astelehenera: 17:30, 19:30.

El otro guardaespaldas
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:30, 21:30. Domeka: 12:00, 17:30, 19:30. Astelehenera: 17:30, 19:30.

En un barrio de New York
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:30. Domekatik eguenera: 17:00, 19:45.

Ballerina (euskaraz)
Domeka: 12:00.

La abeja Maya
Egubakoitza eta zapatua: 16:45. Domekatik eguenera: 17:00.

BOULEVARD

En un barrio de New York
Egubakoitza: 18:30. Egunero: 18:10, 21:05.

Un lugar tranquilo
Egunero: 18:30, 20:40.

Martitzena: 19:30.

El otro guardaespaldas
Egunero: 17:25, 19:35, 21:45. Martitzena: 20:40.

Expediente Warren
Egubakoitza: 18:20, 20:40. Egunero: 17:00, 19:20, 21:40. Astelehena eta eguaztena: 18:20, 20:40.

Cruella
Egubakoitza: 17:15. Egunero, martitzena izan ezik: 19:10. Astelehena, martitzena eta eguaztena: 17:15.

Despierta la furia
Egubakoitza: 21:30. Astelehena eta eguaztena: 18:45, 21:15. Martitzena: 21:15.

Tom y Jerry
Egunero: 17:00.

La casa del caracol
Egunero: 17:00, 19:10.

El olvido que seremos
Egubakoitza eta zapatua: 21:20.

FLORIDA

Tom y Jerry
Zapatua eta domeka: 12:00.

Raya y el ultimo dragon
Zapatua eta domeka: 12:00.

Cascarrabias
Zapatua eta domeka: 12:00.

Cruella
Egubakoitzetik eguaztena: 17:15. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15.

Mulholland drive
Egunero: 19:10.

La casa del caracol
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 21:30. Astelehenera: 17:30.

Solo una vez
Egunero: 19:40.

El otro guardaespaldas
Egubakoitza: 17:30, 19:30, 21:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:20, 19:30, 21:30.

KRITIKA

Terciopelo azul ★★★★★

Zuz.: David Lynch. **Herr.:** AEB (1986). **Aktoreak:** Kyle MacLachlan, Isabella Rossellini, Dennis Hopper.

Desirak, ametsak eta beldurrak

ANTONIO ZABALA

Duela ia 35 urte Donostia Zinemaldian, ezusteko saio baten, David Lynchen *Terciopelo azul* filma ikusteko aukera izan genuen. Orain zinema-areto batzuetan Lynchen film guztiak eskaintzen ari direnez, filma berriz berreskuratzeko, eta hainbeste urte pasa eta gero, filmak bere originaltasuna eta indar asaldagarria galdu ez dituela egiaztatzea aukera daukagu. Gaur egun oso zaila izango litzateke halako film bat egitea.

Filmeko pertsonaiek, behin baino gehiagotan, mundua oso arraroa dela adierazten dute. Eta gauza bera pentsatzen du David Lynche bizitzari eta gizakiei buruz. Desirak, ametsak eta beldurrak gizakien oinarriko osagaiak dira. Hori horrela, badago normaltasun itxuraren azpian beste mundu



kezkarriago bat. Argiak eta itzalak daude. Filmaren hasiera ironiko eta kezkarriaren antzeman daiteke hori. Hau da, suhiltzaileak jendea agurtzen agertzen direnetik, lur azpiko intsektuen agerpena arte. Horrekin, filmaren gatazkan sartu eta nahastuko diren bi alderdiak azaltzen zaizkigu.

Jeffrey gaztea, Sandy –bere lehen agerraldian iluntasunetik argira pasatzen den neska– eta Dorothy, Frank eta beste hainbat pertsonaia dauden mundu ilunean mugitzen da.

Terciopelo azul originala, morbosoa, dibertigarria, kezkarria eta talentuz beteriko lana da.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Kulturola

Asteon konturatu naiz Zerrajerako erlojuaren eraikinari izena jarri diotela: Kulturola. Eta poztu egin naiz. Eraikin horrekin badut lotura afektiboa, Goiena kooperatibaren lehen bulegoa hor kokatu baikenuen, Saiolani esker. Garai batean botatzekoa ere izan zen, erreka gainean zegoela eta. Baina gora eta behera askoren ostean, bizi berri bati ekingo dio laster.

Mota askotako kultur taldeak kokatuko dira bertan, hemezortzi edo. Hori bera bakarrik ona da; lehenik eta behin, instalazio duinak izango dituztelako. Gainera, elkarren ondoan egonda, errazago izango zaie elkar laguntzea eta lankidetzarako sinergiak aurkitzea. Hortik harago, aukera sortu daiteke jauzi bat egiteko eta kultur ekosistema indartsu bat eraikitzen joateko, banako jarduerak gainditu eta ekimen kolektiboak bultzatuko lituzkeena. Molde honetako ekimenak ugaltzen ari dira Euskal Herrian: Oñatiko Eltzia hurbilena, Aiaraldeko Faktoria edo Iruñeko Laba berrienak. Guztien helburua da kultura sustatzea komunitatea gartzeko, hurbileko loturak eta bizipen partekatutako indartzeko. Munduan nortasun propioz egoteko eta eragiteko.

Kulturola ere bide horretan nahi nuke.

GOIENA OKM GIDA

"Herri aberatsa da Oñati, eta ez soilik poltsikoan"

FERNANDO GUTIERREZ GARATE GUALBI AHOLKULARITZAKO ZUZENDARIA
Bezeroen arazoak barneratzea "astuna" izan daitekeen arren, gustura aritzen da Oñatin lanean abokatua. Herri "leiala, langilea eta berritzailea" dela esan du

Jone Olabarria BERGARA

Azken asteko beroak eraginda, "seriotasuna helarazteko" janzten duen gorbatak apur bat estutzen duela, lanbidearen eta Oñatiren nondik norako batzuk aitortu ditu Fernando Gutierrez Garate eibartarrak. Bere jaioterriarekin "antzekotasun ugari" sumatzen ditu; batez ere, leialtasunean: "Oñatiko lagun bat duzunean, bizitza osorako da". **Herri aberatsa den ospea du Oñatik. Hala da? Igarzen duzue zuen eguneroko lanean?**

Esango nuke Oñatiko jendeak duen aberastasuna eremu askotan nabarmentzen dela, ez patrikari dagokionez bakarrik. Baina bai, Oñati herri langile eta aberatsa da, beti ideia berritzaileak dituena.

Eibartarra zara zu, eta Durangon ere badu Gualbi zerbitzua. Zergatik Debagoienara zabaldu negozioa?
Egia esan, berez, Gualbi Oñatin jaiotzen zen, lehen bezeroak Oñatikoak baitziren. Denboran aurrera joan ahala geroz eta bezero gehiagok kontratatu dituzte gure zerbitzuak, eta, hazkunde horren ondorioz, Oñatiko bulegoa sendotu egin da.

Derrigorrezkoa duzue trajearekin jantzita joatea ala itxurakeria da?



Fernando Gutierrez, Gualbi aholkularitzaren Oñatiko egoitza kanpoaldean. M.A.

30 urteren ostean, "despistatu" asko

"Gaur egun, Gualbi aholkularitzaren Oñatiko gure egoitza Euskadi hiribidean dago, eta hala izan da azken 30 urteetan. Orditik ez gara mugitu, hementxe izan gara. Gure aurretik, baina, aseguru-konpainia batek zuen hemen bere lokala. Urte pila bat igaro diren arren, oraindik asko dira ohitu ez diren oñatiarrak eta aseguruengatik galdezka etortzen zaizkigunak! Badirudi bat edo beste oraindik ez dela aldaketaz jabetu, 30 urteren ostean ere!"

Erdi eta erdi; kar, kar. Bai Durangon bai Oñatin tinko jarraitu dugu trajearekin, eta seriotasuna helarazteko modu bat dela uste dugu. Hori bai, udako beroak etortzen direnean, gure ustea makalduz joaten da. Bali-teke etorkizun ez hain luzean gure janzkeraren berrikuspen bat egin beharra izatea.

Lanera etortzeagatik soilik bada ere, ezagutuko duzu apur bat herria...
Nagusiki, oñatiarren leialtasuna azpimarratuko nuke hainbeste urteren ostean. Oñatiko lagun bat duzunean, bizitza osorako duzula sumatzen duzu, zuk ere leialtasunez jokatzeko duzun bitartean, noski... Eibarrerekin antzekotasun handiak ikusten dizkiot, alde horretatik.

Lan honen okerrena? Aholkulariek gehien gorrotatzen duzuen...
Arlo guztietan bezala, iritzien arabera da. Baina esango nuke bezeroaren arazoak zuretzat barneratzea astuna izan daitekeela, zenbait kasutan. **Interneten gorakadak nola harpatu zaitu? Sakondu egin behar izan duzu ala ondo moldatzen zara?**
Bezeroari erraztasunak eman behar zaizkio beti, eta, horretarako, teknologia arloan apustu garrantzitsua egin behar da.

Goiena Okm gida-k zer eskaintzen dizue?

Erakusleio bat da, informazio guztia bertan batuta izateko. **Aurrez aurreko zerbitzua eta erosketak, ala sarean bitartez?**
Aurrez aurrekoa lehenesten dut. Lanerako, baina, bideo-deiak gure egunerokoan sartu dira.

Goiena Okm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

ITZULERA EKITALDIA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA ETA 'GOIENA.EUS'

EKAINAREN 24AN, EGUENEAN, 13:00ETAN

ARRASATE MUSIKALEKO BANDA, GARIBAND TALDEA,
ARRASATEKO GAITEROAK, LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA,
TXIKITXU ARROSTAITZ DANTZA TALDEA ETA ERRALDOI ETA KILIKIAK

goiena
Zu hemen zaude.

